

Erronkari eta Ansoko toponimiaz zenbait ohar

JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE

*Hango mendi, ur, eta haranen icenac
Denbora zaharretan, oro Eskaldunac
Han egon ahal ciren hats hartzen bezala
Urtheac Pirenetan Iberia cela
J. Martin Hiribarren, Eskaldunac*

Pirinioko euskararen gaiak oso aspaldidanik kezkatu izan gaitu gu, euskaldunok, gure arimaren eta nortasunaren zati handi bat hangoa delako agian. Mitxelenak, Irigaraik, Irigoienek, Txillardegik eta beste askok jakinmin berezia erakutsi dute gai honen inguruan eta haien galderak ez dira oraindik erabat erantzunak izan. Mitxelenarentzat euskararen menderen mendetako ezaugarririk behinena, bere ezin ukatuzko jitea, “hizkuntza pirinioarra” izatea zen. Urteen joanean, Pirinioko hizkuntza izatetik Kantauri itsasoko hizkuntza izatera iragan dela dirudi. Mendien kaskoetatik jeitsi eta itsas aldera jo du bere lehenengo lur eta gordelekuak betiko utzita, ahan-tziak balitu bezala.

Bestalde, Erronkari Iboxaren euskalduntasuna ukatzera inor ausartzen ez den arren, begi bistakoa baita, egungo Euskal Herritik ateko Pirinioko lur anitzen iragan euskalduna baieztatzea –Anso ibarrekoa, adibidez– ez da beti, gaur esaten den moduan, oso zuzena politikaren ikuspegitik, honetaz aritzea euskaldunon kolonizazio nahiaren ondorioa izan baitaiteke, edo halaxeko irudipen gaiztoa dute banaka batzuek. Hala eta guztiz ere, Pirinioko barne munitetako barnerik muinena euskalduna izateak ez dio deus ere kentzen bere pirinioartasunari, aitzitik, pirinioarrago egiten du, nortasun ezaugarri berezko bat gehiago gaineratzen baitzaio bere benetako izateari. Euskararen aztarna hauek agerian utziaz ez dugu lur hau guztia geure egiten, baizik eta lur honek guztiak egiten gaitu bere. Euskal jatorria ukatzen edo ezagutu gabe bizi daitekeen arren, ondarea hortxe dago, altxor baten moduan lurperatua, hartu nahi duena haren jabe egiteko eta aberasteko.

I. ARAGOIAR PIRINIOKO EUSKAL HERRI GALDUA

Euskara erdi aldeko Pirinioko lurretan noraino ailegatu eta noiz arte erabili zen jakitea ez da kontu erraza eta aditu askoren kezka izan da beti. Pirinioak izan dira euskaldunen presentzia nabarmenen jaso duten lekua, Aran haraneraino edo urrutiraino oraindik iristen zen euskara erromatarren aurreko denboretan. *Arles de Tech* Kataluniako Rosillongo herrian aurkitu zen inskripzio erromatarrean irakur daitekeenez, ur beroko mainuak babesten ziztuzten ninfei *niska* (cf. eusk. *neska*) izena ematen zitzairen. Ildo beretik, Joan Corominesen iritziz Kataluniako *Tossa de Mar* herriaren izena, *Turissa* erromatarren garaian, euskararekin erlaziona daiteke, alegia, *Iturritza* datekeela, Ptolomeok aipatzen duen Nafarroako *Iturista* hiriaren parekoa izanik (Tovar, 1981).

Bestalde, gogoan hartzekoa da Pirinioa aipatzen dugunean ez garela bakarrik mendilerroaz edo mendi goieneko lurrez ari, baizik eta Pirinioa bizkarrizur duten mendi barreneko herri eta ibarrez ere. Garonatik Ebrora zabalitzen den eremua dugu gogoan, erromatarrak iritsi baino lehenagoko denboretan euskarak bereak zituen Pirinioetako bi aldeak, hain zuzen ere. Iparraldean, Akitania osoa. Hegoaldean, Aragoi eta Katalunia iparraldeko lur anitz.

Akitaniari gagozkiolarik, Julio Zesarren garaiko geografo ospetsu Estrabonek zioenez, akitaniarrak eta galiarrak herri diferenteak ziren, eta akitaniarren itxura fisikoari zegokionez galiarrekin baino antz handiago zuten iberiarrekin. Julio Zesarrek berak *De bello gallico* liburuan kontatzen duen bezala akitaniarrek ez zuten parte hartu gerrate hartan, Galiaren zati ez baitziren eta beste herri diferentetzat jo zuten erromatarrek. *Aquitania Novempopulana* izena eman zioten eta Galiatik kanpo zegoen probintzia erromatarra genuen. Bederatzi eskualdez osaturik zegoen, bertan Ipar Euskal Herria eta Gaskoiniako zortzi eskualdeak batera hartuaz. Jakina denez, lur eremu zabal honetan hainbat eta hainbat harlauza eta inskripzio erromatar aurkitu dira eta bertan euskal jauntxo, jainko eta jainkosen izenak aipatzen dira. Egun guztiz erdaldunak diren Gaskoiniako herri hauetako harrietan izkiriatuak izen hauek jaso ditugu: *Harbelex*, *Bihoscinnis*, *Ilurberrixo*, *Nescato*, *Cisson*, *Anderexo*, *Ahersbelste deo*, *Astoilunno deo*, etab.

Hegoaldeari dagokionez, euskararen gehienezko hedaduraz zalantza handiak ditugun arren, Pliniok aipatzen duen *Salduie* edo *Salduba* (Zaragoza) hiri iberikoa euskararen muga izan zitekeela dirudi. *Turma Salluitana* izenaz ezagutzen den inskripzioan *Salduie* inguruko zaldun gerrari batzuen izenak zerrendatzen dira. Izen horiek baskoienak omen dira gehienak, antzinako euskararen muga handik oso urrun izanen ez zelako seinale.

Aragoiko Pirinioetan, euskararekin harreman zuzena zuten hiri nagusiak Jaka eta Oska (Huesca) omen ziren. Oihenartek berak jakarrak aipatu zituen euskal lurraldeen artean (cf. Lib. II, kap. VIII). Oskari dagokionez, Plutarcok aipatzen du k.a. 77. urtean Sertoriok akademia bat sortu zuela hiri honetan jauntxoen semeek latina ikas zezaten. Akademian gazteak eskolatuak izaten ziren gero politikan edo magistraturan sartzeko, erromatar hiritartasuna emanen zitelakoan. Sertoriok, halere, guztiei lepo egin zien, jauntxoen askazia betiko galaraziz. Erromako lege eta ohiturak ezarri ondoren, hango biztanleak pixkanaka-pixkanaka hasiko ziren erromatartzen eta, hortaz, erdalduntzen.

Guztiagatik ere, euskara oso berandu arte mantendu zela dirudi. Izan ere, gauza jakina da XIV. mendean hiri honetan euskara bizirik zegoela. Mende hartan, Oskako Udal Ordenantzek merkatuan arabieraz, hebraieraz edota euskaraz hitz egitea debekatu zuten. Hizkuntza horiek galarazteak oso garrantzitsuak eta erabiliak zirela agerian uzten du, alegia, 1349an Oskako azokara joaten ziren merkatariak eta beren bezeroak arabieraz, hebraieraz edota euskaraz aritzen zirela, hizkuntza horietan mintzatuz tratutan sartu eta haien arteko sal-erosketak egiten ahal zituztela (Ricardo del Arco, 1913): *Item nuyl corredor non sia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin venda entre ningunas personas faulando en algaravia ni en abraych nin en basquenç; et qui lo fara pague por coto xxx sol.*

Aipu honi loturik Vicente Latieguik (2002) beste testigantza harrigarrik ematen digu hiri bereko historiari lotuta baina aurrekoa baino askoz ere hurbilagoa, 1561ekoa, hain zuzen ere. Huesca Hiriko Merkatarien Kofradiaren agiri batean haxe irakur daiteke (egileak aipua hiru zatitan ematen du): 1. *Osce. Die XXX aprilis, anno MDLXI. / Eodem die llamado convocado y ajuntado el / capítulo de los magnificos los priores / confrades de la confradia bulgarmen- te dicha de los / mercaderes de la ciudad de Huesca so la invo / cation de Nues- tra Señora de Salas y de señor / Sant Francisco...;* 2. *Et asi todo el dicho capi / tulo de aquella a capítulo llamados / convocados y llamados capitulan / tes capitu- lo hazientes tenientes cele / brantes y representantes todos confor / mes...;* 3. *Ha- brá de hazer (...) tratos lícitos y no prohibidos / y hacer relación y memoria de los tratos / y conciertos que se arán y que en los dichos / tratos no se hará parada ni hablará en gerigonza, / bizcayno, nabarro ni el al / garabía ni otro estranyo len- guaje / sino en nuestra lengua materna.*

Testigantza honek argi erakusten du euskara lur hauetan izan dela duela gutxi arte. Badirudi Erdi Aroan, Beral eta Aragoi Subordan ibaiek bustitzen zituzten lurretan euskara erabiltzen zela. Toponimo euskaldun asko eta asko aurki ditzakegu lur hauetan: *Atxerito* (Anso), *Gamueta* (Anso), *Guarrinza* (Anso eta Echoko herrien elkarren arteko lurrak). Lur hauek izan ditut nire tesian aztergai, Erronkari Ibarrekoekin erkaketa eginez. Baina Ansokoak ez dira izan euskarak Aragoiko lurretan utzi dituen seme-alaba bakarrak. Bana- ka batzuk dira hauek, besterik ez. Hobekien gordeak, agian, baina mapa bat eskuetan hartzen badugu, berehalaxe konturatuko gara norainokoa izan den euskararen garrantzia lur hauetan. Mapari begiratu azkar bat ematen badiogu, adibide anitz aurkituko dugu, bai toponimia nagusian, bai eta txikian ere; toponimia nagusian, esate baterako (cf. J. A. Múgicak, 1962), *Alastuey*², *Alcubierre*, *Alguerre*, *Ayerbe*, *Biscarrués*, *Balaguerre*, *Benabarre*, *Bescós* (cf. gure *Beraskoitze*), *Espierre* (Jaca), *Ligüerre* (bat Cincan eta beste bat Ara Boltañan),

¹ Tildearekin, Aita Latiegiren artikuluan. Zeinuak mantendu ditut berak idatzi bezala, nahiz eta garai haietan, orain ez bezala, osagarri suprasegmentalak beste era batera erabiliak izan (cf. pixka bat aurrerago, *capítulo* tildarik gabe; gauza bera gertatzen da lehenengo aipuan, hor azentuazio zeinurik ez baita agertzen).

² Cf. AZKUE, s.v. *arastui*; Zuberoa deit. *Haristoy*; Santa Grazi, top. *Halkaga*. Cf. halaber, Eñaut Etchamendy, *Eguberri Gabona Garazi alden*: “Eguberriko azeri larru dena zilhar eta diru gure auzotegiko hamalau etxeak herriko leku gorenean ginen, bai eta bortuak eta pago-oihanak negu xuriz jaunztean, aze- ri, fuña eta beste ihizi jeusten zen etxaldetako leizardi, *halztoi*, hariztegi, urritz-brosta eta errekon- do ezpel artetako xendretan behera. Arteak? arteak eta lakiboak ezartzen ginituen... oixe! argi-zirrintean ernekara johaki gu delako arrapagailuen ikusterat”. <http://www.euskonews.com/0015zbbk/gaia1507eu.html>

Lascuarre (cf. Ubieto, 1972, XI. mendean *Alascorre*, *Alascorri*, *Alascorr*; *Lascor*, *Lascuerri*; cf. halaber, Jatsuko toponimo *Laskorre*, San Frantzisko Xabierrekoaren familiaren sorlekua, Múgicak gogoratzen digun bezala³), *Aragüés del Puerto* (Ubieto, aip. lek., *Araost*, *Araoste*, *Arahost*), *Aragüés del Solano*, *Araguás* (Boltaña), *Arascués* (id., *Arascuessa*), *Angüés* (id., *Anguessa*), *Berroy* (Boltaña; cf. *Berroia*, Nafarroan), *Ardanuy* eta beste asko. Ildo beretik, hainbat eta hainbat adibide dugu Aragoiko toponimia txikian, *Atea* (Daroca), *Izarbe* (Anzánigo), *La Raz* (Embún; ik. Urzainkin, *Larraç-ordoqui*), *Lizarraga* (Esplús), *Olate* (Cartirana), *Saraso* (Arrés), *Savalza* (El Frago). Ikus ditza-gun, eskualdez eskualde, euskal jatorria edo euskal itxura duten toponimo aragoiar batzuk.

Jakerrian, adibidez, ondoko adibideak aipa daitezke: *Aratorés* (Castiello de Jaca), *Arri* (Guarrinza), *Aspe* (top. nagusia; Anso eta Aisa), *Bisaurri* (Aragüés), *Atxer* (Echo), *Iguarda* (Villarreal de la Canal), *Izabal* (Binacua eta Santa Cilia de Jaca), *Lubierre* (Borau eta Novés), *Punta Agüerri* (Echo), *San Xabierre de Martes* (Martes), *Chandri* (Sigüés / Zigoze) eta *Zunzurrunera* (Jaka). Bestalde, Val d'Onsellan eta Aragoiko Bortzirietan ondoko euskal itxurako herri-izenak aipa daitezke: *Undués de Lerda*, *Bagüés*, *Navardún*, *Isuerre* (Isorre, Yssor, 928), *Layana*, *Sádaba*, *Biota*, *Asín*, *Bizkarra* (Ruesta) edo *Chapalanguerra* (Urriés) eta *Isuerre* (Urriés).

Ildo beretik, Goi Gallego deitu eskualdean euskal jatorria duten toponimo hauek: *Arriaga* (Javarrella, Sabiñánigo), *Igüés* (Sabiñánigo), *Larraca* (Canfranc), *Larraz* (Panticosa) edo *Escarra* (Tramacastilla). Sobrarbe eskualdeari dagokionez, euskal itxurako toponimo hauek aurkitu ditugu: *Aran* (Boltaña, Broto), *Arbea* (Bolea), *Armeña* (Plan), *Atarri* (Boltaña), *Basa* (Gistain eta Plan), *Batoua* (Gistain), *Escun* (Plan), *Igüerra* (Gistain), *Irués* (Plan), *Javierre* (Bielsa), *La Una* (Plan), *Larraga* (Bielsa), *Lavasar* (Plan), *Las Once* (Plan), *Ordiceto* (Bielsa) edo *Ordessa* (Torla). *Sobrarbe* toponimo nagusi hau bera iruzkindu beharrekoa da. Jakina denez, Manuel Alvarrek lat. *arvum* 'pentze' proposatzen du; halere, euskal jatorria duen toponimotzat hartua izan da, latineko *super* gehi euskararen (*h*)*arbe* oinarriez osatua. Goi Aragoiko eskualderik mendebalekoenari dagokionez, Ribagorzako euskal itxurako herri izen hauek aipatuko ditugu, besteak beste: *Bisaurri*, *Isabena* eta *Lascuarre*. Hauei, jakina, *Sos* (alegia, *Castejón de Sos*) gaineratu behar zaie, Val d'Onsellako izen bereko herriarekin duen erlaziorengatik.

Kataluniako Ribagorzan, Pallarsen eta Aran haranean, euskal itxurako toponimo asko daude. Hona hemen banaka batzuk: *Arahos* (cf. *Araoz*, Gipuzkoa), *Arestuy* (Sort; cf. Erronkari, top. *Arestoya* 1672), *Belastuy* (Sort), *Bassa* (Espot; cf. Burgi eta Erronkari, top. *Batxa*; Arrokiaga, top. *Baxa*), *Besiberri* (Vilaller), *Esterrí d'Aneu*, *Esterre* (Sort; cf. Santa Grazi, top. *Esteretchia* 1914; Borce, top. *Lestere* 1838), *Harlé* (Arties, Bohí; Sarraltzune, top. *Harlary* 1601; Larraine, *Harlegi*), *Iguerre* (Temp; cf. Sarraltzune, top. *Legorre* 1623; Ereta-Arette, top. *Legorre* 1860; Burgi eta Nabaskoze, top. *Legoroz* 1505; Zaraitzu, top. *Ligorrañe*; eusk. *gorri* oinarriarekin, cf. Erronkari, top. *Herrigorria* 1672;

³ *Lascorria* / *Laskorrea* (Jatsu). Donibane Garazitik hurbil. *Laskorrea* etxe nagusia ("Lascorre") 1347an eta 1366an aipatzen da Nafarroako Erreinuko suen zerrendan. Jatsutarren ondarea zen, San Frantzisko Xabierren arbasoena.

Larraine, *Idigorria* 1832), *Isavarre* (Alt d'Aneu), *Pic Llucià* (Arties, Bohí; cf. Larraine, *Alhor Lucia* 1832), *Sesques* (Espot; cf. Anso eta Echoko mugan, top. *La Char de Secus* 1586; Etsaut-Aspe eta Laruns-Ossau top. *Sesques*), *Loriet* (Bohí; cf. Anso, top. *Los Artigaços de Lurriaga* 1667), *Socarrades* (Bohí; cf. Anso eta Echo, top. *La Socarrada*); Santa Grazi, deitura "Joan Aguerre socarroz" 1643), *Barranco Picolasso* (Bohí; cf. *lats, loxea*: Larraine, top. *Pecologea* 1832; Sarraltzune, top. *SacuchipicoLepoa* 1589), *Basco* (Erill-La-Vall, Bohí), *Guina* (Bohí; cf. Uztarrozeko Abolengo Liburuan, top. *Usurugoina*), *Baserca* (Vilaller; cf. Garde, top. *Bacherca* 1562), *Lestui* (Aneto, Vilaller; cf. gorago Sort, top. *Arestuy*), *Salvasa* (Aneto, Vilaller; cf. Burgi (?), deitura "Maria sabalça" 1655), *Esquerria* (Erill-La-Vall) eta beste.

Eskualde eta herri hauek guztiak dira, oro har, Ramon Menendez Pidalek *Orígenes del español* (1950) liburuan aipatzen dituen berberak. Jakina den bezala bere lan horretan dialekto iberiarren mapa marraztu zuen eta bertan lur hauek guztiak jaso ere bai, euskara zaharraren gordeleku eta lekuko bezala.

Euskararen hego-ekialdeko mugak

Un conocedor tan práctico del vascuence como Irigaray [cree que el roncalés] es autónomo y que se emparentaría más que con los de Soule con subdialectos vasco-aragoneses.

CARO BAROJA (1945: 21-22)

Noizbait euskaldunak izan ziren lur hauen leku izenak erdal kutsu nabarmena hartzen hasi ziren pixkanaka eta poliki. Izenak desitxuratu ziren eta beren jatorrizko esanahiak ilundu ere bai. Hizkuntza erromanikoen bilakaera fonetikoak eragin handia izan du euskal toponimoen desitxuraketa honetan, ondoko erdaren modura garatu baitira. Halaber, erdal hitz zaharrak desagertzen ari dira eta gaztelania ari da haien tokia hartzen. *Bua, endrecera, cingla, poyo, tosca, cubilar, belena* edo *regacho, carasol, majada, muidera, paco* eta beste erdal hitzak erabiltzen ziren Erronkariko eta Ansoko erdaretan. Hitz horietako batzuk desagertu dira eta inork gutxik ibiltzen ditu. Euskara zaharra hil eta erdara zaharren lekukoak desagertzen ari dira Erronkarin. Nafar-aragoiera erromantzearen eragina aparta izan zen lur hauetan, oso handia eta zabala. Hemengo euskararengan ere bere eragina hedatuko zuela uste izatekoa da. Bestalde, hitz batzuk ezin dira ulertu euskararen laguntzarik gabe, baina ez dira guztiz argiak sartaldeko euskaldun batentzat. *Ibon* hitza ez da erromanikoa eta euskaldun garbitzat jotzen dugu, nahiz eta egungo euskaraz islarik ez izan. Jakina, erdararen bidez ezin da azaldu eta euskararen bidez zuzen-zuzenean *ibi, ibai, ibar* hitzekin lotzen ahal dugu. Zer esanik ez, Ansoko *char* hitza 'sarrera', ezin da ulertu euskararik gabe. *A Char de Forca* toponimoa erraz ulertzen da euskararen bidez, *atxar(t)* hitzarekin lotzen baitugu berehalaxe.

Euskarak eragin zuen hemengo erdara eta, era berean, erdarak hemengo euskara. Euskaraz erabiltzen ziren hitz batzuk nafar-aragoieraren ondarekoak ziren (AZKUE s.v.): "endezera kartan agitu zaitad mando baten erortea". Euskal hitzek erdal ordainak zituzten: *muga* (*buga, bua*), *oxezkia* (*paco*), *xasgu* (*majada*), *etxarte* (*regacho* edo *belena*). Erdal hitzek euskal ordainak zituzten: *poyo* (*poio* edo *puii*), *cabezo* (*kukula*), *cubilar* (erronk. top. *Kubilea*, biarn. *cuyala*), etab. Tarteka erdara eta euskara nahasten ziren toponimo be-

rean, adibidez Ansoko *Cubillarrola* leku izenean. Beste batzuetan, berriz, *Peña Roya* bezalako erdal toponimo bat euskara nagusi zen Urzainki bezalako herri batera iritsi eta, etorkin gisa maletak lur hauetan utzita, hemen bizitzen gelditzen zen betiko. Edo, agian, guztiz erdaldunduta dauden urruneko lur batzuetan, euskal toponimoren bat izan daiteke, oraindik, guztiz bakandurik eta bakar-bakarrik eremuaren erdian, antzinako denboretan lur horiek bereak zirela eta, jabetza kendu bazioten ere, etxetik irtenaraziko ez dutela esan nahiko balu bezala (cf. Anso, top. *Cuchet de Garay o La Mujer Muerta*, edo, bestela, Laskun / Lescun, top. *Lac d'Ourbiette* eta *Pic d'Ourtasse*).

Nahas-mahas emankor honen ondorio zuzena bezala, Pirinioko Babel txiki honetako hizkuntzek jite berezia garatu dute, nahitaez. Fidela Bernatek, Antonia Anautek eta Erronkaribarreko gainerako azken euskaldun zaharrek erabiltzen zuten mintzaira, guztiz ulergaitz eta urrunkorra zela esan ohi da, zoko bateko euskalki zokoratua omen zen haiena. Zaraitzua eta aezkerarekin batera hizkera arkaikotzat eta bitxizat hartua izan da (LAFON, 1955; eta CHARRITTON 1986; ap. CAMINO, 1997: 140). Baina, arestian ikusi dugun bezala, erronkarieraren aspektu “si curieux” honi ondoko erdararen eragina gaineratu behar zaio. Honela, bitxiago bilakatzen da oraindik ere. Bestalde, hiltzear dauden euskalki guztiekin gertatu ohi den bezala, eragin hau gero eta nabarmenagoa zen azken garaietan, eta euskaraz egindako elkarrizketetan ere behin baino gehiagotan erdal lokuzio osoak tartekatzen ziren, Erronkaribarko azken euskalduna –uztarrotarra bera– Kike Diez de Ultzurrun kazetariari mintzatu zitzaion bezala (EUSKALERRIA IRRATIA, 1990: 86): «–Nola deitan zra?–Fidela Bernat, pa servirle». Ohikoa zen. Guztiz arrunta.

Nire ikerketari ekin baino lehenago nahasketa honen berri banuen, lehen eskutik gainera, Gasteizko Fakultatean Filologia ikaslea nintzelarik Mitxelenairen irakaspenak jasotzen baintuen astero. Bai, eiki, maisuak ongi ezagutzen zuen Erronkari. Neroni, ordea, ikasle hezigaitza izaki eta ez nien beti irakasleei beren lana behar den bezala ez aitortzen, ez baloratzen, eta, tamalez, ez nuen erabat aprobeixatu patuak eskura jarri zidan zoriona. Harelere, egia hau gorde nuen gogoan eta, hemendik, urteen joanean, jakinmina areagotu zitzaidan eta mila galdera etorri zitzaizkidan burura; haien artean bat, guztiz garrantzi handikoa zena niretzat: ea hizkuntzekin gertatzen zen gauza bera gertatzen ote zen toponimian edo, bestela esanda, ea ordurako batere asmo filologikorik gabe ongi korrituak nituen Erronkaribarko mendietako euskal toponimiak erdararen eragina jaso ote zuen, eta, aldi berean, ea Ansoko erdal toponimian euskararen eragina nabaria izan ote zen. Hori frogatu ahal izateko artxiboak arakatzeari eta berriemaileekin solasteari ekin nion. Dena den, ikerketa sakonik egin gabe ere, egitate honen berri izaten nuen mapa eskuan hartuta mendien izenak irakurtzen hasten nintzen aldioro.

Louis-Lucien Bonaparte Printzea

Betiko joan ziren Erronkariko euskaldun zaharrek ondare aberatsa utzi zieten beren ondorengoei, testuak, grabaketa batzuk, Bonaparte printzeak eragindako lanak, Mendigatxaren lan eskerga eta, jakina, mendien, ibaien eta zokoguneen izenak ere bai. Izen euskaldunak gehienak, Aragoiko eta Biarnoko muga hurbiletan sartzen direnak, edo, hobeki esanda, handik inoiz ere atera ez direnak.

Erronkariara euskalki txiki eta bakartua dela esan ohi da, baina Bonaparte printzearen sailkapen guztietan Euskal Herriko ekialdean euskalki handi bat ikus daiteke, Pirinioko bi isurialdeetan hedatua. Euskalki bakarra zegoen, ezaugarri fonetiko eta morfologiko bereizleak eta ongi definituak zituzten hainbat azpieuskalkiz osatua, baina bat bakarra azken finean. Euskalki horri bere sailkapenetan zuberera deitu zion. Euskalki hura handiagoa eta zabalagoa izan zitekeen, ordea.

Louis-Lucien Bonaparte euskalari euskaltzalearen bizitzaren azken urteetan, berriz, ez zen iritziz erabat aldatu, baina bai duda-mudan ibili. 1880ko urriaren 12an Campion jaunari bidalitako gutunean erronkarieraren jite berezia onartu zuen: *qui est presque un dialecte indépendant*⁴. Printzearen zalantzak Azkue bera (1931: 207) eragingo zuen: *la lengua vasca, subdividida, como creo, en ocho dialectos, quizá nueve, si el roncalés es más que un simple subdialecto*. Zortzi euskalki direla *uste du*, baina bederatzi izan litezke *agian*. Gerta liteke zortzi edo bederatzi izateak garrantzi berezirik ez izatea, askoz ere gutxiago orain, Zuazoren (1989) lanak eta berak egin sailkapena argitaratu ondoren. Euskalki guztiak hiru multzo nagusitan banatzeak Bonaparteren hizkuntzalari sena erakusten duela dio egileak. Izan ere, Zuazok berak egindako ikerketen arabera, hiru talde horiek argi eta garbi erakusten dute sailkapena egiteko erabili ziren irizpideak arrakastatsuak izan zirela (Zuazo, 1989: 646): «Bizkaiera, erdialdeko euskalkiak (gip., lap. eta g-naf.) eta ekialdekoak (zub., b-naf., erron., zaraitz. eta aezk.) izan zen berak ezarritako sailkapena eta sailkapen horixe egiaztatzen datoz, ñabardurak ñabardura, guk bildutako emaitzak. Batasun estua somatzen da zuberera, erronkariara, amikuzera eta bardozeraren artean. Batasun hori Ekialdeko behe-nafarrera osatzen duten gainerako hizkeretara eta zaraitzuerara ere hedatzen da sarri askotan. [...] Mendebaldeko behe-nafarrera, Hegoaldeko goi-nafarrera eta aezkera, berriz, Ekialdeko eta Erdialdeko multzoen arteko euskalki ‘zubi’ begitantzen zaizkigu guri».

Koldo Mitxelena Elissalt maisua eta euskaro (sic) batua

Koldo Zuazok hiru euskalki handi somatzen ditu eta ez bederatzi. Bestalde, begi bistakoa da, denboran atzera egin ahala euskalkiak elkarrengandik hurbilago daudela dirudi, halaxeko euskara batu zahar baterantz hurbiltzen direla. Mitxelenak (1981) *Lengua común y dialectos vascos* artikuluan euskalki “euskaro” kontzeptua erabili zuen v. edo vi. mendean ustez izan zen “euskara batuari” izena emateko –bera, egungo euskara batuaren guraso zena–, eta ‘euskara zahar’ edo ‘protoeuskara’ kontzeptuekin ez nahasteko.

Maisuarentzat *euskaro* hura koine bat omen zatekeen, aurreko euskalkien aniztasuna eta sakabanatzea batzera zetorrena. Mitxelenaren iritziz mende haietan, agian, gure lurrek askatasun aro bat bizi omen zuten eta egoera honen euskararen batasuna ahalbidetuko zuen, euskal tribuen loturak indartu baitziren eta, era berean, haien hizkuntza batu ere bai. Adibide bat jartzearen, frankoen oldarraldia eta Toledoko erreinuarena aipatzen du, eta, bereziki, Leovigildoren kanpaina (581) eta Astrovaldoren espedizioa Gaskoiniako ordokietan barna (587; Gregorio de Toursek aipatua, cf. Oihenart, *Notitia*).

⁴ Cf. LACOMBE (1932: 195) eta YRIZAR (1992: 1).

Mitxelenak dioenez, indar handia eta antolaketa aski eta sobera egon omen zen erasoei aurre egiteko eta, finean, garaitzeko. Baskoiak mendietatik etorri zirelako berria gaizki ulertu ohi da. Hegoaldekoak balira bezala. Ordea, litekeena da hangoak izatea, mendien babes bila joandakoak bisigotuak ordokiak inbaditu zituztenean, eta mendietatik ordokietara itzuli zirenak indarrak batu eta ongi antolatuta zeudenean. Indar horrek berak, batasun horrek berak, gizarte berri bat eratzea ahalbidetuko zuen, batuagoa, nonbait bere eragina hedatuko zuen erdigune bat izan eta euskara eredu jaso bat bakarra zabalduko zuena, herri eta ibarren muga guztien gainetik. Zilegi bekita eta barkatua izan dakidan *excursus* luzea, baina behar-beharrezkoa nuen Pirinioko lur hauetako hizkuntza egoera irudikatzeke, hemengo mintzaireren artean ezin hautsizko batasuna nabaritu edo, gutxienez, somatzen baita.

Egun, gauza bera gertatzen ari dela dirudi. Adituen iritziz, ukipenean dauden herrialde bereko euskalkiak gero eta antzekoagoak dira. Euskara batuak bere eragina izan du, jakina, baina, bestela ere, euskara plazara jalgi den neurrian gertatu beharreko fenomeno zen, goiz ala berandu suertatuko zena. Egiaz, euskara bazter utzia izan denean, besteen berri izan gabe tokian tokiko txokoetan garatu behar izan denean, euskalkiak indartu dira eta aldameneko herrien euskaren eragina baizik ez dute izan. Gaur, komunikazio globalaren aroan bizi garelarik, euskara bera ere berdintzen ari zaigu, baina duela mende bateko egoera guztiz bestelakoa zen.

Euskal Herriko euskalkirik hedatuena eta zabalduena Hegoaldeko goi-nafarrera izan da. Euskalki honen behialako mugak, ordea, ez dakigu ongi marrazten. Mendebal aldeko euskararen antzinako mugak ukitzen zituen Burundan eta Lizarra aldean, baina ez dakigu noraino hedatzen ote zen Ekialdean. Gure hizkuntzaren galera diakronikoa irudikatzeke marraztu diren mapa guztietan Hegoaldeko goi-nafarreraren ekialdeko mugek Nafarroako mugekin bat egiten dute. Mapa gehienetan XVI. mendeko egoera aipatzen da abiapuntutzat eta handik hasten gara galeraren mugak bata bestearen gainetik jartzen. Edo, bestela, erromatarren garaiko mapak marrazten ditugunean, I. mendearen egoera islatzean, Pirinioko zatirik handiena harrapatzen dugu, Aran haraneraino behintzat. Jauzi ikaragarri bat eginez, hurrengo isoglosa egungo Euskal Herriaren mugetan marrazten dugu eta tarteko hamabost mende horietan gertatutakoaz ahaztu egiten gara. Dena irudipen hutsa da behin baino gehiagotan. XVI. mendeko euskararen isoglosa egungo Nafarroa Garaiko muga administratiboan ezartzea ez da guztiz zilegi, ondoko herrietan euskara galdu ote zen egiazki jakin gabe.

Gazteluberri eta Salbaterra Ezka

Gazteluberri euskalduna izan bada XIX. mendera arte ez da erraz ulertzen zergatik lau kilometrotara dagoen Aragoiko Salvatierra de Esca herria ez den aipatzen XVI. mendeko egoera irudikatzen duten mapa linguistikotan. Gazteluberriko urak herri honen aldera isurtzen dira. Ur hauek busitzen zituzten lurrek euskaldunak behar zuten izan orduan. Nahitaez. Bestela ezin da ulertu zergatik marra honetatik ezkerrean bai, eta eskuinera ez; edo gehiago oraindik, zergatik marra horretatik iparraldera bai (Erronkari Ibaxan XX. mendera arte gorde baita *uskara* zaharra), eta marra horretatik hegoaldera, ez. Ez ote zen euskaldunen bat sikiera biziko Salbaterra Ezkan?

Eta baten bat bizi bazen, zein euskalkitan mintzo ote zen? Nola mintzo ote ziren Orba mendien inguruan bizi ziren euskaldun haiek? Zaraitzueraz?, Bonaparteren mapan begiraturaz iradoki daitekeen bezala? Hegoaldeko goi-nafarreraz, apika?

Zoritxarrez, Jesus Maria Sasiak *Euskera* (1999-2) aldizkarian eman zuen berria ez da zuzena eta Salbaterra Ezkan ez zuten apaiz euskaldun bat eskatu XIX. mendearen hasieran. Sasiak Jose A. Mugicaren (*Apellidos de Iberia*, 1968) aipu baten berri ematen du. Kontua da aipu hura ez dela zuzena, eta Mugicak berak gaizki irakurri eta okerrago jaso zuela Tuterako kalonje Javier Garriz jaunaren idazki batetik. Eta hortik dator akatsa. Jatorrizko aipua *La villa de Garde en el Valle de Roncal: ensayo de una monografía parroquial* (1923) liburuan argitaratu zen eta, liburuaren izenburuak berak aldarrikatzen duen bezala, aipua Garderi dagokio eta ez Salbaterrari. Izan ere, Garden bai eskatu zutela abate euskaldun bat Lehenengo Karlistadaren garaian behin-behineko lanean aritzeko (titularrak ihesari eman baitzion), eta, bai, hara aurkeztu zena Salbaterrako abategai bat izan zen, baina ez zioten lanposturik eman Garden aritzeko euskara jakitea beharrezkoa baitzen (Garriz, 1923: 105; *Garde Hiriko Akordioen Liburua*, 1838): «A propósito de una solicitud sobre asistencia de Abad Interino presentada por D. Julián Aznarez Capellán de Salvatierra (Aragón) el Ayuntamiento a 3 de Febrero de 1838 resolvió: *que el que ha de servir aquí en esta villa ha de ser Bascongado para preguntar la doctrina y confesar en Bascuenze de otro modo no puede servir en esta villa*».

Baina itzul nadin berriz ere harira eta aipa dezadan orain zein zen azken mendeotan Salbaterra Ezka herriaren inguruan dauden herrien hizkuntza egoera. Bitxia da gero, baina printzearen mapan Biotzari Erromantzatuko lurretan kokatzen da, alegia, goi-nafarreraren mugen barruan. Gazteluberri, ordea, Ustaizekin eta Nabaskozerekin batera (eta han, zaraitzuerak bere eragina hedatuko zukeen, jakina). Gazteluberri Nabaskozeko almiranterriko zati da. Sobera bakarturik dago, ordea. Amildegia du Aragoiko isurialdean, bai, baina horrek ez ditu inoiz ere beldurtu artzainak, ezta ere egurgile eta erre-kariak. Hala eta guztiz ere, Gazteluberrin zaraitzuerak jotako euskalki batean egiten zutela onartzen badugu, hortik lau kilometrotara, errekan behera, zaraitzueraren oihartzunak iritsiko zirela onar genezake. Hala eta guztiz ere, antzeko argudio geografikoa erabiliz, errazagoa dugu pentsatzea Salbaterra Ezkan erabiltzen zena Burgin erabiltzen zen berbera zela, ibar bereko herriak baitira. Gainera, baten batek Leireko eta Illongo mendizerrak gaindiezinezko mugak zirela pentsa lezake. Halere, gure maisuek ongi irakatsi ziguten bezala mendiak ez dira inorentzat oztopo eta, askoz ere gutxiago hizkuntzentzat. Azter dezagun kasu hau baratxe-baratxe eta zilegi bekit, berriz ere, gaiaren ingurumarietara itzultzea.

Aretan, Baiguran, Leiren, Illonen eta beste anitz lekhotan

Bonaparte printzeak Aretako mendietan eta Baigurako gailurraren oinetan, Aezkoako lurretan, Mendebaldeko behe-nafarreraren mugak jarri zituen, eta Araxa menditik Olagastiraino, Zaraitzu ondoko lurretan, Ekialdeko behe-nafarrerarenak. Izan ere, printzearen iritzi Arrakas Goitin erabiltzen zen euskara zaraitzueraz zen (cf. Mitxelena, 1967: 163). Hala eta guztiz ere, Arrakas Goitiko ibar bereko Zerrenkano herria Hegoaldeko goi-nafarreraren mugan

kokatu zuen. Egoera ez da guztiz argia. Bestalde, maisuak gaineratzen duenez, mendi hauetako hizkerak –zaraitzuera, aezkera eta erronkariera– Iparraldeko mintzamoldeetatik aldentzen dira nabarmen, haien soinuak guztiz Hegoaldekoak baitira. Bonapartek euskalkien sailkapena egiteko unean ez omen zuen fonologia kontuan hartu; aitzitik, morfologiari eman zion garrantzi gehiena. Mitxelenak dioenez, sintaxiak berak ere fonologiak baino askoz ere eragin gehiago izan zuen sailkapenean. Beraz, ez dago horren garbi Iparraldeko euskalki baten oinordekoa zela Arrakasén (edo Burgin) erabiltzen zena. Izan ere, Lafonen (1955: 121; ap. Camino 1977) iritziz aezkera, zaraitzuera eta erronkariera zenbait arlotan Iparraldeko euskalkiei estuki loturik dauden arren, beste zenbait arlotan urrunkorrek dira haiekiko eta, aldiz, hurbilkorrek Hegoaldeko goi-nafarrerarekiko.

Beraz, hipotesi modura esan liteke ezen Ekialdeko euskalki guztiak erlazonaturik zeudekeela v. edo vi. mendean, eta gero, Aezkoako, Zaraitzuko eta Erronkariko herriek Baigurako mendi katetik hegoaldera dauden herrie-kin hasiko zirela harremana galtzen eta Iparraldeko auzo herrie-kin, ordea, artzaintzarengatik edo, harreman hura indartzen eta sendotzen. Beren hizkuntzen hasierako ezaugarri lexikoak hasiko ziren pixkanaka-pixkanaka aldatzen, hasierako jitea galtzen eta beste bat sortu zen, erdibidekoa, ez guztiz Hegoaldekoa, ez Iparraldekoa, guztien ezaugarrietatik edaten zituena baina berenberena baizik ez zena.

Baiguraren bizkar-bizkarretik ibiliz Illongo eta Leireko haitzetara iritsiko gara. Horien atzean Gazteluberriko eta Erronkariko lur bakartuen ondoan Salbaterra Ezka, Zigoze, Lorbeze eta Aragoiko goi haranak ditugu –Anso, Echo eta beste anitz–, eta mendiez haratago, Gaskoinia, Akitaniako bihotza. Aipatzen ari garen hipotesiari jarraikiz, uste izatekoa da lur hauek guztiak ere lehengo batasun horren partaide zirela, “euskaro” delako hizkuntzaren lurak ere bazirela.

Honela bada, Leire eta Illongo menditik iparraldera zegoenak beste eremu linguistikoko bat osatzen badu, mendebaletik (Baiguratik) ekialdera doan muga bat finkatu badugu hor, muga hau luza liteke ekialderago Melluatik eta Virgen de la Peñaren lurretatik (Burgiko Larra eta Sasi barne hartuta) Gardeko Argaraietaraino eta hemendik, berriro ere hegoalderantz, Fagoko mendietaraino eta Bugaloraino. Hor muga bat markatzen da, oso nabaria. Alde batetik, Berdun ibarreko ordokiak eta Jakako Puente La Reina hegoaldean, eta beste alde batetik, mendien muga honetatik iparraldera Goi Aragoiko haran guztiak: Anso, Echo, Aragues, Aisa, Borau eta beste. Ibar hauetan erabiliko zen euskara Nafarroako Ekialdeko ibarretako euskarekin erlazonatuta egon zitekeen, hauek ere mendialdekoak baitira.

Muga honetatik hegoaldera erabiliko zen euskara askoz ere goizago galduko zen, ordokietan kanpoko eraginak errazago sartzen baitira, baina, bizirik zelarik, Leiretik hegoaldeko herrietan erabiltzen zen euskararekin lotura izanen zukeen, aski ziur. Eta guztien artean, mendiez inguratuta, Orba mendien magalean, herri euskaldun anitzek inguraturik, zergarik gabeko hiri bat, guztiz berjabe, Salbaterra Ezka. Iparraldeko euskalkiekin lotura handia zeukaten mendialdeko euskalkien mugakidea eta, orobat, Hegoaldeko euskalkiekin muga eginez. Bi multzo handiren artean. Hizkuntza anitzen igarobidea. Eleanitza. Aragoi ibaiaren arroaren atean.

Garona ibaiaren ertzeetan edo Aran haranean erabiliko zen euskara nola-koa zen jakitea guztiz zaila den arren (Lakarraren eta Gorrotxategiren lanak kontuan hartzea betiere ona da), aztertzen ari garen teoriari jarraikiz esan dezakegu V. edo VI. mendeetara arte iraun bazuen, batasunerantz joko zuela honek ere, eta hizkuntza “euskaro” horren zati izanen zatekeela aski ziur, eta Aragoiko lur hauetan erabiliko zen antzeko mintzaira ibiliko zuten. Orduko egoera irudikatzen duen mapa bati begiratu azkar bat ematen badiogu Erronkari orduko Euskal Herri horren erdigunean dagoela konturatuko gara eta, hortaz, gerta liteke Erronkariko euskal toponimian aurkitzen ditugun izen batzuk, gaur egungo euskaraz erabiltzen ez ditugunak, garai haietan hedatuagoak egotea, orduko Euskal Herriaren bihotzean erabiltzen baitziren (cf. *ibon* edo *gabar* esatearren).

Mende hauek iragan ondoren, VII. eta VIII. mendeetan bi gertaera historiko garrantzitsu gertatu ziren orduko Euskal Herrian: alde batetik, frankoak erabat nagusitu ziren Akitaniako Euskal Herriaz, alegia, Gaskoiniako landa eta herri guztiez, haien hizkuntzaren molde fonetikoak eta seigarren bokal ez-painkaria gurera ekarriaz; beste alde batetik, VIII. mendearen bukaeran Iruñeko Erreinua sortu zen eta une honetatik aurrera Iruñeak berak bere eragina hedatuko zuen frankoen menpe ez zegoen orduko Euskal Herrian. Gaskoinian frankoek eragindako erromantzea hedatzen hasi zen orduan, eta Nafarroan eta Aragoian, berriz, hegoaldeko hiztunek eragindako nafar-aragoiera erromantzea. Eta, jakina, bai batak, bai besteak euskara zuten oinarri.

Frankoen eragin fonetiko hau izanen da zubererari bere jite berezia emanen diona eta asimilazio garapen askoren abiapuntua. Biarnon erabiltzen zen euskara (eta gaur egun oraindik zenbait auzotan erabiltzen dena) zubereraren antzekoa zela dirudi. Batasun politiko bereko herriak izan dira menderen mendetan, eta gaur egun ere Zuberoa Oloroeko eliz barrutiari loturik dago, administratiboki Paueri lotua dago, baina Zuberoaren kasuan harreman hau estuagoa izan da beti, Biarnoko historiari zuzenki lotua egon baita oso aspal-didanik.

Frankoek ekarri zuten seigarren bokalak hautsi zituen Galiaren eta Akitaniaren arteko muga zaharrak. Julio Zesarrentzat batzuen eta besteen piurak eta hizkuntzak ezberdinak baziren arren, VII. edo VIII. mendeetatik aurrera ezberdintasun horiek ezabatzen joanen ziren, han ere Garonaren iparraldetik zetorren beste batasun mota diferente bati erantzunez. *Oïl* edo *Langue d’oui* hizkuntza ez zen Okzitaniaz jabetu, ez, baina bai ordea bere ezaugarri batzuk hedatu gure artean. Seigarren bokal ez-painkariak Akitaniako bokal sistema zaharra erabat aldatu zuen, aldaketa bortitzak erakarriz Gaskoinian sortzen ari zen erromantze jaioberrian eta ukipenean zeuzkan Biarnoko eta Zuberoako euskaretan ere. Han gertatu ziren aldaketen oihartzunak Pirinioko goi mendiak iragan eta Leireko eta Orbako iparraldeko lurretaraino hedatu ziren, asimilazioak eta garapen bokaliko asko eraginik, baina hegoaldeko ahoskatzeko modu ez-epainkaria mantenduz.

Mendi hauetako euskaldunak zein euskalkitan mintzatzen ziren? Erronkarieraz ez, jakina, zubereraz ere ez, baina euskalki hauek Aragoitik oso hurbil daude, gainerakoak baino askoz ere hurbilago behintzat, geografikoki halaxe da bederen. Zilegi da pentsatzea hurbilen daudenak antzekoenak ere izan daitezkeela. VII. eta VIII. mendeetatik aurrera, herri hauetako euskara bere kaxa garatzen hasi zen; zuberera eta erronkariara aldatu ziren bezala, halaxe aldatuko ziren Biarnoko eta

Aragoiko euskarak. Berezkoa zenari, mailegatua erantsiko zitzaion, eta zaharra zenari berria, baina, halaz guztiz, berezkoa eta zaharra zutena galdu gabe.

Etxaberri, Pirinioko toponimo nagusia⁵

Gorago aipatu den bezala, Hegoaldeko goi nafarreraren eragina Nabaskozeko mendietaraino hedatu zen. Hegoalderago, *Xabier* izeneko herrian euskalki berbera erabiltzen zen. Jakina den bezala, izen hori bera aurkitzen dugu Anso ondoko *Javierregay* eta *San Xavierre de Martes* toponimo nagusietan eta, halaber, urrutiko beste leku askotan ere: *Javierre de Bielsa*, *Javierre de Olson*, *Javierre de Ara* (honen ondoan *Ligüerre* eta *Berroy* herriak daude; cf. Erromanizatuan, top. *Murillo Berroia*), etab. Toponimo hauxe bera aurkitzen dugu 1582an Erronkaribarko Erronkari hirian, top. *Etxaberri* (1345.06.15 data duen agiri baten kopia da, ALLik 1989: 321 argitaratua; ik. beheiago). Orobat, Izabako deitura da: “domingo *Echaberria*” (1676.03.19, Nafarroako Protokoloen Artxiboa, Erronkaribar, 50. karpeta, Pedro Ros notarioa; ik. beheiago).

Toponimo bat da, adibide bakar bat hemendik taxuzko ondoriorik ateratzeko, baina guztiz adierazgarria ekialdean oso hedatua baitago, mendebaldean ez bezala. Izan ere, ekialdean *E(t)xaberri* anitz ditugu eta mendebaldean, berriz, *Etxebarri*; erdialdean, *Etxeberri*, bai, baina ekialdeko euskalkiak mendebaldekoekin batzen diren hegoaldeko lurretan, *Etxabarri* dugu, bien nahasketa balitz bezala. Honekin zer esan nahi dut? Ekialdean euskalki multzo handi bat bazegoela (*Etxaberri* taldekoa) eta Bonaparteren mapan talde horri dagokion lekua, oro har, Hegoaldeko Goi Nafarreraren ekialdeko azpieuskalkiek eta Ekialdeko Piriniokoek harrapatzen dutela. Ikus ditzaugun *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* lan erraldoian jasotako adibide batzuk:

Nafarroako hego-mendebaldean, eskuarki, Etxabarri

Peñas de Echavarri edo *Peñas de Chábarri* (Abartzuza), *El Corral de Echavarri* o *El Corral de Chavarri* (id.), *Essaberri* (Aberin, NEN 1079), *Exxauarri* (id. 1099), *Chavarri* (id. 1168 eta 1711, 1722), *Echauarri* (id. 1330), *El Regacho de Echavarri* (Allin), *Las Peñas de Echavarri* (Ameskoa), *El Puerto de Echavarri* (Yerri). Ekialderago, adibide banaka batzuk eta berantiarak oso: *Balsa de Chavarri* (Cascante), *Corral de Chavarri* edo *Corral de Echavarri* (San Martin Unx).

Nafarroako hego-ekialdean, eskuarki, E(t)xaberri

Exauierre (Xabier, NEN 1091), *Iabier* eta *Sabier* (id. 1102), *Issauier* (id. 1237), *Xauier* eta *Xavierr* (id. 1366), *Camino de Javerri* (Urraul Goiti), *Saveerri* (Longida, NEN 1086), *Rio Chavier* (Caparroso, 1701; afrikaria gordeaz), *Rio de Chavier* (id. 1712 eta 1716). Hala eta guztiz, mendebalean ere dokumentatzen da, *Etxabarri* espero genukeen lekuetan, *Etxaberri* zaharragoa delako seinale: *Exauerri* (Allin, NEN 1280), *Exaverri* (Aberin, NEN 1189 eta 1194), *Echauerri* (id. 1350).

⁵ Cf. Ramón Menéndez Pidal, “«Javier-Chabarri» dos dialectos Ibéricos”, *Actas de la Primera Reunión de Toponimia Pirenaica*, CSIC, Zaragoza, 1949.

Erronkarin, top. *Echaberri* (1582; Alli 1989: 321): «E de alli a *Echaberri* / en todo el bedado casalenco con el bedado buyeral pasando a Gazteluçarra».

Izaban, deit. *Echaberria* (1676): «En la Villa de Issaua a los diez y nuebe dias del mes de março del año mil seysci.tos setenta y seys El sr. P.o marco teniendo de all.de de la dicha Villa En cumplim.to de lo mandado por El sereni.mo Sr. don alexandro fernes Virrey y Capitan general del Reyno de nauarra hizo Rolde de los Vezinos que ay En la dicha Villa y capaces para tomar armas desde los diezseys años asta los sesenta para lo que se puede ofrecer al seruicio de su mag.d, Y se hizo En la forma Y manera seg.te = Primeramente : (...) P.o blasquiz una pica falta Espada, alfonso bereterra tres arcabuces flascos y dos espadas, ciprian osquiguilea tiene todo, P.o ansodi arcabuz y flascos, Joan Esparz tiene todo, P.o baracu tiene todo, Joan garde mayo dos arcabuces flascos y dos Espadas, migl. bon una pica y Espada, migl. baynes dos arcabuces flascos Espada y una pica, lorenz marco solo arcabuz, Blas perez dos Escopetas flascos y Espada, Remon de Corostiaga Escopeta, domingo gayare arcabuz y flascos, P.o Caro sin armas ojo, Geronimo Ros tiene todo, Joan carica tiene todo, Migl. carica tiene todo, Pedro marco Recari tiene todo, P.o mancho tiene todo, Lorenz Conget sin armas ojo, P.o Valde bastero solo Escopeta, Joan arnaut sin armas ojo, Joseph marco sin armas ojo, lorenz negarra una pica y Espada, Joan valde tiene todo, sebastian blasquiz todo, Joan baruiela una pica y Espada, Joan Eguruide tiene todo, phelipe lasa sin armas ojo, P.o valde capitan falta espada, Vicent Ros tiene todo, domingo *Echaberria* arcabuz y Espada, Joan nicolau sin armas ojo, Lorenz garde arcabuz y Espada, Vicent Ros arcabuz y flascos, phelipe larayn sin armas ojo, Joan maynz todo tiene, martin marzan sin armas, Joan xixant tiene todo, Estean Hezquer tiene todo, Joan baracu tiene todo = son 42 = (...) Pedro marco = Lista de Ysaba».

Deitura bezala, *Echaverri* eta bere aldaerak oso hedatuta daude Nafarroan; esaterako, *Echaverri*, deit.: Gares, Iruñea, Faltzes, Miranda Arga, Ihaben, Hiriberri Arakil, Tafallan, Uharte Arakil, Lizarra, Oibar, Ablitas, Zangoza, Tuter, Mendigorria, Erriberri, Esa, Almandotz, etab. *Chaverri*, deit.: Faltzes, Tuter, Oibar, Milagro, Ablitas, Ribaforada, Erriberri, etab. *Javerre*, deit.: Fustiñana. *Javerri*, deit.: Turrillas, Iruñea, Atarrabia, Inbuluzketa, "Setoayn", Olague. Eta Nafarroatik kanpo, *Exavier*, deit.: Nerac (Lot-Et-Garonne), Lamontjoie (id.). Cf. *International Genealogical Index* (IGI⁶).

⁶ *Echaverri*: 1583, 1586 eta 1589 San Pedro, Lerate. 1605 Santiago, Gares. 1616 San Juan Bautista, Pamplona. 1620 Santa María, Falces. 1621 Santa María, Falces. 1623 eta 1627 San Benito, Miranda de Arga. 1630 Santa María, Falces. 1636 Zare (Zangoza). 1647 San Pedro, Gares. 1650 Ollogoien. 1652 La Natividad de Nuestra Señora, Ihaben. 1660 San Martín, Villanueva de Araquil. 1663 Santa María, Tafalla. 1665, 1666, 1670, 1679 eta 1680 San Juan Bautista, Uharte-Arakil. 1677 eta 1678 La Natividad de Nuestra Señora, Ihaben. 1682 eta 1750 San Saturnino, Iruñea. 1699 San Juan Bautista, Lizarra. 1701 La Natividad de Nuestra Señora, Ihaben. 1702 San Pedro, Aibar. 1706 San Juan Bautista, Iruñea. 1707 La Natividad de Nuestra Señora, Ihaben. 1734, 1738 eta 1767 San Benito, Miranda de Arga. 1780 Santa María Magdalena, Ablitas. 1782 Zangoza. 1855 Santa María, Tuter. 1860 San Nicolás, Tuter. 1863 San Pedro, Mendigorria. 1865 San Nicolas, Tuter. 1866, 1867, 1873 eta 1875 Santa María, Herriberri. 1877 San Esteban, Yesa. 1881, 1884 eta 1890 San Pedro, Mendigorria. 1884 San Pedro Apostol, Almandotz. 1889 eta 1892 San Pedro, Mendigorria.

Chaverri: 1627 Santa María, Faltzes. 1669 San Nicolás, Tuter. 1684 San Pedro, Aibar. 1690 Nuestra Señora de los Abades, Milagro. 1705 Santa María, Tuter. 1732 San Salvador, Tuter. 1749 San Salvador, Tuter. 1759 Santa María Magdalena, Ablitas. 1836 San Bartolome, Ribaforada. 1862 San Pedro, Erriberri. 1869 San Bartolomé, Ribaforada. 1871 San Pedro, Erriberri. 1889 Binaced, Huesca.

Etxabarri, Zuberoako Etxebarre toponimoaren ordez

Burgin sinatutako agiri batean *echabarri* irakur daitekeen arren, gaizki uler-tu baten ondorio da, Zuberoako *Etxebarre* herriaz ari baita (1612): «en la Villa de Burgui... Resceuiro Juramento en forma de drecho a bernat de Jargoyti natural del lugar de *echabarri* de la tierra de Sola de francia habitante q.e dixo ser de la Ciudad de Tudela deste reyno de nabarra... dixo q. es natural del dho. lugar de *echabarri* de la dha. tierra de bascos. de veinte años a esta parte viue y reside en la dha. Ciudad de Tudela Seruiendo de pastor a unos y a otros y q. puede haber quinze dias Salio de la dha. Ciudad con dos cargas de pelletas para la ciudad de Pamplona y q.e alli las vendio a un afflorador llamado echalar y q.e al cauo de ocho dias q. estubo en la dha. Ciudad acordo de benir a esta Valle a comprar-halgunas medias de aguja. y q. en Truçã de su mercaderia, o, con el dinero q. con hella cobro ata roba y media de pimienta y las dhas. diez y seis baras de tela en dos piezas y el dho. çercillo de alambre para hazer agujas para medias y con hellos y quarenta escudos q. consigo tenia tomando albaran de guia en la Tabla de Pamplona a treze del dho. mes hauia partido para esta Tierra de bal de roncal con proposito de Comprar medias en ella y de bolber otra bez a Tudela o pamplona y q. el lunes hultimo pasado a dieziseis del dho. mes Trayendo la dha. mercaduria con un jumêto llego a esta villa de burgui a las seis oras de la Tarde poco mas o menos y q.e luego en entrando êel portal y antes de pasar en la primera casa le detubieron garcia galech sustituto fiscal y Juan de inza guarda de la tabla deziendo q. le habian de reconocer por que no tenia testimonio y este que declara les dixo q. benia de pamplona y traja albaran de guia y q. hera habitante del reyno y q. no iba a francia sino a la Villa de Roncal... e luego en continente el dho. alle. rescebio Juramento; conforme de drecho a Juan de Inça vezino de la dha. villa de burgui y guarda de la Tabla della para q. diga la verdad de lo q.e sabe y pasa en el dha. razon de la hedad que dixo ser de sesenta e quatro años poco mas, o, menos y preguntado diga lo q. sabe dixo q. el lunes hultimo pasado a la tarde estando este q. declara y garcia galech Sustituto fiscal Junto a la puente q. esta al pie del lugar llego alli el dicho bernart iJargoyti con su Jumento cargado... y como no se detenia le se-guieron asta entrar en el lugar».

Etxeberri deitura ere bai

Garde, deit. *Echeberri* (1621), *domingo Echeberri* (1625.11.13: GAR.23.lr); *Campos de Phelipe Echeberri* (1659) eta Erronkari, deit. *Sebas.n de Echeberri mayeral* (1629).

Etxeberri, Etxebarri, Etxabarri, Etxaberri

Bonaparte printzeak euskalki handi eta indartsu bat sumatu zuen Ekialdean. Ustez baino handiagoa izan zitekeen, ordea, Biarnoko eta Aragoiko he-

Javerre: 1715 Nuestra Señora de la Asunción, Fustiñana.

Javerri: 1629 Santa María, Turrillas. 1706 San Saturnino, Iruñea. 1719 San Andrés Apostol, Villa-va. 1754 San Juan Bautista, Pamplona. 1818 San Martín, Inbuluzketa. 1819 San Juan Bautista, "Se-toayn". 1836 San Martín, Inbuluzketa. 1869 San Juan Bautista, Olague.

Exavier: 1802 Nerac, Lot-Et-Garonne. 1803 Lamont joie, Lot-Et-Garonne. 1808, 1809, 1811 eta 1814 Nerac, Lot-Et-Garonne.

rri asko euskaldunak izan baitziren behiala. Uste izatekoa da, zentzuzkoa baita, aldameneko herrien antzeko hizkeran mintzatuko zirela. Euskal Atlanta galdu baten naufragioaren aztarnen aurrean egon gintezke. Erronkariera itsaso hartan ito ziren mintzaira anitzetariko bat izan zitekeen, zuberera bizirik atera zen bat, aezkera eta zaraitzua, eragin hori sentitu dutenak. Eta hondamendi hura *E(t)xaberri* aldaeraren lurretan gertatu zen bereziki. Hegoaldeko goi nafarreraren ekialdeko lurretan eta Pirinioko bi isurialdeetan.



II. ERRONKARI ETA ANSOKO TOPONIMIAREN AZTERKETA

Erronkaribarko toponimia euskalduna gailentzen da erromantzearen gainetik. Euskal toponimiari dagokionez, Zuberoako toponimiarekin lotura es-tua du eta, ondorioz, eremu semantiko homogenea osatzen dute. Ildo be-retik, inguruko ibar erromantzetuekin antzekotasunak badira semantikaren arloan, laborantzari eta artzainen bizitzari buruzko antzeko kontzeptuak erabiltzen baitira hainbat hizkuntzatan adieraziak; esaterako, erronkarieraren eta hizkuntza erromanikoen adibide batzuk jartzearen, ikus dezagun, lehenik eta behin, oronimian ematen diren antzekotasun banaka batzuk: erronk. *arri*, naf-arag. *petra*, gask. *peira*, *peire*; erronk. *poio*; ans. *puyo*, gask. *poey*; erronk. *atarte*, eusk. Anso *atxar(t)*, naf-arag. *portillo*, eusk. Santa Grazi *portillua*, gask. *portalet*, *portau*; eusk. Erronkaribar *oxezki*, eusk. Burgi *opakua*, *opakia*, naf-arag. *paco*, gask. *ubàc*, *cap-bat*, *paguèro*; erronk. *ekialte*, naf-arag. *solano*, *solana*, *carasol*, *sol saliente*, gask. *Lou Soulaa*.

Erronkariko toponimiaren oinarri lexikoak oronimian: izen generikoak (*mendi*, *mallo*, *poio*); mendi hegietako izenak (*bizkar*, *saitsa*); eguzkiarekiko kokapena (*ekialte*, *oxezki*, *opakia*, naf-arag. *paco*); mendiko leize, hobi eta zu-loak (*leze*, *zilo*, *xilo*, *obi*); ordokiak eta lur landuak (*ordoki*, *zelai*, *zabal*, *xabalko*, *landa*); paisaiaren kolorea (*zuri*, *urdin*, *dundu*, *eztzi*, *beltz*, *nabar*, *arre*, *uher*, *horail*, *hori*, *gorri*, *berde*); elementuen kokapena (*aitzin*, *alte*, *arte*, *barren*, *barne*, *beiti*, *gibel*, *goiti*, *ondo*).

Hidronimia: erronk. *ugatxa*, *egutxa*, *erreka*, gazt. *La Agua Mayor*, *El Río Mayor*, naf-arag. *arrigo*, gask. *arrec*.

Landareak: erronk. *elurri*, *illurri*, naf-arag. *gorrillon*, *gurrillon*; eusk. *ezpel*, arag. *buxo*.

Eraikuntzak: erronk. *xaxgu*, *kubilarrola*, gasc. *cayolar*, naf-arag. *cubilar*, *cobierro*; erronk. *gaztulu*, naf-arag. *casti(e)l(lo)*, gask. *casteth*.

Antzekotasunak euskal toponimian: *Artxintxa* (Uztarroze), *Arritxintxa* (Urzainki), *Archincha* (Anso); *Belozkarre* (Burgi, Urzainki, Izaba, Lakarri), *Belazkorre* (Izaba), *Belozkarre maxela* (Larraine), *Velezcarra* (Anso); *Ardibidea* (Uztarroze), *Arvidia* (Anso), *Arpidia* (Ereta, Santa Grazi); *Elurriaga* (Garde, Izaba), *Lurriaga* (Anso), *Ezpeldoi* (Santa Grazi, Larraine), *Ezpeldoia* (Ligi), *Ezpildoya* (Anso).

Antzekosunak erdal toponimian: *La Corona* (1569 Burgi, cf. EEAT⁷), *La Corona de Abesarena* (1653 Burgi), *Las Coronas* (Burgi, Nabaskoze), *La Corona* (1593 Anso, Echo). Itxurra bereko toponimoak aurki ditzakegu Aragoiko Pirinioko leku anitzetan: *La Corona* (Javierre –Puente La Reina de Jaca–, Mianos, Santa Cilia de Jaca), *Corral de la Corona* (Majones), *Corona de Araña* (Santa Cruz de la Seros), *Corona de Arnás* (Ascara –Jaca–), *Corona de Asprilla* (Esposa –Jaca–), *Corona de los Farallones* (Sallent de Gállego), *Corona de Rueta* (Huértalo), *Corona de San Cos* (Novalla –Jaca–), *Corona de San Chaime* (Bernués), *Corona de San Juan* (Artieda –Zaragoza–), *Sota Corona de Sase* (Salvatierra de Esca –Zaragoza–), *Corona de Castilpintano* (Burgi, Salvatierra de Esca –Zaragoza–), *Corona de Billar* (Caniás –Jaca–).

Deituren inguruan

Toponimian bezala, deituretan ere antzekotasunak nabaritzen dira Erronkaribarko, Zuberoako, Biarnoko eta Ansoko deituren artean.

Erronkaribarko euskal deitura batzuk: *Adiskide* (1567), *Aiesa* (1626), *Al-dabe* (1562), *Algarra* (1569), *Arbel* (1650), *Arburu* (1594), *Argina* (1578), *Argonz* (1576), *Armendariz* (1662), *Aroza* (1569), *Arxuri* (1657), *Arjuri* (1611), *Arzaia* (1562), *Azparren* (1642)...

Jatorri biarnotarra duten Erronkaribarko deiturak: *Adamiz*, *Anaut*, *Arnalt*, *Bake*, *Bertol*, *Casset*, *Cabdebilla*, *Canturé*, *Patxaban*, *Samper*. Orobat, Zuberoan: Santa Grazi, deit. *Bouchet*, *Costère*, *Jonnet*, *Cazenave*, *Estournés*, *Gacherieu*, *Hondagneu*, *Mauhorade*, *Mossenpez*.

Jatorri nafar-aragoiarra edo gaztelarra duten Erronkaribarko deiturak: *Armentero*, *Baistero*, *Blasquez*, *Fuerte*, *Gracian*, *Luengo*, *Cabodevilla*, etab. Zuberoan ere jatorri honetako deiturak aurkitzen ditugu: Santa Grazi, deit. *Aguiar*, *Blanco*, *Claver*, *Duque*, etab.

Bestalde, Erronkaribarren aurkitzen ditugun deitura anitz, Biarnoko leku askotan ere hedatuak daude; hona hemen Erronkaribarren jasotako deitura batzuk eta, parentesien artean, edo Biarnoko zein herritan aurki daitezkeen edo, bestela, deitura horren aldaerak edo antzekotasun morfonetikoak dituztenak (inongo azalpenik gabe daudenak, biarnotar jatorrizkoak izan arren, Erronkaribarren dokumentatu ditugu baina Biarnon ez): *Acos* (Paue, Coarraze), *Adamiz*, *Arnaut* (Paue), *Amigot* (Monein), *Anaut*, *Artuch* (*Arthuu*, *Larbaig*), *Aspa* (*Aspe*, *Aspes*, *Laspes*), *Auger* (*Augerot*, *Auge*, lat. *Augerius*), *Aussa* (*Aussat*, *Gers*; *Ausse*), *Baque* (Paue: *Vaquer*, *Guilhenbaque*), *Baron* (*Baroo*, *Gui-*

⁷ Artikulu honetan aipatzen diren adibide guztiak *Erronkari eta Ansoko Toponimiaz* (EEAT) tesian daude dokumentatuak. Hemengo gehienak Nafarroako Protokoloen Artxibokoak dira nagusiki.

chebarou, Guilhembarou), Barotona (Baraton, Oloroe), Barbiela (Sober Biele, Aramitze, Féas / Inhasi; Berbie, Aydius; Barbe, Barbulo, Oloroe), Bernat (Bernard, Bernadot, Bernardicou), Bertich (Bareyetz, Baregs; Baleix, Baleixs; Bernardeg, Bernateg), Bertol (Berthou, Barthou), Berbiela, Beyloc (Bellocq, Salies-de-Béarn [bayloc], Betloc, Baylocq, Bellaucq, Beg Lauc), Bilioch (Belii, Pau; Belioos, Ossau, Sevignac), Birach (Biroo, Orthez; Biray (virallh; cf. deit. Aizager), Blascuts, Bon (Bonneu, Bonet); Caxau (Casal / Caxal, Cajak, Cazau, Casaus, Cazaumayou, Cazabon), Conget, Daspa, Monaut (Monteagudo), Nicolau, Noque (Nouqueret, Nougû), Petroch (Petricq), Salboch.

Euskal deiturak Barétous ibarrean (Val de Baretones): *Andion* (1596), *Barricata* (1589), *Sanche Saurto Mendigacha* (1589), *Arraquouats* (1389), *Biscay* (1882), *Cholarry* (1739), *Chouerry* (1838).

Barétousetik kanpo: *Abarca* (Arudy, Ossau, eta Pau), *Aguinaga* (Laruns, Ossau), *Andregnette* (Urdoze Aspe), *Arabéhere* (Léès-Athas), *Argayn* (1563, “Joan Argayn natural de bearne”, EEAT), *Artéaga* (Laruns, Ossau), *Barnèche* (Borce, Aspe), *Bedecarrats* (Laskun), *Bidart* (Laruns, Ossau), *Borthéliborde* (Laruns, Ossau), *Bourda* (Laskun), *Elgoyhen* (Laruns, Ossau), *Elhorry* (id.), *Gastéreguy* (Urdoze Aspe), *Handaye* (Laruns, Ossau), *Haristoy* (id.), *Landèche* (Laskun), *Muthular* (id.), *Ossiniri* (Borce / Borza), *Othaqui* (id.), *Paparemborde* (Laruns, Ossau), *Salabert* (Laskun), *Sayerce* (Urdoze Aspe), *Uriéta* (id.), *Urlacher* (id.), *Zamboran* (Gabas, Ossau).

Euskal deiturak Anso ibarrean: *Aroça* (1369), *Arreguy* (1646), *Belat* (1657) *Beleterra* eta *Beretera* (1624), *Camarguilea* (1369), *Carlos de Çiriça* (1563), *Chaberria* (1656), *Charte* (1668), *Philippe Derra* (1647), *Duarte* (1669), *Echarri* (1656), *Echarte* (1668), *Gale* (1669), *Garces* (1369), *Gayarre* (1652), *Gimeno* (1369), *Gorria* (1859) eta *Gurria* (1691), *Guebara* (1650), *Hualde* (1661), *Ilaria* (1369), *Insausti* (1586), *Jimeno* (1691), *Larche* (1626), *Laruyegui* (1369), *Lope Enedroc alias Nagusi* (1369), *Lorea* (1647), *Mendiara* (1657), *Mendibe* (1859), *Navascues* (1663), *Olbara*, *Olvara* eta *Obrara* (1604), *Ollozcariqueta Beti y Martíniz* (1665), *Orradre* (1667), *Petrineta* (1650), *Sanz* (1369), *Sola* (1657), *Urdin* (1668), etab.

Erronkari eta Ansoko toponimoen morfologiaz bi hitz

Bistan denez, euskal toponimoetan generoak ez du eraginik, jakina; baina bai, badu, izan, erdaraz erabiltzen diren euskal toponimoetan. Izan ere, erdal toponimo elkartu baten izena galtzen (edo isiltzen) denean izenondoa izen osoa bilaka daiteke eta ezabatu den izenaren generoa beregana dezake. Hauxe bera gertatzen da erdaldundu diren Erronkaribarko hainbat toponimo euskaldunen kasuan. Uztarrozen, adibidez, *Bortuzko* euskal toponimoaren gainean ondoko hauek sortu dira: alde batetik, *Las Dexes de Bortuzko* (izen sintagmaren ardatza gorde duena) eta beste alde batetik, *Las Burtu(z)kuas* (izena galdu ondoren izenondoak generoa bereganatu duen leku izena). Kasu honetan, femeninoa nahiago izan da isildu den izena *dexes* delako, eta hauxe erromantzean halakoa izaki.

Asko dira erdal artikulua atxiki duten leku izenak. Hori egitean toponimoak generoa hartu behar du komunztadura ahalbidetzeko, ondoko adibideetan egin den bezala: Bidankozeko top. errom. *Las Intxesas*, *Las Lurtas*, *Los Lexankos*, Burgiko top. errom. *Las Litobas*, *Los Litos*, Gardeko top. errom. *Las*

Bizkaias, Izabako top. errom. *Las Arras, Las Ateas, Las Landas, Las Lapizas*, Uztarrozeko top. errom. *Las Landas Sarasaz, Los Botxes*. Komunztadurarik gabeko kasu bat dokumentatu dut Urzainkin, *Los Urrutiaga*, eta ez *Los Urrutiagas* espero genukeen bezala.

Bestalde, toponimo erromantzatatu batzuek, ez guztiek, bi genero onartzen dituzte eta batzuetan artikulua femeninoa eraman dezakete eta beste batzuetan, berriz, maskulinoa. Zenbaitetan egoera hau zalantza baten ondorio dela dirudi (*La Puente, El Puente*), beste batzuetan ñabardura semantikoen eraginaren ondorio (*La Collada, El Collado*) eta beste zenbait kasutan eremu berean bizi diren hizkuntzen banaketaren ondorio (*La Solana, El Solano*).

Artikulua leku izenaren zati da. Beraz, erdal toponimo batean artikulua dagoenean ez da kendu behar. Jakina, arazoak beste testuinguruetan sortzen dira; adibidez, artikulua atzetik euskal toponimo bat dagoenean. Orduan, askotan, ez dakigu nola jokatu. Izabako *Lakartxela* toki izenari dagokionez, eusk. *lakar* oinarrian dagoela pentsa genezakeen arren ez da hala. Lehenengo osagaian gaztelaren (eta gaskoiaren) artikulua femeninoa dugu eta bigarren osagaian, nire ustez, lat. *carcere* oinarriaren garapena. Beraz, etimologikoki, *La Kartxela* dukegu. Gainera, *kartxiria* hitza ezaguna da Erronkaribarren ‘baratz’ adierazteko eta Mendigatxak berak (Irigoien, 1957: 127) erabili ohi zuen ondoko testuak frogatzen duen bezala: «ondorian vi gossez erorizen izotz bat *carchiriak* talatu baizaizkugun alubiak eta gaiza tierno guciuak esartudra».

Euskaraz *Kartxela* grafia erabiltzea zilegi da guztiz, baina, nire ustez, fosi-lizatu den artikulua ezabatuz gero leku izena bera desitxura daiteke hein handi batean. Jakina, artikulua eta izenak bat egin duten neurrian, batera idatziko nituzke hitz bakarrean, honela: *Lakartxela*, gorago idatzi dudana bezala.

Leku izen erromanikoen kasuan ezin da inolaz ere artikulua ezabatu eta beti bereiz idatziko dugu (cf. Urzainki top. *La Boca*). Gasteizen egin ziren Toponimiari buruzko I. jardunaldietan Moreu-Rey (Knörr eta Libano arg., 1991: 40) ikerlariak esan zuenez izen berezi batek artikulua duenean biak, artikulua eta izena, letra larriz idatzi behar dira eta biek unitate bakarra osatzen dute. Beraz, euskaraz *Dronda* erabil daiteke (cf. Santa Grazi, top. *Drondak*) baina erdaraz *La Dronda* idatzi behar dugu, artikulua kendu gabe. Biak dira zuzenak eta euskaraz, agian, grafia hori bera ere onargarriztat eman beharko genuke zeren, azken batean, egun *Dronda* eta *La Dronda* ez baitira gauza bera, Erronkariko agiritan ez behintzat, Izaban *Dronda* deitura izan baita eta *La Dronda* leku izena. Erdal artikulua kenduz gero, jatorrizko toponimoa berreskuratzen dugu apika, baina egungo leku izena desitxuratzen dugu hein batean. *La Larraza* toponimoaren kasuan gauza bera gertatzen da: *La Dronda* toponimoaren kasuan bezala, artikulua ezaba daiteke, eta, agian, errazago gainera, honela toponimoaren esanahia nabarmentzen delako, zeren eta, azken batean, *larra(t)za* izen arrunta baita. Baina, agian honengatik, kontu handiz ibili behar da, *larratz* generiko izaki eta *larratz* guztiak *La Larraza* ez direlako. Honengatik guztiarengatik, nire ustez *Lakartxela*, *La Dronda* eta *La Larraza* zuzenak dirateke euskaraz mintzatzean, eta gerta zitekeen horixe bera izatea Erronkaribarko azken euskaldunen usadioa leku horiek izendatzerakoan.

Kasu batzuetan gainera ez da batere erraza artikulua kentzea artikulua ote den ere ez baitakigu zehatz-mehatz. *Dronda*, *Kartxela* eta *Larra(t)za* zuzenak

dira (grafia arazoak bazter utzita, *tz* taldea nekez aurkitzen baita Erronkariko toponimian⁸); kontua da ea *Apatia* edo *Arrondo* bezalako toponimo elbarrituak onartu behar ote ditugun. Ez dirudi zuzena. *Lapatia* eta *Larrondo* Izabako toponimoak dira eta bi kasuotan hitz hasierako kontsonantea kentzeko arazoak ditugu. *Lapatia* leku izenaren oinarrian *La Apatia* (abatetxea) dugu, artikulua erekin. Dena den, egungo hiztunetarik inor ere ez da horretaz ohartzten eta dena bat balitz bezala ahoskatzen dute. Bestalde, *Larrondo* toponimoaren kasuan, ez jakiteagatik, ez dakigu ezta nondik datorren ere, eusk. *larrre* oinarritik edo *Arra* toponimotik. Orestes Tapia jaunak, gainera, *El Arrondo* esaten zuen beti. Zer egin orduan? Nik gauzak bere onean utziko nituzke, bi kasuotan, artikulua eta guzti.

Izaba eta Ansoko mugan dagoen *La Paquiza de Linzola* toponimoaren kasuan osagai guztiak erdaldunak dira eta, beraz, artikulua gorde behar da. Mendizaleen kartografia *Lapakiza* izena jaso ohi da, dena bat balitz bezala, lat. *opacus* oinarriarekin duen lotura zuzenez erabat ohartu gabe, erdal artikulua ohartu gabe. Anson, berriz, *A Paquiza* ebakitzen dute, *paquiza* hitzaren esanahi semantiko osoa gordez. Honela mintzatu zitzaizkidan nire lagun Félix Ipas jauna Ansoko toponimia aztertzen ari ginen hartan: «Ahora entramos enta *Paquiza de Mondó*; todo aquello que se vé ya sombre y o de al lao de la derecha todo aquello yé de *A Paquiza de Mondó*, y a Collada que viemos se clama *A Collada de Puey*».

Beraz, egokia dirudi *Lapakiza* idaztea euskaraz, euskaldunen artean izen hori zabaldu delako eta hein handi batean erabat lexikalizatu zaigulako. Kasu honetan ez deritzot ongi artikulua kentzeari, ez baitut uste inoiz ere euskaraz *Pakiza* esan denik. Euskaldunek, eskuarki, ‘Ansoko mendiak’ esaten zioten mendi honi, Izabako Justo Bakek eta Uztarrozeko Luis Landak esan zidaten bezala. Jakina, *La Pakiza* grafia bera ere ezin da onartu grafien nahasketa delako. Beraz, aurkintza hau mapa batean kokatzean gazt. *La Paquiza de Linzola* edo arag. *A Paquiza Linzola* izenez aipatu behar dugu, ansoarren mintzamoldea errespetatuz. Dena den, euskal mendizaleen usadioa errespetatuz eta, haien ondorioz, lexikalizatu den heinean, *Lapakiza* erabil genezake euskal mapa batean.

Antzeko arazoak ditugu *Lapazarra* eta molde bereko beste leku izen batzuekin. *La Pazarra* dokumentatu dudan arren (*La Endrecera de la Pazara*, 1563), *Lapazarra* aldaera izan da ohikoa menderen mendetan. Izan ere, 1375eko sententzia arbitralean honelaxe aipatu zen (Idoate, 1977: 186): “al plano de aquí *Lapaçarra*”. Bestalde, Ansoko Udal Artxiboko XVII. mende hasierako agiri batean leku izenaren jatorrizko artikulua gainean beste artikulua bat gaineratu da, eta, egiaz bitxi dena, kasu honetan maskulinoa (cf. gorago *El Arrondo*): *El Lapazar de Azarmalo* (1604). Artikulu maskulinoa erabiltzen da, hain zuzen ere, toponimoaren hitz hasierako kontsonante albokariaren ebakera ziurtatzeko, *Lapazar* izen trinkotzat hartzen zelako seinale.

⁸ Oro har, *z* aurkitzen dugu *tz*-ren ordean (“Belabarze”), edo, bestela *tx*: *Beltxa* (Izabako etxe izena da); deitura ere bada: “San[ch]o *belcha* (1573), “agustin *belcha*” (1691), “maria *belcha* de Roncal” (1664). Agiriaren signatura osoak ezagutzeko, cf. EEAT.

Era berean, eta gorago aipatu den bezala, *Larrondo* leku izenak arazoak sor ditzake. Alde batetik, lehenengo silaba artikulua delakoan nago baina, oro har, hiztunek ez dute beti honela sentitzen eta, horregatik, beste artikululu bat gaineratzen ahal diote. *El Lapazar* toponimoaren kasuan ikusi dugun bezala, oraingoan ere, artikulua maskulino izan daiteke. Izabako Orestes Tapia jaunak Belagoara egin genuen bidaian *El Arrondo* ebaki zuen, argi eta garbi. Txango berean, Burgiko Eusebio Tolosana Alastuey jaunak «la punta alta de *Arrondo*» deitzen zela esan zidan. Aldaera bera Justo Bake Salbotx jaunak ibiltzen zuen. Hala eta guztiz ere, polimorfismo eta zalantza ugari daude, zeren *El Arrondo* eta *Larrondo* entzun baitaitezke informatzailer berberaren ahotan; izan ere, Orestes Tapia jauna bera honelaxe mintzatu zitzaidan beste uneren batean: «y aquel mogote redondo es *Larrondo*» (eta gainera kasu honentan leku izena ‘biribil’ kontzeptuarekin lotuz). Zalantza honen adibide bezala, derradan Orestes Tapia jaunak, esaldi berean bi aldaerak erabili zituela: «Y ahora viene la zona de Zaltúa; porque *El Arrondo* tenemos de aquellas hayas, tenemos *La Larrondo*». Oraingoan, artikulua femeninoa eta maskulinoa nahasiz.

Larrondo toponimoaren oinarrian top. *Arra* + eusk. *ondo*, alegia, ‘Arraren beheko alde’ izan genezake. Gainera, *Larrondo* menditik hurbil *Arrako* (*Arra* + *-ko*) aurkintza dago, bere trikuharria, ermita eta bentarekin. Zuberoako muga aldean, *Arrakogoiti*. *Larrondo* mendiaren oinetan *Arrakobeiti*. Baina Larraine aldean *Larrondo* dugu kasu guztietan: *Larrondopia*, *Larrondolepua*, *Larrondomuga* (1832). Izaban, berriz, *Larrondo* eta *El Arrondo* (edo *Elarrondo*) aldaerak erabiltzen dira sinkronia berean, polimorfismo egoera baten adierazle. Agiri zaharretan *Larra* aurkintzari *La Arra* edo *Las Arras* deitu izan zaio.

Hemen bezala, artikulua eransteke ohitura dago Biarnon eta Anson, oso nabaria. Hauen eraginez, apika, gurera hedatuko zatekeen; esaterako, Biarnoko auzo ibarretan adibide hauek aipa daitezke: *Lalabour* (Lèès-Athas, Aspe); *Lalagüe* (Gabas, Ossau); *Lalacasète* eta *Lalande* (Izorra, Barétous), *Labounda* eta *Lahorgue* (Ereta, Barétous), *Labourcade* (Izorra eta Ereta, id.); eta artikulua maskulinoarekin: *Et Camou*, *Ets Camous*, *Et Clot*, *Et Hia*, *Et Prat*, *Ets Cristales* (Arette / Ereta, Barétous ibarra). Ildo beretik, Anso ibarrean ere fenomeno ezaguna dugu: *La Achar*, *La Acherito* (*Lacherito*), *La Andaderra* (*Landaderra*), *La Añadera*, *La Calbeira*, *La Cantalera*; *La Carreguia* (*Acarreguia*, eusk. *Akarregia*), *La Cema*, *La Cleta*, *La Conarda*, *La Cunarda* (*Lacunarda*, gask. *La Cuarde*), *La Cruz*, *La Cherito* (*Lacherito*, *Laxerito*), *La Chourique* (*Laxurik*), *La Hereta*, *La Fontaza*, *La Grabeta*, *La Grava*, *La Linza*, *La Mina*, *La Mujer Muerta*, *La Paquiza de Linzola*, *La Parra*, *La Pazara* (*Lapazarra*), *La Pedriza de Alano*, *La Pieta*, *La Plana de Tortiella*, *La Planada*, *La Planeta*, *La Portaza*, *La Ramendia* (*Larramendia*), *La Raza* (*Larraz*), *La Reclusa*, *La Rolla*, *La Rosa* (*Arros*), *La Rueda*, *La Solana*, *La Trinxera*, *La Yespet*, *La Yxandoya*, *La Yxardoya* (*Lizardoia*).

Zenbait kasutan, artikulua lexikalizatu eta eusk. *larre* oinarriari erantsi zitzaion, eusk. *alor* oinarriarekiko nahasketa bultzatuz:

1. *alorra* / *elarra* > *larra*: Garde, top. *Poytacoalorra* (1649), *Poietaoelarra* (1700), *Poytacolarra* (1850).

2. *larra* > *elarra*: ondoko adibidean *Larra* formarik zaharrena da eta *elarra* aurrekoaren eratorria: Erronkari, top. *San marco Larra* (1678), Bidankoze eta Erronkari, top. *San Marco Elarra* (1892), *San Marco Elarra jurisdiccion de Vidangoz* (1836).

3. *helarra*: Burgi, top. *Aranco helarra* (1658). Izabako *Mazelarra* leku ize-naren kasuan, haren bigarren osagaia *larra* den arren, lehenengo osagaiaren (*Maze*) azken bokalarekin bat egitean *-elarra* sortzen da, halabeharrenden zoziaz. Izabako *Añelarra* toponimoaren kasuan, ordea, lehenengo osagaia *Ania* da eta, hala eta guztiz ere, azken bokala neutraldu da (*Anie, Añe*), berriz ere *-elarra* emanez.

4. *alarra* / *helarra*: Burgi, top. *Dona maria alarra* (1618), *Donam[ari]ahelarra* (1656).

Izabako Lazaro Baraze jaunak *La Arra, Elarra* eta *Larra* aldaerak ibiltzen zituen: «Del pueblo para arriba tienes Ardibiginea –todos nombres vascos–, *La Arra, Elarra*, que está encima de Juan Pito, está el Puerto Grande y después vienen los montes que tiene ese puerto, el llano Eskizarra, tiene *Larra*, y en *Larra* estuvo Justo de pastor... Hay alguna roca que brilla, como tienes en el Rincón de Belagua, en toda la Selva ahí de *Larra, Elarra* tienes ahí enfrente roya la roca...».

Mugatzailearen erabileraz euskal toponimoetan

Mugatzailearen erabilerari dagokionez, eransteke edo ezabatzeko ulean ibar hauetako euskal toponimian zalantza handiak daudela nabaritzen da. Gehienetan, Erronkaribarren mugatzailea duten aldaerak nahiago ohi dira mugatzailearik gabekoak baino; aitzitik, Zuberoako herri mugakideetan mugatzailearik gabeko aldaerak nahiago eskuarki (baina ez beti; hemen ere zalantzak ikus baitaitezke). Barétouseko leku izenen kasuan, mugatzailearik gabeko aldaerak nagusitzen dira. Ikus ditzagun adibide banaka batzuk orain arte esandakoa hobekiago ulertzeko:

1. eusk. *berri*

Kasu honetan zalantza nabariak daude; esate baterako, Burgiko *Zatiberri(a)* toponimoaren kasuan bi aldaerak dokumentatzen dira: mugatzaileduna eta mugatzailearik gabekoa. Era berean, Uztarrozen *Iriberria* leku izena dugu eta Garden berriz Iriberrri. Kasu honetan, berriz, Gardeko “Yriberrri” izena XVI. mendekoa da. Izan ere, mugatzailearik gabeko formak zaharrenak direla ematen du; bestalde, mugatzailedunak dira guregana hobekien iritsi zaizkigunak:

[+ mug.] Bidankoze, top. *Olaberrria*; Burgi, top. *Zatiberria* (1709); Izaba, top. *Pa[ra]teberria* (1992); Uztarroze, top. *Iriberrria* (1806). ◇ Zuberoan, Larraine, top. *Lagaberrria, Berhaberrria, Bideberria*; Santa Grazi, top. *Esparneberria, Basaberrria, Luberrria*. ◇ Aspe ibarrean, Lèès-Athas, top. *Etcherbie, Etcherbies*.

[- mug.] Burgi, top. *Zatiberri* (“Sati berri” 1896); Garde, top. *Iriberrri* (“en el ter[mi]no llamado Yriberrri” 1573). ◇ Zuberoan, Santa Grazi, top. *Akhozaberrri*. ◇ Barétousen, Ance eta Landa, top. *Bentaberry*; Landa, top. *Aizoberry*; Ance, top. *Etchéberri*; Aramits, top. *Chinaberry*.

2. eusk. *berro*

[+ mug.] Bidankoze, top. *Ezkerberroa* (“Ezquirberroa” 1713); Erronkari, top. *Ezkerberroa* (“Ezquerberroa” 1836); Burgi, top. *Izabarroba* (“Yzabarroba” 1896); Izaba, top. *Martiaberroa* (1563); *Mazeberroa* (“Maçeberroa” 1582);

Urzainki, top. Ebainberroa (“la parte de Ebaynberroa” 1662). ◇ Zuberoan, Larraine, top. *Pekoberhoa*, *Xasberhoa*.

[– mug.] Urzainki, top. *Ebainberro* (“Ebaynberro” 1585), *Ibanberro* (1593), *Aitasenbro* (“Ayta senbro” 1594, sinkopa); Uztarroze, top. *Asperro* (1704). ◇ Zuberoan, Santa Grazi, top. *Orkhazberho*, *Aitaberho*. ◇ Aragoïn, Anso, top. *Mondaverro* (1862; ald. *Mandavorro*, 1658).

3. eusk. *bide*

[+ mug.] Garde, top. *Altxunbidea* (“el paco de Alchumbidea” 1850), Izaba, top. *Auxpidea* (1572), Uztarroze, top. *Ardibidea* (1806). ◇ Zuberoan, Santa Grazi eta Eretaren artean, top. *Arpidia*. ◇ Aragoïn, Anso, top. *Arvidia*, *Rospidea*.

[– mug.] Burgi, top. *Altxonbide* (“el alchonbide y cañada Vieja” 1523). ◇ Zuberoan, Larraine, top. *Barrenbide*; Santa Grazi, top. *Merkatbide*, *Ekibide*, *Egurbide*.

4. eusk. *buru*

[+ mug.] Bidankoze, top. *Sasariburua* (“Sassariburua” 1464); Burgi, top. *Arburua* (“el barrio de Arburua” 1626); Erronkari, top. *Krutxeburua* (“Crucheburua” 1662); Garde, top. *Larreburua* (“La errebiroa de mariañe” 1620); Izaba, top. *Uturburua* (1567); Urzainki, top. *Egiburua* (“Eguilurua” 1632); Uztarroze, top. *Uturburia* (1806). ◇ Zuberoan, Larraine, top. *Bagabüria*, *Zagetabüria sorhoa*; Santa Grazi, top. *Arbüria*. ◇ Barétous ibarrean, Aramits, top. *Cerrabüria*. ◇ Aragoïn, Anso, top. *Apaburua*.

[– mug.] Izaba, deit. *Arburu* (1566); Uztarroze, top. *Kabatanburu* (“Cabatanburu” 1649). ◇ Barétous ibarrean, Landa, top. *Bordabürü*, *Isseynbürü*, *Isibürü*, *Ourdanbürü*, *Ordambürü* (*l’Enquete de 1601*); Inhasi / Féas, top. *Karrikabürü*. ◇ Aspe ibarrean, Laskun, top. *Alcacebürry*.

5. eusk. *-doi*

[+ mug.] Anso, top. *Ezpildoya*

[– mug.] Larraine, top. *Ezpeldoi*

6. eusk. *(h)erri*

[+ mug.] Bidankoze, top. *Tipulerria* (1643); cf., agian, Garde, top. *Txatxorria* (“Chachorra” 1613); halere, *Txatxuarria* (“Chachuarria” 1624; eusk. *harri*). ◇ Zuberoan, Santa Grazi, top. *Aterria*. ◇ Aragoïn, Anso, top. *Sansorria* (1652).

[– mug.] Zuberoan, Larraine, top. *Axurterri*; Santa Grazi, top. *Ürrüxterri*. ◇ Barétous ibarrean, Landa-Sarraltzüne, top. *Chemin de Herricherry*. ◇ Aspe ibarrean, Borza, top. *Chouerry*.

7. eusk. *garai*

[+ mug.] Burgi, top. *Azekiagaraia* (“el termino llamado Acequiagaraya” 1562), Bidankoze, top. *Argaraia* (“Argaraya” 1590); Erronkari, top. *Argaraia* (“Argaraya” 1634); Urzainki, top. *Elizagaraia* (“el termino llamado elizagaraya o betatucopicoa” 1596).

[– mug.] Burgi, top. *Azekiagarai* (“el termino llamado Açequia garay” 1582), Izaba, deit. *Bidagarai* (“guillena bidagaray” 1612). ◇ Zuberoan, Santa

Grazi, top. *Elixagarai altia*; deit. *Bidegarai*, *Irigarai*. ◇ Biarnon, Asasp-Arros d'Oloron, top. *Bois de Garay*. ◇ Aragoïn, Anso, top. *Cuchet de Garay*.

8. eusk. *garate*

[+ mug.] Bidankoze, top. *Krutzegaratea* ("Cruchegaratea" 1641). ◇ Zuberoan, Lorraine, top. *Garagaratia*; Santa Grazi, top. *Garatia*. ◇ Aragoïn, Anso, top. *Garatea* (1862).

[- mug.] Garde, top. *Ollargarate* (1590); Urzainki, top. *Belaingarate* ("Belayngarate" 1581).

Ansoko euskal toponimiaren atzizkiez

Atzikiaren erkaketaren ondorioz baieztatzen da Anso ibarrean erabiltzen ziren atzizki euskaldunak Erronkarin erabiltzen zirela berberak zirela:

Atzizkia	Ansoko toponimia	Erronkariko toponimia
-aga	<i>Lurriaga</i>	<i>Elurriaga</i> (Izaba)
-doi	<i>Ezpildoya</i>	<i>Igadoia</i> (Bidankoze)
-eta	<i>Acaparreta</i>	<i>Zaparreta</i> (Izaba)
-gua / gia	<i>Mozurguia</i>	<i>Mozturugia</i> (Burgi)
-iri	<i>Arandari</i>	<i>Arandari</i> (Burgi)
-[bokal] + tx	<i>Beleis</i>	<i>Bilitx</i> (Burgi)
-ko	<i>Narancoa</i>	<i>Arankoa</i> (Erronkari)
-pe	<i>Lizapea</i>	<i>Leizepea</i> (Uztarroze)
-(r)en	<i>Bicharena</i>	<i>Axerarena</i> (Garde)
-rn(e)	<i>Ayerna</i>	<i>Gualderna</i> (Erronkari)
-txo	<i>Berritxo</i>	<i>Amatxo</i> (Urzainki)
-tza	<i>Gorrinza, Guarrinza</i>	<i>Bizkartza</i> (Garde)

Paratzizkiak eta lexema autonomoak

Erronkariko, Zuberoako, Ansoko eta Biarnoko mugaldeko toponimoen lexemen erkaketaren ondorioz hauxe esan daiteke, euskal jatorrizko paratzizkiak eta lexema autonomoak oso zabalduta daudela auzo ibar, herri eta eskualde hauetan guztietan. Aipa ditzadan, adibide gisa, hauetako batzuk:

1. eusk. *ager*. *Azenagarre* (Uztarroze). ◇ Zuberoan, *Aizagarria* (Lorraine), *Aizager* (Santa Grazi). ◇ Barétousen, *Aitsaguer* (Aramitze). ◇ Aspen, *Aguer* eta *Aguerry* (Laskun).

2. eusk. (*h*)aitz. *Atxupea* (Bidankoze), *Atxupe* (Erronkari). ◇ Barétous, *Atchouetos* (Aramitze). ◇ Aragoïn, *Achar*, *Achart*, *Chipeta* (Anso). || 2. eusk. (*h*)aitz. *Aspea*, *Axpea*, *Aispea*, *Aspoz* (Burgi), *Aspea*, *Atxpea*, *Axpia*, *Asperro* (Uztarroze). ◇ Barétous, *Aspit* (Ereta). ◇ Aspe, *id.* top. nag. ◇ Biarnoko berzte lekuetan: *Aspeigt* (Bielle, Ossau). ◇ Aragoïn, *Aspe*, *Aspet*, *Aspa* (Anso).

3. eusk. (*h*)andi. *Ibarrandia* (Bidankoze). ◇ Zuberoan, *Errekahandia* (Lorraine), *Hegihandia* (Santa Grazi). ◇ Barétous, *Andichou* (Aramitze), *Las Andies* (Izorra), *Handu* eta *Larrande* (Ereta). ◇ Aspen, *Andu* (Laskun). Cf. *Larrando* (Agos Oloron). ◇ Aragoïn, *Arandi* (Anso).

4. eusk. *(h)aran*. *Aranagerre* (Erronkari). ◇ Zuberoan, *Aranperro* (Santa Grazi), *Arangazte* (Lorraine). ◇ Barétous, *Bugalaran* (Aramitze). ◇ Aspen, *Aran* (Sarrance), *Arans* (Lèès-Athas). ◇ Biarnoko bertze lekuetan, *Aran* (Bielle, Ossau). ◇ Aragoïn, *Macaran* (Anso).

5. eusk. *ardi*. *Artegia* (Burgi), *Altola* (Garde), *Artola* (Urzainki), *Ardibide* (Izaba), *Ardibidea* (Uztarroze). ◇ Zuberoan, *Ardibidegi*, *Arditzalarria* (Lorraine). ◇ Barétous, *Hardipi* (Izorra), *Arpidia* (Ereta). ◇ Aragoïn, *Arvidia* (Anso).

6. pir. eusk. **arra*. *Arrarte* (Bidankoze), *La Arra* (Burgi, Salbaterra Ezka), *Arrarte* (Urzainki), *La Arra*, *Las Arras*, *(L)arrondo*, *Arraburua*, *Arrako*, *Arrakogoiti* (Izaba). ◇ Zuberoan, *Arrakoborda*, *Arrakoetxea* (Santa Grazi), *Arrabarko* (Lorraine), *Arabarco* (Etxebarre). ◇ Barétous, *Arrapet* (Aramitze), *Les Arras*, *Arras* (Ereta), *d'Arrac* (Eretako deitura). ◇ Aspe, *Arras* (Escot), *Arraques* (Lèès-Athas). ◇ Aragoïn, *Arracona* (Anso). ◇ Zaraitzun, *Arabaco* (Gorza eta Igari herrietako elkarrekiko lurra), *Arabarco* (Galoze eta Itzalleko elkarrekikoa).

7. eusk. *(h)arri*. *Arluzea* (Bidankoze), *Arbea* (Burgi), *Arburola* (Garde), *Arberase* eta *Ilarria* (Erronkari), *Armaia* eta *Arrigorrieta* (Urzainki), *Arrizibirieta* (Izaba), *Armalla* (Uztarroze). ◇ Zuberoan, *Arcabaloco gaña*, *Hargoity gaña*, (Santa Grazi eta Sarraltzüne). ◇ Barétousen, *Harichouriac*, *Arriou Harpasquette*, *Harlary* (Landa-Sarraltzüne), *Arlas*, *Arre*, *Arrihondo*, *Harrigagna* (Ereta). ◇ Aspe, *Arri*, *Aycharri* (Borce), *Arcé*, *Harreguy* (Lescun), *Archoua*, *Arre*, *Icharry* (Lèès-Athas). ◇ Aragoïn, *Argibela* eta *Arri* (Anso).

8. eusk. *ate*. *Aurrenatea* (Bidankoze), *Badolate* (Burgi), *Ollargarate* (Garde), *Atazabala* (Erronkari), *Atanoburua* eta *Belaingarate* (Urzainki), *Las Ateas de Belagua*, *Las Ateas de Belabarze* (Izaba), *Mintxate* (Uztarroze). ◇ Zuberoan, *Athabe*, *Athaburia*, *Athabarrenia*, *Athakapia* (Lorraine), *Athaketa* (Barkoxe). ◇ Barétous, *Athay* (Izorra). ◇ Aspen, *Ateis*, *Athat*, *Athou* (Borza), *Athas*, *Atarruga* (Laskun), Lèès-Athas (top. nag.). Cf. Biarnon, *Athay* (Asasp-Oloron). ◇ Aragoïn, *Ainzate*, *Aunzate*, *Atasín* (Anso).

9. eusk. *a(h)untz*. Zuberoaren eta Biarnoren artean, *Abuzthégua* (Ereta). ◇ Aragoïn, *Ainzate* eta *Aunzate* (Anso).

Oinarri lexikoak

Ondoko lerroetan, Erronkaribarko toponimiaren zenbait oinarri lexiko adierazgarriren zerrenda:

eusk. *ager*, *andere*, *andi*, *Anso*, *apatia*, *aran*, *arbe*, *ardane*, *ardi*, *aritz*, *aris*, *arra*, *arri*, *arripa*, *artika*, *artiga*, *arte*, *artxintxa*, *aitz* (*aspe*), *ate*, *axuri*, *azkon*, *bago*, *bakoitz*, *barne*, *baratze*, *bela*, *benta*, *berri*, *berro*, *bi*, *bide*, *Binies*, *bizkai*, *bizkar*, *borda*, *Burgi*, *buru*, *eder*, *egi*, *elur*, *elurri*, *erre*, *erregina*, *errege*, *erri*, *etxe* (*exa-*, *ixe-*), *ezka*, *ezkarre*, *ezker*, *ezpel*, *ezpelunka*, *gabarr*, *gamu*, *garai*, *garatea*, *gari*, *gatx*, *gaztan*, *gibel*, *goien*, *goiti*, *gorri*, *ibar*, *ibi*, *ibiria*, *ibon*, *idoi*, *intza*, *iratz*, *iri*, *isaroi*, *itzal*, *Izaba*, *izei*, *kako*, *karrika*, *kukula*, *lakar*, *lakor*, *laku*, *landa* (*lana*), *lapatz*, *larra*, *larre*, *lats*, *legar* (*lexar*), *lepo*, *leze* (*lexe*), *loi*, *lur*, *luze*, *malloa*, *Mantxo*, *Mari*, *Maz*, *meaka*, *mendi*, *montoin*, *mozturu*, *murkullu*, *naba*, *obi*, *odi*, *oiezki* (*oxezki*), *ola*, *ondo*, *ordoki*, *(b)orma*, *osin* (*usin*, *usun*), *otso*, *pasu* (*pasia*), *piko*, *porta*, *puio*, *sagar*, *sai*, *saisa*, *Sanso*, *soro*, *sudu*, *toki*, *txiki*, *txiker*, *txipi*, *txorrota*, *txurrut*, *ullin*, *ur*, *urdan*, *urdin*, *urri*, *urritz*, *uturri*, *xorrot*, *xurt*, *xuri*, *zabal*, *zar* (*xar*), *zoi*, *zoko* (*xoko*), *zubi* (*zibi*, *zubu*), *zuri*.

Oraingoan, Anso ibarreko euskal oinarri lexikoak (ikus daitekeen bezala Erronkaribarko zerrendako oinarri askorekin antzekotasun nabariak dituzte):

eusk. *agor* (“A Gorreta”), *(h)aitz* (“Aspe”), *andere* (“Andere Maria”), *arra* (“Arracona”), *(h)arri* (“Arri”), *arte* (“Achar”, “Achart”), *ate* (“Atasín”), *a(h)untz* (“Ainzate”), *barne* (deit. “Chivarne”), *belar* (“Belordoqui”), *berri* (“Berricho”), *berro* (“Mondaverro”), *bide* (“Arvidia”, “Rospedea”), *buru* (“Apaburua”), *eder* (“Landaderra”, “La Anadera”), *(h)egi* (“Maridugui”), *elorrri* (“Lurriaga”), *etxe* (“Echevarne”), *ezpel* (“Ezpela”, “Ezpildoya”), *garai* (“Cuchet de Garay”), *garate* (“Garatea”), *gibel* (“Argibela”), *gorri* (“Gorriña”, “Guarrinza”), *ibar* (“Sanchiborra”), *idoi* (“Idoya”), *lakar* (“La Carroza”, “La Carreguia”, *aker*, agian), *landa* (“Landaderra”), *larre* (“Gamueta Larrerria”), *lats* (“Laxurik”), *l(e)izar* (“La Yyardoya”), *leze* (“Lizapea”), *lo(h)i* (“Loigrea”, “Luzola”), *luze* (“La Reclusa”, hots, ‘arrec luzea’), *mendi* (“Arromendia”, “Mondaverro”; deit. “Mendiara”), *naba* (“Las Nabas de Forcala”), *(h)obi* (“Vusobia”), *odi* (“Barranco Godia”), *ola* (“Arcayola”, “Cubillarrola”), *ordoki* (“Belordoqui”), *otso* (“Osobia”, “Usarna”), *sagar* (“Sagarra”, “Sagarriello”), *sai(he)ts* (“Sayestico”), **saroe* (“Sayola”), *soro* (“Barranco de Soro”), *txiki* (“Gamoeta chiquea”), *ur* (“Urania”), *urdin* (deit. “Bartholome Urdin” 1668), *urri* (“Urriagueta”, “Dona Maria Urria”), *iturri* (“Turrieta”), *zo(h)i* (“Zotalola”), *zori* edo *zuri* (“Soriza”, “Zuriza”), *zubi* (“Zuberria”).

Azkenik, Biarnoko eremu mugakideetako oinarri lexikoak:

eusk. *ardi* (“Hardipi”, Izorra), *(h)aritz* (“Harizpé”, St-Pée d’en Bas), *(h)arri* (“Harrigagna”, Ereta), *ate* (“Athay”, Izorra), *azkon* (“Ascanabieta”, Laskun), *bago* (“Bagoule”, Landa), *bakotx* (“Col d’Espacouèche-Latte”, Ance), *baratz* (“Barats”, Landa eta Ereta), *barren* (“Etchébar”, Ereta), *belar* (“Belaube”, Lourdios; “Belachou”, Laskun), *berri* (“Aizoberry”, Landa), *berro* (“Berrote”, Aramitze eta Ereta), *bi* (“Heouga d’Ourbieta”, Laskun), *bide* (“Arpidia”, Ereta), *bizkai* (“Biscay”, Osse-en-Aspe; “Biscaye”, Laskun), *bizkar* (“Bissarouté”, “Bissourito”, Ereta), *borda* (“Bordaburu”, Landa; “Borda”, Laskun), *buru* (“Isseyburu”, Landa), *eder* (“Cog d’Edre”, Ereta), *erreka* (“Errékahandi”, “Errékatzar, Inhasi), *(h)erri* (“Chemin de Herricherry”), *etxe* (“Col d’Etche”, Ance; “Lagarretche”, Ereta), *ezker* (“Esquerre”, Ereta), *ezpel* (“Espelmothoa”, Landa), *gari* (“Garisere”, Borza; “Garissère”, Laskun), *gaitz* (“Congasse”, “Cougasse”, Laskun), *garratz* (“Lugarras”, Lées-Athas), *goi(h)en* (“Jaurigoyhen”), *goiti* (“Hargoity”, Landa), *gorri* (“Iracourri”, Landa), *guti* (“Iriguty”, Landa), *ibar* (“Ibary”, Arette), *il(h)un* (“Mailh d’Ilhoun”, Lées-Athas; cf. NG “Sierra de Illón), *iratz* (“Peine d’Erache”, Borza; “Irast”, Ereta), *iri* (“Iriguty”, Landa), *itzal* (“Itchasse”, Laskun), *izei* (“Iseye”, Accous / Akoze), *karrika* (“Karrikaburu”, Inhasi), *lakar* (“Lacariou”, Izorra), *laku* (“Lacua”, Ereta; “Lacualacu”, Laskun; “Lacua”, Lées-Athas), *larre* (“Larrau”, “Larraun”, “Larre”, “Larrescun”, Laskun), *lats* (“Ayguelasse”, Laskun), *legar* (“Légarce”, Osse-en-Aspe), *leze* (“Lexe”, “Lèche”, Ereta), *lo(h)i* (“Louya”, Ereta), *lur* (“Lourbu”, Borza; “Lourgouttit”, Laskun), *luze* (“Laslucies”, Lées-Athas), *mal(h)o* (“Malhadoquy”, Ereta), *me(h)aka* (“Arroumeca”, Lées-Athas), *mendi* (“Mendosse”, Lées-Athas), *negu* (“Netchuri”, Ereta eta Izorra), *(h)obi* (“Ascanat-b-t”, Laskun), *oibeski* (“Oyheski”, Izorra), *ola* (“Gouetsoule”, Urdoze-Azpa; “Bagoule”, Landa), *ondo* (“Arrihondo”, Ereta), *ordoki* (“Borbordouqui”, Landa), *osin* (“Chinette”, “Chinaberry”, Ereta), *uda*

(“Udapet”, Borza), *ur* (“Heouga d’Ourbieta”, Laskun), *urde* (“Urdasquen”, Borza; “Hordy”, “Ourdie”, “Ourtet”, Ereta), *urdin* (“Ardinet”, Lées-Athas; cf. “Arriurdineta”, Izaba), *iturri* (“Ithurrito”, Landa), *xoko* (“Choco”, Landa), *xuri* (“Hourchouria”, Landa), *zabal* (“Boursabal”, Landa), *za(ha)r* (“Catazar”, Ereta), **zisa* (“Cissage”, Landa eta Ereta; cf. BN Zisa, top. nag.).

Atzizkien eta paratzizkien azterketaren ondorioak

Gorago erakutsi den bezala, Anso ibarrean dokumentatu diren euskal atzizkiek Erronkaribarko eta Zuberoako toponimian erabiltzen diren leku izenen itxura bertsua dute. Bestalde, atzizkien alorrari dagokionez bederen, ez dirudi Erronkaribarko azpieuskalkien arteko ezberdintasun diatopiko txikiak esanguratsuak direnik edo azpieuskalkien sailkapenerako kontuan hartu behar direnik.

Paratzizkien jokaera aztertzean argi eta garbi nabarmentzen da Ansoko euskal toponimian nafar-aragoierak izan duen eragina, euskal oinarri lexikoak desitxuratuz, batzuetan pixka bat, beste batzuetan erabat; adibidez, *Arankoa* Erronkariko toponimoa dugu eta *Narancoba*, aurrekoaren aldaera hutsa dena, Ansokoa. Gauza bera gertatzen da Larraineko *Gorrintza* toponimoarekin, “Gorriña chocoua” bezala aipatzen da 1832ko katastroan eta Ansoko toponimo bat grafia berarekin –hau da, “Gorriña” bezala– jasotzen da 1272ko azaroan Jaime I.a erregeak Jakan sinaturiko Pribilegioan, non ibarrari hainbat abantaila onartzen dizkion. Toponimoa gaur egun nafar-aragoieraren erromantzearen legeen modura garatu da eta hasierako silabaren *o* bokala ireki da, laburra baltz bezala, *-ua* emanez: Anso, egungo top. *Guarrinza*.

Beraz, Ansoko euskal toponimia desitxuratu da, hein handian, baina, halaz ere, Erronkariko toponimiarekin erkatuz gero, hemengo leku izenetatik horren urrun ez dagoela ematen du. Izan ere, *Gorrintza* toponimoaren kasuan zubereraren bat datorrela argi eta garbi nabaritzen da. Kasu horretan bederen. Ez da kasu bera baina, Ansoko *Sayéstico* toponimoa erlazionatu behar da, nahitaez, *saihetsetiko* hitzarekin, Azkuek dakarren gisan Santa Grazin ibiltzen den hitza dena, ‘sasiko’ esanahiarekin: “Saiheskia lauda ezak, ordokia eure ezak” (Oihenart, *Proverbes*, 402). Erlazio honen beste froga bezala, horra hor, Guarrinza aldean, Anso eta Echo herrien elkarrekiko lurretan, *Soasqui* toponimoa bera, Nafarroa Behereko Beorlegi herriko *Xahaski* (graf. “Chahaski”) toponimoarekin erlazionatu behar duguna.

Bestalde, Biarnoko eta Ansoko toponimo mugakideek antzekotasun nabariak dituzte, baina, halere, gaskoierak ez ditu erabat baldintzatu, nafar-aragoierak gaskoieraren barneratzea oztopatu baitu. Guztiarekin ere, adibideak egon badaude: *Samper*, *Aygue Torte*, *Arreclusa*, *Ascuesta*, *La Calhabacisse*, *Cap de la Coma del Tach*, etab.; baina, gehienek itxura aragoiarra hartu dute eta ez da erraz antzematen beren jatorri gaskoia; aitzitik, gaskoi hutsak direnak Borzako mugan aurkitzen ditugu, baina horiek ansoarrak dira bakarrik *sensu lato*, mugarrizetan baizik ez baitituzte ansoarrek leku izen horiek eskuarki erabiltzen. Beraz, ipar-hegoko eragina nabaria izan da Erronkarin baina ez da hala gertatu Anso ibarrean, gaskoieraren eta aragoieraren arteko muga oso ongi finkatua baitzegoen.

Ekialde-sartalde ardatzaz denaz bezainbat, eragina gertatu zela dirudi. Alde batetik, Biarnoko toponimiaren arrastoak aztertuz gero, argi nabaritzen

da han erabiltzen zen euskara eta gaur egun Zuberoan mintzatzen dena familia berekoak zirela. Beste alde batetik, Hegoaldean, nafar-aragoierak eragin nabaria izan zuen Erronkarin; izan ere, euskal generiko gehienek korrelato bat zuten nafar-aragoieraz (Izaba, top. *Arrigorrieta* / Urzainki, top. *Peñarroya*). Ildo beretik, Erronkarin euskara indartsu egon zen bitartean uste izatekoa da bere eragina hedatuko zuela Ansoko lurretan, toponimo batzuk, behintzat, familia berekoak baitira: *Idoya, Lurriaga, Ezcaurri, Paco Salboch, Arandi*, etab.

Fonetikak erakusten duena

Beste atal batean aipatu den bezala, Akitaniako bokal sistemari seigarren bokal ezpainkari bat erantsi zitzaion. Europa erdialdeko herri frankoaren menperaldi arrotzak gaskoiera erromantzearen sorrera bultzatu ez ezik, euskararen beraren barneko bokal sistemaren aldaketa ekarri zuen euskaraz oraindik mintzatzen zen Gaskoiniako lurretan, euskararen **u* zaharra eraginduaz. Zuberoa ez zen eragin honetatik salbu gelditu, Biarnorekin zuen harreman zuzenarengatik honekin batera joan zen aldaketak barneratuz.

Aldaketa hauek, finean, Erronkariko mintzairan eta toponimian eragina izan zuten bokal asimilazioari loturiko garapen anitzak ahalbidetuz. Azken finean, Erronkarira seigarren bokala iragan ez bazen ere –erronkarieraren sistema fonologikoa guztiz Hegoaldekoa baita– bokal sistemaren egokitzeak ekarri zuen asimilaziorik garrantzitsuen (alegia, *i_ü / ü_ü*) bai iragan zela ezpainkaritasuna bazter utzita (hau da, *i_u / u_u*, hiru irekiera-gradu bost bokal sistema zaharrari eutsi baitzion Erronkarik, Nafarroako Erreinuko menpeko lurra baitzen). Garapen prozesu honetan, ordea, gauza bitxi bat gertatu zen; asimilazioa, berez, iparraldetik zetorren ohitura bazen ere, guztiz erronkariarra bilakatu zen eta finkatzen zaila gertatzen den une batetik aurrera (ez Behe Erdi Aroko sasoirik garrantzitsueneko mendeetatik baino anitzez ere beranduago, XI-XIII mendeaz ari naiz, betiere), hasi zen hedatzen eta zabaltzen Zuberoan eta Biarnon ematen ez zen kasuetara ere; adibidez, *e_u / u_u* asimilaziora. Erronkarin bertan sortua eta bere kaxa garatua, Zuberoan eta Biarnon gertatzen ez zen arren. Erronkarieraz, berriz, asimilazioa gero eta bizitasun gehiago hartzen hasiko zen:

<i>i_u / u_u</i>	<i>iturri / uturri</i>
<i>e_u / u_u</i>	<i>gatzelu / gatzulu</i>
<i>e_i / i_i</i>	<i>ekialte / ikialte</i>
<i>u_i / i_i</i>	<i>zubi / zibi</i>
<i>u_i / u_u</i>	<i>zubi / zubu, urritz / urruts</i>
<i>u_e / u_u</i>	<i>krutxe- / krutxu-</i>
<i>o_i / *u_i / u_u</i>	<i>osin / usun</i>

Hala eta guztiz ere, arras Erronkariartzat jotzen ditugun garapen hauek ez ziren erabat finkatu oso berandura arte. Izan ere, badira zalantzak XV. eta XVI. mendeetan oraindik ere. Honela, Uztarrozen *Gatzuluçarra* dokumentatzen dugu 1614an, baina urte berean *Gatzeluçarra* aldaera ere. Era berean, Izabako toponimo *Gatzulucarra* 1598an dokumentatu dut, baina, halaber, *Gatzeluçarra* 1566an, 1569an eta 1571n. Burgiko Udal Artxiboko katastroan (1896) *Gatzuluzarra* irakurri ahal izan nuen, baina Nafarroako Protokoloen

Artxiboan, *Gazteluçarra*, 1626ko agiri batean. Bidankozen, bitxia da, ez dut aldaera asimilaziodunik dokumentatu eta bai, ordea, top. *Gazteluzarra*, eta oso berantiarra gainera, 1892koa.

Izan ere, *e_u / u_u* asimilazioa XVI. mendean oraindik erabat finkatu gabe zegoen Erronkarin eta *gaztulu* moduko adibide ugariren eta hedatuenean ondoan (Urzainki, top. *Urralegi Gaztulu*; Izaba, top. *Gaztulupintai*, *Belabarze Gaztuluzarra*; Erronkari, top. *Gaztuluzar*; Garde, top. *Gaztuluzarra*, etab.), salbuespen ugari genituen: Burgi, top. *Gazteluzarra*: “Itten en el fronton de *gazteluçarra* otro campo de media carga de sembradura” (1626). Izaba, top. *Gazteluzarra*: “en el termino llamado *gazteluçarra*” (1566), “y mas en *Gaztelu carra* otras quatro Juntas” (1569), “y mas en el termino llamado *gazteluçarra* otra pieça de dos Juntas” (1571), etab. Bitxia da, baina egungo Abolengo Liburuan bertan *Gaztelupintai* irakur daiteke oraindik (cf. 251 orr.), aldaera asimilatu gabea guztiz baztertu ez zelako seinale. Urzainki, top. *Gaztelugaina* (NTEM). Uztarroze, top. *Gazteluzarra*: “una pieça de doce Rouadas que tiene en el termino llamado *gazteluçarra*” (1614), *Gazteluzar erreka*.

Zuberoan, berriz, beti *gatzeliü*; hau da, *e_u / u_u* asimilazioa arbuiahi ohi da: Santa Grazi top. *Gatzeliü Saihetsa* (1838); *Gatzeliügañeko sorhoa* (1914); *Gatzeliügaña* (id.), *Gatzeliügañe*, *Gatzeliügañeko borda*, *Gatzeliügaña*, *Gatzeliügañezubia*; *Gatzeliügain*: «eliza zaharraren atzeko bigarren munoa» (Txomin Peillen irakasleak esana). Joera hau Biarnoko erromantzean ere mantendu ohi da; esate baterako, Laskunen *Castelou* deitura dokumentatu dut (1861): “*Felix Castelou, veuve Castellou*”. Deitura honek euskararen eta erdararen gurutzetaren ondorio garbia dugu; kontsonante belarea ahoskabea hitz hasieran dugu, biarnesez bezala, baina albokaria eta euskal garapen bokalikoa hitz bukaerako silaban, gask. *castera* edo *casteigt*, *castet* espero genukeelarik:

a) *castera*

Larraine, top. *Kastersoroa*, Montori-Berorize, top. *Castéra*, eta, orobat, Izorran eta Aramitzen. Asasp d’Oloroen, top. *Castéra*. Laskunen deit. *Castéret* (*castéra* hitzaren txikigarria): *Marie Castéret* (1882). Cf. Serradets eta Ordesa ibarren artean, *Gruta Casterét*. Ossau ibarreko Gabas herrian, top. *Lac Castérau*, *Pic Castérau*.

b) *casteigt*

Eskiulan, top. *Castège*. Tuteran deit. *Don Ju(a)n Castech* (1629). Baretous ibarra, Arette / Ereta, top. *Casteigt*, *Casteigts*, *Casteigts*; Aramitze, top. *Casteigts*. Aspe ibarra, Laskunen, top. eta deit. *Jacques Casteigt* (1882), top. eta deit. *Bertran Casteignau*, deit. *Ursula Casteigt*. Lèès-Athasen, deit. *Casteignau* (1860). Akozeko Lhers auzoan, borda izena: *Casteignau-Patiolle*. Escot, top. *Casteigt*; Bedous / Bedoze, top. errom. *Casteighbou*.

c) *caste(t)*

Arette / Ereta, top. errom. *Caste det Rey* (1860), Arette / Ereta, top. *Castets*, *Castes*; Landa, top. errom. *Arriou de Castet*. Aspe ibarra, Lèès-Athasen, top. errom. *Pene de Castetné* (kart.), *Castetnau* (1838). Accous / Akoze, top. *Castet de Bergout*. Bedous / Bedoze, borda iz. *Bordes Castetnau*. Aragoian, Jakan, top. errom. *El Castetazo*. Banaguas (Jakako barrutian), top. *Barranco Castetillo*.

Nafar-aragoiera erromantzean, berriz, *castil* edo *castiello* dugu eskuarki; naf.-arag. *Castil Pintano*: “En el Sitio que llaman de *Castil Pintano* union de las Jurisdiz(ion)es de las Villas de Garde y Burgi de este Valle de Roncal reino de Nauarra con la de la Villa de Salbatierra del Reino de Aragon a Veinte y dos dias del Mes de junio del año de mil setezientos Quarenta y nueve...” (1749), *Corona de Castilpintano*, *Pueyo de Castilpintano*, *Collado de Castilpintano*, *Castiel Pintano* (1290 Idoate), “las sierras e peñas de Baraceaga e *Castelpintano*” (1345 Alli).

naf.-arag. *Castiello*: “et deinde ipsam dreituram, usque ad ontem, qui dicitur Ogili, et alia dreitura usque ad lito Curbo, et deinde Sota Corona de Sase usque ad Castellum Betauni, et deinde usque ad lupereas *Castiello*, deinde usque ad Catarecta, deinde a Cotella; et perrexit usque ad sumum de Orba...” (1063, “Donación del Rey D. Sancho García de Fuenfria Obelba en la hera MLXIII).

naf.-arag. *El Castellar* (Anso, Echo); Ubieto (top. medieval arag.): *Castellar*, Boltañako barrutian).

Asimilazio atzerakaria, i_u / u_u

Asimilazio mota hau da hedatuena eta erregularrena Erronkarin (*i_ü* / *ü_ü* Zuberoan). Izan ere, ikertzaile guztiak bat datoz esatean asimilazio mota hau dela erronkarieraren ezaugarririk berezkoena eta behinena. Gomezek (1991: 397) gogoratzen duenez beste euskalkietan ere gerta daiteke, tarteka bada ere, eta honela bat dator Ibarrarekin (1995: 79) Ultzamako zenbait adibide ematen baititu: *billuxik* / *bulluxik*; *ikullu* / *ukullu*; *Urrizola* / *Urruzola*; *urrix* / *urruxe*. Dena den, argi dago Erronkarin (eta bokal ezpainkariak Zuberoan) asimilazio mota hau dela nagusi eta, zehatzago izanik, Erronkarin Zuberoan baino maiztasun handiagoz. Izan ere, zubereraz asimilazioa ez da gertatzen *u* bokala lehenago *ü* bilakatu ez bada eta erronkarieraz, berriz, kasu guztietan gerta daiteke (Mitxelena, 1960 [1985]: 79): «sul. *ixu(r)i* ‘derramado’... ronc. (Azkue) *usuri*... sul. *itxúsi* ‘feo’, ronc. *utsuts* : com. *itsusi*».

Adibide anitz ditugu Erronkaribarren: Izaba, top. *Uturrotx* (*Uturroz*, 1612; *Uturroch*, 1828). Dena den *gatzelu* / *gatzulu* oposaketaren kasuan bezala, hemen ere, zenbait leku izenetan, *iturri* gorde da; eta oraingo honetan ere, lehen bezala, Bidankoze da asimilazioa gogo onez onartzen ez duen bararra, Zaraitzu ibarrarekin duen erlazio estuarengatik, apika: Bidankoze, top. *Alkateiturria* (“mas otro campo en *Alcateyturria*”, 1668) eta *Iturrotxordokia* (cf. 1892 EEAT). Erronkarin aldaera garatuak eta garatugabeak jaso ditugu: Erronkari, top. *Korostimuga* (“Corostimuga” 1637), *Korostumuga* (“Corostumuga” 1672); ald. sinkopatua: “el ter.no llamado Crostumuga” (1651 EEAT).

Zubereraz *i* bokala *ü* bilakatzen da baldin eta hurrengo silaban bokal ezpainkari bat badago (Ligi, top. *Üthürrotx*, “Andoze auzotegian larrea”, Txomin Peillenen oharra); Etxebarren, top. *Üthürrotx*: “Ruisseau *Uthurrotche*”). Baina jatorrizko *u* bokala gorde bada (adibidez, *s*-ren edo *r* bakunaren aurrean dagoelako) eta, ondorioz, *ü* bilakatu ez bada, asimilazioa ezin da gauzatu (Uhlenbeck, 1909: 482-3): «En souletin *i* est devenu *ü* quand un *ü* se trouve dans la syllabe suivante. Des graphies telles que *yturburuya*, *yzul* semblent

⁹ Mitxelenak (1988: 278-9) aipatua.

indiquer que cette assimilation n'avait pas encore eu lieu à l'époque de Dechepare (*buluz*, *buluzcorri* de Dech.: lab. b.-nav. *billuzi*, *billuzgorri* 'nu' est l'objet d'un traitement particulier: ici l'assimilation vocalique s'est produite déjà de très bonne heure et ne s'est pas non plus limitée au soul., car le b.-nav. aussi a *buluzi* à côté de *billuzi*). Eta aurrerago (ib. 484): «Quand le *u* est resté sans changement dans certaines conditions (devant *s* et devant *r* doux), c'est qu'il n'était pas en état de communiquer à l'*i* de la syllabe précédente son arrondissement labial. Règulières sont donc les formes souletines *ikbusi*, *irus*, *igrut*, *ichura*, avec le *i* et le *u* conservés. Par contre *ür* dans *üchüra*, *ün-güru* est surprenant».

Erronkarieraz, berriz, beti gertatzen da (Mitzelena 1985: 79): «Ronc. *bulur* 'atadura hecha de ramas', sul. *bü'llur*: a.-nav. b.-nav. lab. *bilbur*, *billur*; ronc. *túpla* 'cebolla' < **tupula* (sul. *uñhú*): *tipula*, etc. 'cebolla' en las demás variedades; ronc. *ulun*, sul. *ü'lhun* 'oscuro': com. *il(h)un* (...); ronc. *uturri*, sul. *üthü'rri* 'fuente': com. *iturri* [...]; ronc. *tzuntzur*, *txuntzur*, sul. *züntziür* 'garganta, gagnet': com. *zintzur*, etc.».

Dena dela, eta gorago erakutsi den bezala, ahozko mintzairan, oro har, asimilazioa garatu bazen ere, idatzizko agirietan ez da beti jasotzen. Izabako abolengo liburuan, *Iturburua* eta *Iturrotx* bezalako leku izenak aurkitzen ditugu. Gainera, zenbait testuingurutan asimilazioa ez zen beti erraztasun berberaz gertatzen; esate baterako, morfema muga *i* aski ongi gorde da: Izaba top. *Belaiturri* > *Beliturri* (Justo Bake jaunaren ebakera); *Ezkaiturria* (1568) > *Izkiturrea* (id.). Jakina, asimilazioa da nagusi eta hedatuz zihoan garapena zen, baina, adibidez, XVI, XVII. mendeetan oraindik ere honelaxeko bikoteak gertatzen ziren, asimilazioa hagitz zaharra ez zelako seinale: Izabako deitura, *Uturralt* (1649), baina, orobat, *Iturralt* (1665); Izaban, halaber, deit. *Uturria* (1572) eta *Uturri* (1573), baina haien ondoan, *Iturri* (1591).

Asimilazio atzerakaria, azpieuskalkiz azpieuskalki

Bonaparte Printzeak hiru azpieuskalkitan banatu zuen erronkaria. Bidankoze, Garde eta Burgi Bidankozeko azpieuskalkian sailkatu zituen, Izaba eta Uztarroze, Izabakoan, eta Erronkari eta Urzainki, Urzainkikoan. Egia esan, toponimiaz denaz bezainbat, hiru azpieuskalkietako toponimiaren artean ezberdintasun gutxi nabaritzen dira. Hori bai, ipar-hegora doan ardatz bat suma daiteke, non Uztarrozeko euskalkia erpin batean dagoen eta Bidankozekoa bestean. Jakina, Uztarrozeko toponimiak lotura handia du Zuberoakoarekin eta Gaskoiniako toponimo bat ere aurki daiteke herri honetan ("Landalonga"), Izaban ere, gaskoiaren eragina nabaria da (*Camalonga*, *Brankalunke*, *Murlong*, *Murdukotx*, etab.), Bidankozeko azpieuskalkian, berriz, Erronkaritik kanpoko auzo ibarren eragina nabaritzen da. Bidankozeren kasuan, Zaraitzuko Igarirekin duen erlazio estuak zenbait garapen erronkariar oztopatu dituela dirudi. Gardeko eta Burgiko toponimiaren kasuan, Aragoiko herri mugakideen hizkuntza erlazioak, erdal toponimiaren ugaritzeaz gainera, euskal toponimoen hitz bukaerako hiatoetan sabaikaritze bortitzak eragin ditu, geroxeago ikusiko dugun bezala. Aldaketa horietako asko Anso-ko toponimian ere aurki daitezke.

Azpieuskalkiz azpieuskalki aztertuz eta, salbuespenak salbuespen, Bidankozeko toponimian ez dut asimilazio atzerakariaren adibide adierazgarririk

aurkitu eta kasu gehienetan *i_u* taldea egonkorra dela ondorioztatu beharra dago: “La fuente *Iturbeltxa*” (Crisanto Pasquel jaunaren ebakera). Bidankoze, top. *Iturrotx ordokia*: “Otra en Iturrochordoquia” (1892). Zaraitzuko euskararekin erlazio estua izateak Bidankozen garapena gertatzea oztopatuko zukeen (Igariko mugan, *Iturrizarra*): “el paraxe llamado por los de Vidangoz, Estozi y por los de Igal, Iturrizarra” (1778). Halaber, leku izen elkartuetan irau du; esaterako, *Alcateiturria* toponimoan: “mas otro campo en Alcateiturria” (1668). Egia esan, asimilazioak jotako adibideren bat edo beste aurki daiteke, aski bakandurik ene ustez: “Eguluchea” (1892), “Egulussea” (1892).

Burgin, berriz, *iturri* > *uturri* bilakaera maiz gertatzen da; esaterako, “el termino llamado *Uturriçarra*” (1675), “la Balsa y *Uturralte* de Sasi” (1749), “Fuente de *Uturrusina*” (1992); baina, era berean, forma zaharrak aurkitzen ditugu: “el termino de *yturriçarra*” (1640) eta “*Yturrizarra*” (1896ko katas-troan).

Garde, top. *Uturlosko*: “Camino q. ban a *Uturlosco*” (1631), “el ter[mi]no llamado *Uturzarrea*” (1711), “*Triburua*” (1714); baina, halaber, asimilaziorik gabeko aldaera ere: “la parte llamada de *Yturzarreta*” (1590). Asimilazioa Gardeko ahozko mintzairan gertatzen zen garapena dugu eta Bonaparte Printzeak bere *Catalogo de Palabras de Garde* jaso zuen: “uzuli” (orok. *itzuli* / Garde, *utzuli*).

Urzainkiko azpieuskalkiari dagokionez, Urzainkin *Uturrioz*e eta *Uturroze* aldaerak ditugu: “en el termino llamado *Uturrioc*e” (1583), “al barranco y Regacho de *Uturroze*” (1631); baina, orobat, *Iturrioz*e: “*Iturrioc*e” (1974). XVII. mendean *Ilintxaiturria* toponimoa aipatzen da (“en el bedado casalenco en la parte llamada ylincha *yturria*”, 1601), baina XIX. mendean hasieran *Ilintxauturria* bezala aurkitzen dugu, asimilazioak eraginik: “*Ylincha-uturria*” (1802).

Erronkarin bertan ere zalantza honen adibide gehiago jaso ditut: “el ter[mi]no de *Yturgaxtoa*” (1617), baina “la introduccion de *Uturgastó*a” (1836). Erronkari, top. *Uturxiloa*: “camino que pasa a la fuente de *Uturgiló*a” (1677), baina “*Ytursiló*a” (1916). Antonio Gale jaunak, Erronkariko informatzaileak, Gardeko *Uturlosko* leku izenez ari zelarik, [iturlósko] ebaki zuen: “*Iturlosko* en Garde” (1994).

Uztarrozeko azpieuskalkian asimilazioa erregularra da. Uztarrozen, bereziki, automatikoa dela esan genezake. Honetan bai ikusten dela ezberdintasun nabaria dagoela Bidankozeko toponimiarekin, han joera dena, hemen erregela baita. Uztarrozeko toponimian, *Uturburia*, *Basagein Uturburia*, *Uturrixarra*, *Uturrizarra*, *Utururdineta*, etab. Asimilazioaren eragina heda daiteke lehenengo bokalaren bukaerako bokalaraino, bizkortasun bereziko garapena zela erakutsiz: “la fuente de *Uturriburusteta*” (1677); baina, “la parte llamada *Uturruburusteta*” (1654).

Asimilazioaren indarra harrigarria gerta dakiguke, sartaldeko aldameneko herriek horren arrastorik ez dutela kontuan harturik. Bitxia da, isoglosa hain ongi eta zehatz markaturik egotea. Honaino bai, hemendik aurrera ez. Zaraitzun, adibidez, *Iturrotza* dugu, eta ez *Uturrotx*: “el paraxe llamado por los de la V.a de Ezcaroz *Iturrocha* y por la de *Uztarroze* *Laquaga*” (1778). Hitz barnean, aldaera asimilatugabeak ongi gorde dira; adibidez, “*Labaiturri*” (1702) eta “*Labeiturri*” (1806), baina “*Labe uturri*” (1828ko katastroan; cf. NTEM). Artolak (1980: 52) ahozko mintzairaren ondoko testigantza hau ja-

so zuen Doroteo de Miguel jaunaren ezpainetatik: «*Utúrria*, oh! fíte, fíte éltuludu, ez dagó ànix urrin, éz! (...) Izága èrráitan dú, méndi bat, *Uríñan* da(g)ó puntiágo nóla Óriki gísa».

Izabako kasuan, berriz, asimilazioa guztiz erregularra den arren, ez da Uztarrozen bezain sistematikoki ematen, alegia, asimilatu gabeko formak egon badaude: “el termino llamado Huturrardao” (1565), “el termino de Huturrardau” (1567), “en el termino de Uturburua” (1567), “el term[i]no de Uturburua” (1568), baina J. Cruz Allik (1989: 320) *Iturriburua* irakurri zuen berak erabilitako agirian: “la collada de Yturriburua” (1345). Ildo beretik, Izaba, top. *Uturrizarra* (1828), baina *Iturrizarra* (1892, NTEM). Izaba, top. *Uturrotx*: “la peça de huturroch” (1600), “Uturroch” (1828), baina “Iturroch” (1828). Zuberoan: «*Üthürrotx*, Ligin, Andoze auzotegian larrea» (Txomin Peillen irakaslearen oharra).

Ahozko mintzairan, *irur* / *urur* garapena entzun zuen Artolak (1971) Antonia ANAUT andrearen ezpainetatik: “*úrur* aurride”, “bíak *úrur* úrteren búrian il”. Eta, jakina, asimilazioaz gainera, disimilazioa ere gerta daiteke: *Uríña* (‘Iruñea’): *Uríñan* (‘Iruñean’), “*Uríñako* bàt, èlerráitan kében...” (‘Iruñeko...’).

Asimilazio aurrerakaria, u_i / u_u

Orain arte ikusitako adibideek *i_u* / *u_u* motako asimilazio atzekaria erakusten dute; baina, halaber, *u_i* / *u_u* asimilazio aurrerakaria gerta daiteke. Mixelenari (1985: 80) jarraikiz, asimilazio mota hau atzerakaria baino maiztasun gehiagokoa den arren, ez da erregularra, noizik behinekoa baizik: «ronc. *burruña*, sul. *bürdü’ña* < **burduña*... ronc. *buztun* ‘arcilla’, sul. (Gèze) *büz-tin*... ronc. *urrutx*, sul. *ürrüttx* (Gèze *ürrüts*) ‘avellano’, central *urrutz*, vizc. *urretx*; sul. *egü(r)üki* ‘aguardar’ (*eguruqui* en Onsa), b.-nav. lab. *iguriki* (en ronc. con síncopa *eurki*, *orki*)». Eta *La posición fonética del dialecto vasco del Roncal* artikuluan beste adibide hauek gaineratzen ditu (1988: 279): «Uzt. *áxuru*, R (Is.) y común *axuri* ‘cordero’... Uzt. *eguzku* ‘sol’ (Azk., nosotros registramos *eguzki bat sólo* ‘sólo (hay) un sol’), com. *eguzki*, *iguzki*... R *zubu* (Is. *zibi*) S *zü’bü*, com. *zubi*; R *zuzu* ‘tea’, com. *zuzi*... Con vocal nasal R *su*, Uzt. *si* ‘yerno’ (Bon), de **sui*, **suni*, S. *sühi* (en Barcus *subu*, Bon.)...».

Beraz, asimilazio aurrerakaria araugabekoa eta noizik behinekoa izateaz gainera ez da leku guztietan maiztasun berberarekin kausitzen. Hau argi ikusten da Uztarrozeren eta Larraineren arteko mugan. Larrainen, adibidez, mugaldeko aurkintza bati *Mülhedoi* (“Vallon de Mulhédoy”) izena ematen diote; Uztarrozen berriz, *Mullidoia* eta *Mulidoia*, baina, orobat, *Mulludoia*: “el Cabezo pequeño antes de *Mulludoia*” (1778 EEAT). Bistan denez, asimilazioa errazago gertatzen da erronkarieraz zubereraz baino.

a) orok. *urrutz*, erronk. *urruts*

Era honetako hitz elkartuen lehenengo osagaian asimilazioa gerta daiteke (Uztarroze top. *Urruxpurua*, Urzainki top. *Urrustumuga*), baina ez da beti gertatzen: Erronkarin, adibidez, *Urristioia* dugu. Garapen hau ez zen Anso ibarrean gertatu, Ansoko *Urristi* toponimoak erakusten digun bezala (ez dago batere argi ea hauekin erlazionatzerik dagoen, atzizkiaren itxura guztiz ekialdekoa ez baita). Zuberoan, berriz, testuinguru honetan gauzatzen da:

Santa-Grazin, top. *Ürrüstoia*, *Ürrüts ordoki*, *Ürrüxterri*; Larrainen, top. *Ürrüstoi*, *Ürrüstoipeko*, *Ürrüspapats*, *Ürrüspapatspekoa*.

b) orok. *zubi*, erronk. *zibi*, ald. *zubu*

Mitxelenak (1985: 77) orok. *zubi* > erronk. *zibi* garapena izabartzat jo zuen eta, honez gainera, orok. *mutil* > erronk. *mítíl*, zub. *míthil* garapena aipatu ere bai. Hona hemen Izabako toponimiatik hartutako zenbait adibide: “Cibiria” (1591), “Iten en la parte llamada encima lapuente llamada *Jorgere-na çibiburua* dos Juntas afron[ta]das con yerrmos” (1593), “Cipidejabalcoa” (1828).

Bestalde, *zubi* > *zubu* garapenari dagokionez, Erronkaribarren ez da usu gertatzen eta gertatzekotan Uztarrozen izaten da (*Zububerrieta* 1828). Zuberor, berriz, garapen ezaguna dugu: Santa Grazi, top. *Zübübüria*, *Zübühandia*, *Zübüparetia*, *Zübüpharetia*; Larraine top. *Zübüriordokia* (“Çuburuordokia” 1832).

Atal honi bukaera emateko, gogora dezagun Erronkaribarren asimilazioa oso bizirik zegoela, eta, behin baino gehiagotan hedatzen zela Zuberoko toponimian inoiz eta inola hedatuko ez zen izenetara; hain zuzen ere, *o_i* taldea bera ere eragindua izan daiteke ondoko adibideetan erakusten den bezala: “senda que ba del dho lugar para *osinugaltea*” (1565), baina “la Corona de *Usunagaltea*” o “Usunucaltea” (1828) eta “Sunucaltea” (Justo Bake Salbotx jauna). Era bereko beste adibide bat: “la puente llamada de *osindundua*” (1568), baina “Usunundoa” (1828).

Hizkuntza erromanikoen bokal sistemak euskal toponimiari eragin dio

Latinak zituen hamar bokal luze-laburretatik bost bokal ahokariz (eta beste hainbat sudurkariz) osaturiko sistema batera igarotzeak bokalen arteko txandaketa anitz erakarri zuen. Agian, garrantzitsuena, baina ez bakarria, *i / e* bokalen txandaketa dugu, zeren eta latinetiko *i* laburra *e* bilakatu baitzen nafar-aragoieraz, gaztelaniaz bezala.

Euskal toponimoen garapenean, behin baino gehiagotan, latinetiko bokalek jasan behar izan zituzten garapen berberak ezagutu zituzten euskal bokalek, eta euskararen bokalen kasuan kantitateak balio fonologikorik ez duen arren, zenbaitetan bokal laburtzat hartzen ziren eta garapena gerta zitekeen, edo, alderantziz, bokala garapen baten ondorioztat hartu eta, hiperzuzenketaz zela medio, izena behar ez den bezala berreraikitzen zuten, jatorrizkoan ez zegoen bokal bat ezarriz, baina jatorrizko bokala berrezartzen ari zirelako us-tea izanik.

Hitz bukaeran adibide ugari ditugu: Anso, top. *Ezcaurri*, baina Izaba, top. *Ezkaurre*. Burgi, top. *Kostobli*, ald. *Kostoble* eta *Kostobre*. Burgi, top. *Sasi*, Salbaterra Ezka, top. “Sota Corona de *Sase*” (1063). Burgi, top. *Zazpi*, Nafarroan top. nag. *Zazpe*. Burgi, top. *Orgaizti*, *Logasti*, baina, orobat, *Logaste*. Ereta, top. *Larrande* (orok. *Larra handi*); eta hemendik, hitz bukaerako *e* bokala gaskoieraz neutraltzen denez gero, *Larrando* Oloroeko Agnos herrian (cf. Osse-en-Aspe herriaren ebakera biarnesa: [Osso]). Cf. Aragoïn, top. nag. *Javierre*, Nafarroan, top. nag. *Javerri*. Bestalde, jatorrizko ez den bokala ezarri da ondoko kasuotan: Arette, top. *Liorry* (cf. Bidankoze, top. *Egullorre*); Landa, top. *Harlary*; Etsaut, Urdos, Gabas (Ossau), top. *Larry* (eusk. *larre*). Oro-

bat, hitz hasieran: Burgi, top. *Ilurridoia*; Anso, top. *Ilurriaga*; Aydius-Aspe, top. *Ilurpe*.

Gainerakoen artean aipatzekoa da Biarnon gertatzen den *a / e* txandaketa hitz bukaeran. Oro har, hitz bukaerako *a* guztiek neutraltzeko joera dute eta *e* itxia ematen dute, hain itxia, ezen *o* bezala entzuna izatera hel baitaiteke: eusk. *Izaba* (errom. *Isaba*); baina gaskoieraren eraginez, Biarnon *Isabe* (Aspe ibarrean –Accous/Akoze eta Cette– eta Ossau ibarrean –Laruns–) edo *Isabou* (Laskun). Lourdes aldean, top. *Lac d'Issaby*, *Lac d'Izaby* (cf. gorago *e / i* txandaketa; azken finean *y* grafiak atzealdeko bokal ezpainkaritik hurbil dagoen ebakera irudikatzen du; cf. Laskunen, *Alcachelburry*). Barétous ibarrean, *Larraba* (Izorra), orok. *larrabe*.

Bokal sudurkariak eremu osoan

Gorago aipatu den bezala, gaskoierak eta nafar-aragoierak bokal sudurkariak zituzten, alde honetako euskarak zituen bezala. Gainera, erronkarietaz bokal sudurkariak balio fonologikoa zuten, zubereraz bezala.

Bestalde, fenomeno hau ez da ekialdean bakarrik gertatzen, aitzitik, Garribay-k berak bokal sudurkariak erabili zituen bere idazlanetan. XVI mendeko idazlea zen bera eta Arrasatekoa. Beraz, Gipuzkoako bizkaieraz bokal sudurkariak bazeuden ondoko grafiak erakusten duen bezala: *mîa / mina* ‘mihia’. Bizkaiko testuetan sudurkaritasunaren ikurra erabili zen arren, hainbat kasutan ezin zen anbiguitatea erabat zuzendu, ez baitzegoen argi ikurrak zer adierazi nahi zuen, alegia, ea bokalaren atzean kontsonante sudurkari bat ba ote zegoen, edo bokala bera sudurkari ote zen; finean, baztertu zen (cf. Mitxelena, 1985: 49): RS *arżayoc*, *mandazai*, *sey-seyac* (*sehina*, *seyña* ‘haurra’, Mikoleta), *sardia* ‘sardina’ (cf. Mikoleta *baguiña* (sic) ‘la vayna’, *erreguiña*, etab.). Honela bada, bizkaieraz XVI eta XVII. mendeetan bokal sudurkariak ibiltzen zituzten bezala, frogatua dago Zaraitzun eta Erronkarin gauza bera egiten zutela.

Gaztelera idatzitako agirietan, besteak beste, hitz hauek jaso ditut: *termjô* (Izb 1561, goi-naf. *dermio*, zub. zaharra, *thermañü*, cf. Altsasun, top. *Dermau*), *afruêta* (Bid 1560), *êfermo* (Urz 1585); eta agiri baten buruan: “In dey noie *amê*” (Izb 1561). Gaskoieraz ere erabiliak izan dira (*pâ*, *bî*, *sasoû*); Rohlfsek erakusten duenez Erdi Aroko zenbait agirietan bokal bat bera bi aldiz idatzita ikusten dugunean, horrek esan nahi du sudurkaria dela: *paa*, *bii*, *Camboo*. Euskarari dagokionez, gure aldeko toponimian sudurkarien hatzak nabaritzen dira; izan ere, Izaba top. *Aguinçolaçe* (1563); baina, ald. sudurkaria: *Aguinçolace* (1576). Deituretan ere nabaritzen da: Garde deit. *d'Âso* (Anso): “m[i]g[ue]l dâso” (1562).

Bestalde, Ansoko *Reguia*, Burgiko *Regiasargieta* eta Izabako *Erregiabortu-soroa* toponimioez denaz bezainbat, horietan guztietan sudurkaritasuna guztiz galdu da, Hegoaldeko goi nafarreraren kasuan bezala, *erregia*. Gipuzkeraz eta bizkaieraz, aurrealdeko bokal goikoaren atzean hersketa ahokaria berrezarri da sudurkaria galdu baino lehenago, eta, eskuarki, sabaikaria izan ohi da hautatu den kontsonantea (*erregiña*). Dena den, behe nafarreraz eta lapurteraz sabaikaritasuna galdu da (*erregina*). Gure toponimioen kasuan, sudurkaritasuna bera ere izan da galdu dena. Mitxelenak (*op. cit.*, 303) *Kamiño* deitura gipuzkoarra edo bizkaitarraren ondoan, *Kamio* eta *Gamio* deiturak aipatzen ditu.

Hitz bukaerako *e* paragogikoa

Hitz bukaeran sudurkaria dagoenean *e* paragogikoa erantsi ohi da aztertutako eremuan: Garde, top. *Sansoañe*, *Sansuañe*, *Sansoaine*: “Sansoayne” (1644 NPA); Larraine, deit. *Danduraine* (1832); Borce, top. *Sansane*; Lèès-Athas, deit. *Allamane* (1914, baina, *Allaman* 1838); Anso, top. *Zapataine*.

Orobat, hitz bukaeran txistukari bat dagoenean gauza bera gertatzen da (Akitanian *-os*, naf-arag. *-ués*; eusk. *-oz*, *-oze*): Bidankoze, top. *Goldarase*, *Viñosse* (1561); Garde, top. *Pancharase* (1611), *Pancharaxe* (1670); Izaba, top. *Murducoche* (1662), *Baticoché* (1856); Laskun, top. *Ourtasse*; Borce, top. *Lacarroche*, Banasse; Anso, top. *Salboche* (1666).

Ansoko eta Biarnoko diptongoen garapen kallea

Erronkarieraz eta zubereraz *au* diptongoak *ai* diptongora garatzeko joera du (orok. *a(h)untz* / erronk. *aintz*). Bilakaera berbera nabaritzen da Ansoko toponimian: Anso top. *Aunzate* eta *Ainzate* (1272 UA). Toponimo honen jatorrian, ordea, eusk. *ahuntz* oinarria izan ordez, *hagintze* oinarria izatea gerta liteke; izan ere, cf. Izaba, top. *Ainsolace* (1946), baina XVI. mendean *Aguinçolaçe* (1578) eta XVII.enean, *Aguinze olaçe* (1652); cf. Santa Grazi, top. *Hagintzepia*.

Bestalde, Erronkariko zenbait toponimoetan *ai* / *ei* diptongoen txandaketa nabaritzen dugu: eusk. *saihets*, Izaba, top. *Belabarsaysa* (1588), baina *Belabarseisa* (kartografian); Izaba, top. *Ezcaursaysa* (1568), ald. *Ezcurrseisa* (1664). Uztarroze, top. “la parte de *Seisá*” (1662), “piezas de Roldan de la parte de *Seisá*” (1670), baina, Uztarrozeko Abolengo Liburuan, *Saisa* (1806). Era berean, Aragoiko eta Biarnoko mugan, Astun eta Urdos herriak batzen diren aurkintzan, top. *Belonseiche*.

Hitz bukaerako hiatoen garapenak

Erronkaribarko toponimian *-ea* hitz bukaeran ongi gorde da: Garde, top. *Altxunbidea*; Izaba, top. *Auxpidea*, *Garatea*; Uztarroze, top. *Ardibidea*. Halere, tarteka, herstura gerta daiteke: Bidankoze, top. *Bilitxea*, *Kartxerea*, *Kartxellea*; baina, Burgi, top. *Bilitxia* eta Bidankoze, top. *Kartxiria*. Anson, *-ea* > *-ia* garapena gertatu zela dirudi (Anso, top. *Arvidia*); halere, ez da erregularra eta ez da beti gertatzen (Anso, top. *Garatea* 1862). Zuberoan, berriz, *-ea* > *-ia* bilakaera automatikoa da: Larraine, top. *Bidepia*, *Lagapia*, *Luramagapia*, *Sagartzepia*; Santa Grazi, top. *Garatia*, *Utziapia*, *Errekaltia*, *Baratzia*, *Basagaitzpia*. Biarnon, Zuberoan bezala, garapena gertatzen da: Ereta, top. *Arpidia*; Lèès-Athas, top. *Las Lucies*, (*A*)*napia*. Izaba, top. *Ezcaursaysa* (1568), ald. *Ezcurrseisa* (1664).

Hitz bukaerako hiatoen jokabidearen azterketarekin segituz, derradan erronkarieraz *-ua* hiatoa *-ia* bilakatzen dela ia kasu guztietan: Garde, top. *Iriburua* (1850; behin dokumentatua) eta *Iriburia* (urte berean dokumentatua, baina zortzi aldiz). Uztarroze, top. *Basajeinburua* (1655), baina *Basagein Uturburua* (1806). Izaba, top. *Macecomurua* (1563), baina “las peñas del portillo de *bagarguia*” (1616). Uztarroze, top. *Landasargua* (1659), baina *Landasarguia* (1656), Santa Grazi, top. *Arrasargia*, Larraine, top. *Eyhera Sarguia* (1832); Uztarroze eta Larraine, top. *Bagargia*, baina, orobat, Uztarrozeko

Abolengo Liburuan *Bagargua* aldaera jasotzen da. Anson garapen sabaikaria dokumentatua egoteaz gainera (cf. infra), *-ua* > *-ia* garapenaren adibide bat dugu: Anso, top. *Burguia* (1923). Zuberoan beti *-ia*. Erronkaribarren baino anitzez ere automatismo handiagoz, bilakaera hau handik Erronkarira iragan zelako seinale: Santa Grazi, top. *Etxabüria*, *Aphezjaukagia*, *Üthürsorgia*, *Belatx Pausagia*; Larraine, top. *Bazkagia*, *Bagargia*, *Eihera Sargia*. Biarnon, Zuberoan nabaritzen den erregulartasun berbera espero genukeen arren, badi-tugu hiatoaren gordetzearen zenbait adibide, euskara galdu zuen eskualdea izanik, sistema osoa erregulatzeko Zuberoak izan duen denbora ez izaki eta forma arkaikoak mantendu direlako: Aramitze, top. *Arrec Cerraburia*, Landa, top. *Arrec d'Isiburie*; baina, Ereta, top. *Bagua* eta Lourdios (Aspe), top. *Baragua*.

Ezpainkaritzea

Bidankozeko azpieuskalkian, baina ez Bidankozeko toponimian, Gardekoan edo Burgikoan baizik, ezpainkaritze kasuak (*-oa* > *-oba*) nabarmenagoak dira Erronkaribarko beste azpieuskalkietan baino: Garde, top. *Poitondoba* (Anaut-Sanz, informatzailea). Burgi, top. “Yzabarroba, Una finca” eta “Isabanoba” (1896). Burgi, top. *Las Litoas* eta *Las Litobas*: “la quiñonada de las litobas”, “los quiñones de las litobas” (1896). Anson gertatzen den bilakaera dugu: Anso, top. *Narancoa* (1862), *Narancoba* (Felix Ipas, informatzailea); cf. Erronkari, top. *Arankoa* (“Arancoa” 1608).

Sabaikaritzea

Kasu honetan ere Bidankozeko azpieuskalkiko Garde eta Burgi herriak nabarmentzen dira. Egia erran, haxe izan zen Bonapartek erabili zuen irizpide nagusietariko bat azpieuskalkiak sailkatzeko unean. Sabaikaritzeak ondoko bi hiato hauei eragiten die: *-oa* (> *-oia*) eta *-ua* (*-uia*) hiatoei, hain zuzen ere.

a) *-oa* > *-oia*

Erronkari, top. *Iturgaxtoa*: “el ter[mi]no de Yturgaxtoa” (1617), baina ald. *Uturgastoia*: “Uturgastoya” (1892 NTEM). Anso ibarrean, top. *Pikoia* (Urzainki, top. *Betatuco Picoa* 1581).

b) *-ua* > *-uia*

Burgi, top. *Opakua*: “campo en Ocapua” (1625); *Opakuia*, *Opakia*: “el ter.no llamado Opaquya” (1626); “Opaquia” (1704); *Opakeia*: “el termino que llaman Opaqueya” (1647); “el termino de la dha. Va. llamado Opaqueya” (1666); *Opakiya*: “la parte llamada Opaquiya” (1652); *Opakieia*: “el termino de la dha. Va. llamado Opaquieya” (1665).

Anso, top. *Buya* (eusk. *muga* > *buga* > *bua* > *buia*): “Vuya de Chipeta” (1662).

Gardeko hizkeraz sabaikaritze prozesu honek bilakaera konplexuak erakarri zituen eta, *-ua* hiatotik abiatuta *-ioa* moduko bokal elkarteetara iritsi zen (eusk. *burua* > *burioa*; cf. Bonarparte Printzearen, *Catálogo de palabras de Garde*). Garde top. *La Errebiroa* (< **Larreburioa*): “en la errebiroa de mariañe”, “el dicho paco de mariañe Junto a la errebiroa” (1620 EEAT).

Bokalen bilakaerak

Anson aferesiaren kasu nabarmen bat dugu, “Los Artigaços de *Lurriaga*” (1667), toponimoaren berezko bokala aurreko preposizioaren bokalean urtu delako. Dena den, honelaxeko kasuak ez dira ohikoak Erronkaribarren; bai, ordea, beste bilakaera batzuk, anaptisiak (Izaba, top. *Kurutxaga*, *Kurutxajarra*), inesibo zaharraren arrastoak eragindako paragogeak (Burgi eta Garde, top. *Aranea*; Burgi eta Uztarroze, top. *Zabalea*; Izaba, top. *Belaiabarrea*, *Osa-nea*, *Saisondarrea*; Erronkari, top. *Sancho Miguel Alorrea*) eta, bereziki, sinkopak. Izan ere, sinkopa garrantzi handiko bilakaera genuen ondoko taulan ikus daitekeen moduan:

BR < <i>ber</i>	<i>Beraskoitz</i> / <i>Braskotx</i> (Urz, Err), <i>Burugorri</i> / <i>Brugorri</i> (Err)
BL < <i>bel</i>	<i>Zelegiblea</i> (Bid), <i>Torregiblea</i> (Bid), <i>Argible</i> (Err, Bid), <i>Araingiblea</i> Bid, <i>Araingiblea</i> (Bid).
DR < <i>der</i>	<i>Andre Dona Maria Urria</i> (1691 Ans), <i>Andregia</i> (Gar, Ans)
GR < <i>gar</i>	<i>Azekia Garaia</i> : “Açequia graya” (1657 Bur), <i>Garat(e)</i> : “Grat” (1642 Bur)
RN < <i>-ren</i>	<i>Iribarne</i> (Bid, Urz), <i>Larneta</i> (1573 Urz), <i>Llarneta</i> (1575 id.), cf. <i>Larraineta</i> .
NT < <i>net</i>	<i>Larrenta</i> (1619 Urz), hots, <i>Larreneta</i> (1648 id.), cf. <i>Larraineta</i> .
RZ < <i>-ra(t)z</i>	<i>Barazeta</i> (Bur), baina <i>Barzeta Goitia</i> (Uzt), <i>Blabarçesorondoa</i> (1565 Izb)

Garapen kontsonantikoak

Herskari ahostun ezpainkarien sailean erronkarieraz ohikoak ziren ahoskabetze garapenak nabaritzen dira: orok. *denbora*, erronk. *ténpra*. Zuberoan, Santa Grazi, top. *Aranperro*; Erronkaribarren, Erronkariko deitura *Larronpe* (cf. orok. *Larunbe*).

Bestalde *nb* talde zaharrak erronkarieraz, gaskoieraz eta nafar-aragoieraz *m* bezala garatzeko joera du: Burgi, top. *Ganboa*: “la agua de benies e termino clamado ganboa” (1439; Idoate), “el termino llamado Gamboa” (1441); Urzainki, top. *Ganbuluzandia*: “el termino llamado *ganbulucandia*” (1574); baina, Urzainki, ald. *Gamulucandia* (1573); Garde, top. *Gamuluçea* (1573). Anso, top. *Gamueta*, *Gamueta chiquea*, *Gamoeta chiquea*, *Gamueta Carreria*, *Gamueta Chinebral*, *Vua de Gamueta*. Gaskoieraz eta nafar-aragoieraz hitz hasieran belarea gorde da: Izaba, top. *Camalonga*; Anso, top. *El Camonluengo*, *El Camonredondo*; Izaba, Ereta top. *Pescamou* (cf. Rohlf, *Cambôo*).

Herskari ahoskabe horzkarien sailean, ahostuna ahoskabetu egiten da kontsonate taldearen aurreko lekuan sudurkaria dagoelarik: orok. *igande*, erronk. zub. *igante*. Garde, top. *Mentejaco* (1711); Urzainki, top. *Mentartea*. Gauza bera gertatzen da, sudurkariaren orde, albokaria baldin badugu: orok. *alde*, erronk. *alte*. Garapen hedatua eta erregularra dugu eremu osoan. Santa Grazi, top. *Bordalte*; Burgi, deitura *Elizalte*; Bidankoze, top. *Pilalte*; Bidankoze, oikonimo *Lixalte*; Izaba, top. *Zibialtea*.

Bestalde, *nd* kontsonante talde zaharrari dagokienez, *nb* taldearekin gertatzen zena kasu honetan ez da betetzen eta taldea oso ongi gorde da (nafar-

aragoieraz bezala). Aitzitik, garapena gaskoieraz gertatu da. Han bai, taldea soildu da eta *n* eman du: eusk. naf-arag. *landa* / gask. *lana*. Anso, top. *Lan-daderra*. Taldea gorde da, oro har, Euskal Herri osoan (Beorlegi, Nafarroa Beherea, top. *Landerre*), baina galdu da Biarnon, Izorra, top. *Lanerres*. Izan ere, *Lanne-en-Barétous* herriaren izena gaskoieraz *Lana* da, eta euskaraz, berriz, *Landa*. Cf. eusk. *ezponda*, naf-arag. *espuenda*, gask. *ezpona*: eusk. “*Espondaburie*” (Stg. 1914), ald. gask. “*Esponne buria*” (Stg. 1914); eusk. *ezponda*: Uztarroze, generikoa, txikigarria, *espondon*, *esponllon*: “Se hizo una Cruz en peña firme que esta en un *esponllon* de peñas, y en la Oyada que forma el Terreno” (1842 EEAT).

Herskari belareei dagokienez, hemen ere ahoskabetzea ohikoa dugu: orok. *ingude* / zub. *ünkhüde*. Talde ahoskabea oso hedatua dago: Garde, oikonimo *Promianko*; Erronkari, top. *Txanka*, *Txankibarra*; Izaba, oikonimo *Txarranko*, *Txinko*; Izaba, top. *Txorronkia*; Santa Grazi, top. *Ünkhüartia*; Larraine, top. *Zankhoi*; *Urzainki* toponimo nagusiak berak taldea gorde du bere izenean; *Urzainki*, top. *Zinkagua*; Anso, top. *Narancoa*, *Pesenca* (nafar-aragoieraren bilakaera erregelak oraindik ezarri gabe). Dena den, beste adibide batzuetan Anson erromantzearen erregelai jarraikiz emaitza ahostuna dugu (naf-arag. eta gask. *-ng-* / eusk. *-nk-*): lat. *spelunca*; Anso, top. *Espelunga*, *Espelunguera*; Borce, top. *Espelunga*; Lourdios, Sarrance, top. *l’Espalungue*. Garden, berriz, top. *Ezpelunkondoa* (latinaren jatorrizko kontsonantea gordeaz). Anson bertan ere, top. *Espelunca* (garatu gabea eta euskararen modura osatua).

Frikari txistukarien txandaketa

Leku izen berberaren euskal eta erdal izaera fonologikoa kontuan harturik euskal aldaeretan frikari horzkaria eta erdarazkoetan hobietakoa nahiago dela nabaritzen da; esaterako:

a) eusk. *Izaba*, gazt. naf.-arag. *Isaba*, gask. *Isabe*.

b) eusk. *ezpata*, gask. *espat*, gazt. naf.-arag. *espada*: Larraine, top. *Ezpatagañe* (“*Espatagagne*”, “*Espatagayne*” 1832); Erronkari, top. *Arrespata* (1670), *Arraspata* (1672), baina *Arrespata* (1836); Anso, top. *La Loma de Espata* (1699); Villanúa, Huesca, top. *Punta de la Espata*; Lèès-Athas, top. *l’Espat*.

c) eusk. *Ezka*, errom. *Esca*: Izaba, top. *Ezcacarrica* (1583), *Ezcaiturria* (1677); Bidankoze, top. *Ezcaçe* (1634), halere, *Escace* (1778), Burgi, top. *Escageraya*” (sic, 1896), eta erdaraz, Anso, top. *La Achar de Esca* (1750, Aragoian beste *Esca* bat dagoela agerian utziz).

d) eusk. *ezponda*, gask. *espuna*, gazt. *espuenda*: Anso, top. *la espunda de Linçola* (1663), *la espuenda de Leynsola* (1369); Bidankoze, generikoa: “la espuenda de juso” (1444), “el mismo espondon” (1842); Burgi, generikoa: “la espuenda del dho. termino de cabalea” (1644). Erronkari, top. “la espuenda mayor de Çabalea” (1604), “afrontada por bajo con espondon” (1836). Erronkaribarko herri guztietan dokumentatu da *espuenda* generikoa. Bidankozen eta Uztarrozen, *espondon*, eta gorago ikusi den bezala Uztarrozen bertan ere bustidurak jotako *esponllon* txikigarria. Euskaraz *ezponda* dugu (Santa Grazi, top. *Ezponda*; Larraine, top. *Ezpondaburia*; Izabako agirietan, *Ezponda* (1566) eta *Ezpondaburu* (1639) Iparraldeko herritarren deiturak dira: “p[edr]o Ezpondaburu residente en esta d[ic]ha V[ill]a (...), pedro Ezpon-

daburu Vasco” (1639); *Ezpondaburu* Uztarrozeko deitura da: “Antonina Ezpondaburu”, “Exuperio Ezpondaburu”, “Julián Ezpondaburu”, “Santox (sic) Ezpondaburu”. *Ezpondon* Uztarrozeko Abolengo Liburuko hitza da eta “la ezpuenda” Gardekoarena.

Gaskoieraz, *espuna*: Santa Grazi, top. *Esponne buria*, *Espona* (1914). Arette / Ereta, top. *l'Espoune*, *Lespoune*, *Lesponne*; Issor / Izorra, top. *Lesponne*; Aramitze, top. *Lesponne*; Borce / Borza, top. *Lespoune*; Léès-Athas, top. *Lespoune*.

Ur hitzaren dardarkaria elkarketaren lehenengo osagaian

Ur hitzaren dardarkaria ahultzen da elkarketaren lehenengo osagaia, be-larea bilakatuz eta toponimoei jite erronkariar berezi bat emanez: Bidankoze, *ugalte* ‘ibaia’; Urzainki, *ugatxa*; Izaba, top. *Ugaltea*: “senda que baxan a osin *hugaltea*” (1595), “por la senda que ba desde la puente de landondoa açia *osinugaltea*” (1600), “senda q[ue] ba a *hossin hugaltea*” (1605). Izaba, top. *Arainko Ugatxa*: “el termino de Araynco Ugacha” (1577). Larraine, top. “Ugatceconaba”, “Ugatcegagne”, “Ugatcemehia”, “Ugatcopia”, “Ugatuclarria” (1832), *Col Uगतzé*, *Ugatzekolarria* (kartografian). Izaban, top. *Ugaxiloa* (1624).

Zuberoan, galdutako kontsonantearen arrasto bezala hasperenketa bat gelditu da (*üháitz*, *ühatx*): Larraine, top. “Uhaits gagneco alhorra”, “Uhaix errequida”, “Uhaix ordoquia” (1832). Zuberoan, *Uhaltia* (Santa Grazi, 1914).

Erronkaribarko *Uhalde* (*Hualde* 1567) deituran dardarkariaren ahultzea erabatekoa izan da. Espero genukeenaren aurka agian (ikus gorago herskari horzkariei buruz esan dena), Erronkariko deituran aurkitzen dugun herskaria ez da ahoskabea, ahostuna baizik. *Hualde* deitura da nagusi, ia bakarra eta erruz dokumentatzen dena (jakina, *Ugalde* ere jaso da, baina anitzez ere maiztasun gutxiagoz). Izan ere, Joanes *Hualt* 1579an Izaban bizi zen Santa Graztar bat zen (Juan *Hualt* bezala aipatua 1612ko agiri batean). Eta *Hualtea* (1562), bitxi da, Ledeko leku izena da, eta ez Erronkarikoa (cf. EEAT).

Sabaikaritzea

Erronkariko toponimiaz ari den artikulua batek ezin du aipatu gabe utzi erronkarieraren ezaugarri bereizle hau: bokalen arteko jod erdikontsonantearen sabaikaritzea. Honek, jakina denez, txetxekari bilakatzen du eta sabaiau-rreko bizkar hobietako artikulazio puntuaren aldera erakarri ere bai (*vjv* / *vxv*). Badirudi erregela ez dela Bidankozen betetzen: “la macanera de Oyanarte” (1464), “Oyanarte” (1778). Baina Erronkaribarko gainerako herrietan, bai. Garde top. *Oxanondoa*: “en Ojan ondo” (1621); *Oxanea*: “Osanea” (1613); Burgi, top. *Oxana*: “Campo Laojana” (1896); Erronkari, top. *Oxekiederra*: “Ogesquiederra” (1634 Idoate); Urzainki, top. *Oxanartegia*: “Hosanartegua” (1594), “HoSSanartegua” (1599); Izaba, top. *Urrutiko Oxana*: “Vrrutico ojana” (1600).

Guztiarekin ere, *Oiezkia*, Uztarrozeko auzoa, sabaikaritu gabe dokumentatzen da XVI. mendearen bukaeran (1594): «en el dicho lug[a]r de Uztarroz en el barrio llamado oyezquia (...) en el barrio llamado asibien oyezquia». Sabaikaritze mota hau guztiz erronkariarra dugu eta ez da auzo ibarretan gertatzen. Izan ere, Santa Grazi, top. “Eyhera Sorhoua” (1838 PADA); Erronka-

rin, berriz, *Ixeraberrieta*: “sobre la Cruz del ter[mi]no de yJeraberrieta” (1616), “el ter.no llamado hiJeraberrieta” (1649), “el termino llamado Ixaraberrieta” (1658), “mas en yxeraberrieta un campo” (1662), “en la parte llamada Ygeraberrieta” (1663), “el llano de Ixaraberrieta” (1671), “el llano de Ixaraberrieta” (1672), “una heredad llamada en el termino Yjeraberrieta” (1676).

Ildo beretik, sabaikaritze mota hau guztiz erronkariarra eta beste euskalkietatik bereizten duena bada ere, ez da bakarra. Afrikatua bizkar hobietakoren sabaikaritzea da, izan ere, euskalki honen beste ezaugarri bereizle eta garrantzi handikoa. Sabaikaritzea erregularitasun osoz gertatzen da aurrealdeko bokal goikoa duen diptongo baten atzetik kausitzen den kasu guztietan (-aitz > -atx): Burgi, top. *Arrigatxaga*, *Basagatxa*. Erronkari, top. *Errekagatxa*. Erronkari eta Urzainki, top. *Mendigatxa*. Izaba, top. *Arainkougatxa*, ald. *Lakungatxa* (cf. Lescun, top. *Congasse*, *Coungasse*). Uztarroze, top. *Sagargatxa*, *Mantatxa* (alegia, *Mendigatxa*). Larraine, top. *Mangatxa* (“Mangacha” 1832). Santa Grazi, top. *Basagatxa* (“Bassagache” 1914). Dena den, adibide horiek salbuespentzat har daitezke, Zuberoan sabaikaritzea ez baita ematen: Santa Grazi, top. *Basagaitz* (“Bassagaix” 1914), *Basagaitzpia* (“Passagaixpia” (sic) 1914); Larraine, deit. *Basagaitz* (“Bassagaitz” 1832), *Gizagaitz* (“Jean-Pierre Guissagaitz” 1832), *Aldegaitz* (“Aldegaitz dit Bustanoby” 1832).

Halaber, diptongoaren murrizketa gerta daiteke frikari baten aurrean, erronkarieraren hitz hauek erakusten duten bezala: *alabaxun* ‘alabaizun’, *amaxun* ‘amaizun’ (bizkaieraz, *axe*; cf. Mitxelena, 1985). Toponimian adibide ugari ditugu: Bidankoze top. *Asagarbia*. Burgi, top. *Axpe*, *Aspea*, *Azpea*. Erronkari, top. *Axpea*, *Aspea*, *Azpea*. Uztarroze, top. *Axpia*, *Aspea*.

Sudurkariaren bustidurari dagokionez, aitortu behar da zalantza handiak daudela Erronkarin, baina, eskuarki, in taldeak iraun duela garapenik jasan gabe toponimian: Izaba, top. *Ardibidegainea* (“Ardibidegaynea” 1597; “Ardiudegaynea” 1615; “Arrdibide gaynea” 1675; “Ardivedegainea” 1806). Bidankoze, top. *Gainbea*. Burgi, top. *Argainea* (“caloradero y majada de *argaynea* de Garçea[te]ña” 1655; cf. Igari, top. *Argaña*). Uztarroze, top. *Otxogorrikogaina*, *Gaztulugainea*, *Ardibidegainea*. Larraine, top. *Bordagainea* (“Bordagaynia” 1832), *Etxegaina* (“Etchegayne” 1832). Espainiaren eta Frantziaren arteko mugarritze itunean ondoko leku izenak aipatzen dira: “Chardacacogaina”, “Iturzaetaco-gaina”, “Mulidoyaco-gaina”, “Ochogorricogaina” (1856). Cf. halaber, Uskartze, top. *Izizbidagainea*: “el termino lla[ma]do *Izizbidagaynea*” (1676 EEAT).

Halarik ere, taldea kasu guztietan sabaikaritu ez den arren, aldaera bustiak ere aurkitzen ditugu maiz (“Ardibidegaña” 1563, “Ardibidegaña” 1569). Zalantza honek argi eta garbi erakusten du XVI. mendean garapen hau oraindik erabat finkaturik ez zegoela. Izabako kartografian *Añelarra* eta *Anialarra* aldaerak ditugu. *Biñessepea* (1641 Bur), *Garçeateña* (1647 Bur), *Garçiatena* (1642 Bur); baina, era berean, *Biniesepea* (1658 Bur) eta *Garaitenia* (“Garaytenia” 1464 Bid).

Zuberoan bustidura da nagusi: Santa Grazi, top. *Egürgaña*, *Mürüxe de haut*: *Mürüxegaña*, *Serragaña*, *Utziagaña*, *Bidiagaña*, *Zalhagaña*. Larraine, top. *Andozegañeko naba* (“Andouchagagnia conaba”), *Behetiko Loxegañekoa* (“Beheticolajagagnecoua”), *Üthürriügaña* (“Uthurrugagne”), eta 1914ko katastroan bertan, beste leku izen hauek: “Uthurry gagnia”, “Etchegagnia”,

“Bordagagnie”, “Eyharceburigagnia”, “Uhaitz gagneco alhorra”, “Sarrasgagneta”, “Eyharceburugagnie”.

Kontsonante albokoen sabaikaritzeaz denaz bezainbat, zenbait kasutan, ez beti, bustidura gertatu da, batzuetan ondoko bokal goikoak eraginda, beste batzuetan adierazkortasun maila goratze aldera apika: Juan *Cherrael* 1586 Izb; Petri *Cherral* 1598 Urz; Domingo *Cherrall* 1593 Izb; Domingo *Cherralh* 1616 Err; Vicente *Cherrail* 1828 Izb); Erronkarin, *Txerrallaborda* (“Cherralla borda” 1651; “Cherrallaborda”, Abolengo Liburuan; cf. familia izen *Txerrail*, *Txarrailiko*). Bidankoze, top. *Billiatxiaran erreka* (“Villichiaranrreka” 1464; bustidurarik gabe, aldaera, “Vilichea” 1561), *Billasko* (baina “Bilasco” 1652), *Billaskuarena* (“Bilaskoarena”, kartografian), *Egillorre*, *Egullorre*, *Panpilloni*. Burgi, top. *Burgillarrezia* (“Burkilarrezia”, kartografian), *Mellua*, *Melluga*, *Panpellon*, *Panpillon*, *Panpillone*. Garde, top. *Krutxillaga*, baina Erronkari, *Krutxilaga*. Erronkari eta Garde, top. *Ollokia*; Santa Grazi, top. “Oilloqui” 1914. Uztarroze, top. *Meakasapalla*.

Azentuaz

Erronkarieraren azentua zubereraren antzekoa zen. Erronkarierarenak babilio fonologikoa zuen, zubererarenak bezala, eta kasu mugagabeak eta mugatuak ezberdintzen zituen hark bezala (*bí alába* baina *bí alabák*). Halere, azentuak ez ziren erabat berdinak, ondoan zituzten hizkuntza erromanikoen azentuetatik hurbil baitzeuden. Finean, hizkuntza erromaniko hauekin elkarretaratzen eta hurbiltzen zituenak elkarrengandik urruntzen zituen. Bestalde Erronkaribarren azentu mota guztiak genituen, Zuberoan ez bezala:

Azentuazio oxitonoa: Izaba, oikon. *La Borda de Gixón*, *La Borda del Urzankiár* (Timoteo Karrikiri). Izaba, top. *Arnáz*, *Tanburín*, *Pescamún*, *Añi* (Orestes Tapia), *Mendikosánz*, *Lapurrúx*, *Anié* (Justo Bake Salbotx). Uztarroze, oikon. *Mundugúx*, *Nimini*, *Allamán*, *Xoldán* (Manuel Labairu). Anson, erdararen eragin bortitzaren ondorioz euskal toponimo anitz desitxuratu direnez gero, gerta daiteke ahots kolpea bera ere silabaz aldatzea, jatorrizkoak ez diren ebakera oxitonoak sortuz (*ordóki* / *ordokí*): Anso, top. *Berdolójí* (kartografian), *Berdolokí* (Félix Ipas).

Azentuazio paroxitonoa: Izaba, top. *El Arróndo*, *La Kartxéla* (Orestes Tapia jaunaren ebakeran). Bai erronkarieraz, bai zubereraz, azentua hitz-elkartuen bigarren osagaiaren lehenengo silaban kokatzen da, ebakera paroxitonoak ahalbidetuz: Izaba, top. *Kañadazíloa* (“Kañadasíloa”, “Kañasíllós”, Justo Bake Salbotx). Uztarroze, top. *Basajéina* (“Basisáina”, Manuel Labairu).

Azentuazio proparoxitonoa: Bidankoze, top. *Ari(s)bákotxa* (Crisanto Pasquel); Urzainki, top. *Arisbákotxa*, *Bordéberro* (Nikolas Nektotx); Uztarroze, top. *Berrobákotxa* (Manuel Labairu); Anso, top. *Saiéstiko* (Félix Ipas). Erronkarieraz hitz oxitonoak, paroxitonoak eta proparoxitonoak daude (Antonia Anautek *ságarra*, *mánzana* eta *Zánkoza* ebaki zuen Artola (1977) ikerleren aurrean). Zubereraz, berriz, hitz gehienak paroxitonoak dira eta gainerakoak oxitonoak, alegia, zubereraz hitz proparoxitonorik ez dago.

“La Tabla dets Trois Rois”, euskararen ekialdeko azken mugetan

Eremu honetako toponimia guztiz euskalduna da ikusi ahal izan den bezala. Ez da harritzekoa, Zuberoan oraindik bizirik dago euskara eta Erronka-

rin duela gutxi arte bizi izan dira euskaldun zaharrak. Hauei euskaldun berriek hartu diete lekukoa eta ez dute, ez, nolana galtzera utziko arbasoen ondarea. Beraz, Erronkarin euskal toponimiak iraunen du, jaso baitago (cf. *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* lan erraldoia). Zeharo ezberdina da Biarnoko edo Ansoko kasua. Biarnon, euskara ez da, inolaz ere ez, beren iraganaren nortasun ezaugarritzat baloratzen; aitzitik, erabat arrotz sentitzen dute, beren-berena izan arren. Anson, berriz, zenbait ansoar kulturadunen artean euskararen aldeko jarrerak gero eta nabarmenagoak diren arren, badira oraindik haien ibarraren euskal toponimiaren inguruan ideia bitxiak eta ez guztiz zuzenak dituztenak (kanpotarrek ekarritako izenak, omen). Dena den, Anso ibarraren kasuan, azertu diren toponimoen %23 euskaldunak edo euskarak eragindako toponimoak dira. Portzentajea kontuan hartzekoa da, ez da, ez, nolana hikoia. Jakina, horietako asko eta asko ez dira guztiz garbiak euskararen argira, eta gerta liteke beste iturri batzuetatik sortuak izatea; baina horiek bazter utzita ere, Anso Ibarreko goi haranen toponimiaren euskal jitea ezin ukatuzko egia dugu oraindik ere.

Iruñeko ikerle eta euskalari Mikel Belaskok (2004) erakutsi duen bezala, Nafarroako herrietako toponimoen maiztasuna sakonki aztertuz gero, argi eta garbi antzeman daiteke euskara noiz galdu zuten, edo oraindik euskara osasuntsu ote dagoen. Honela bada, herri baten toponimia guztiz euskalduna bada, horrek euskara herri horretan oraindik bizirik dagoela esan nahi du (hauxe da ondoko herrien egoera: Aezkoako Hiriberri, Muskitz (Imotz), Urdiain eta Etxarri-Aranatz); euskal toponimia %60 eta %70 arteko bada, honek esan nahi dezake 1870 urte aldera, gutxi gorabehera, euskara galdu zela herri haietan; esaterako, Iruñerrian eta Orbaibarren. Eulate eta Uskartzeko euskal toponimoen maiztasuna %65ekoa denez gero, garai beretan galduko zen euskara. Abartzutzan, %60 izanik, ca. 1850. Lana ibarrean (%40) eta Irunberrin (%41) XVIII. mendean; eta Ega ibarrean (%25), 1650-1700 urteen artean galduko zen ikerlearen ustez.

Eta nik galdetzen diot neure buruari: Anson, euskal toponimoen portzentaje bertsua izanik, noiz galdu zen euskara? 1.107 toponimo eta aldaera nagusi ikertu ditut Anso ibarrean (7.222 sarrera guztira). Toponimo eta aldaera nagusi hauetatik 255 euskaldunak edo euskarak eragindakoak direla dirudi (1.565 sarrera guztira). Baliagarria ote da Mikel Belaskoren teoria Anso euskararen kasurako edo beste aldagarri batzuk ezarri beharko ote ditugu?

Ipar-hegoko eta sortalde-sartaldeko ardatzek lotura bereziak eraiki dituzte hemengo auzo ibarren artean. Ekialdetik mendebaldera doan sendoa da guztiz. Izan ere, Zuberoan Biarnoko garapenek eragina izan zuten. Hein berean, Aragoiko hizkerak erabat baldintzatu zituzten Erronkaribarko erdara eta erdal toponimiaren hedatzea euskararen kaltetan, euskararengan bertan bere eragina utziaz, azentuaren atalean garbi erakutsi den bezala. Ipar-hegoko ardatzari dagokionez, gaskoierak bere eragina hedatu du Erronkarin: *Landalonga* (Uzt), *Batikotxe* (Izb, *Baticoigt*, Ereta), *Bracalunque*, *Monbiela*, *Monlon*, *Mont Franco*, *Murlong*, *Pescamon*, *Camalonga* (Izb), *La Batxa*, *La Pabe* (Err); Anson bertan ere, top. *Arreclusa*, *La Reclusa* (“arrec luzea”, alegia, ‘erreaka luzea’).

Baina Biarnoko hizkerak eragin dituen toponimoen artean bada bat beste-teen gaintik gailentzen dena. Mila bider erabilia izan da denon ahotan eta

denok uste izan dugu zeharo frantsesa zela eta ustezko frantses horretatik, herri etimologia baliatuz, gaztelaniara itzuli dugu, eta hemendik euskarara. Nafarroako gailurraz ari naiz. Biarno, Aragoi eta Nafarroa batzen diren lekuaz. Jakina, han bi errege bil zitezkeen, Aragoikoa eta Nafarroakoa, baina Biarno tarteka erreinutzat hartu izan bazen ere (“la Villa de Sanctamaria del Rey. o de Bearn” 1609), ez zen inoiz ere benetako erresuma izan, jaurreri (“Aramiz de la bal de Baretous de la seigneurie de Bearn” 1524), printzerri (“el principado de Bearn del Reyno de Francia” 1661) edo bizkonterria baizik. Inglaterrako erregeak edo Frantziakoak ez ditut hor erraz ez kokatzen, ez irudikatzen, askoz ere gutxiago Espainiakoak. Beraz, susmoa hartu dut han hiru erregeen mahairik inoiz ere ez dela egon.

Gaskoieraz *tros* hitzak ‘zati’ (gazt. ‘trozo’) adiera du: “unos tros de suba per pasage” (1680). Beldur naiz ea *La Mesa de los Tres Reyes* ez ote den *La Tabla dets Tro(is) Rois*. Bada, Léès-Athas herrian mendi bat *Mail Rouy* deitzen dena, gaskoieraz ‘mallo gorria’, ‘belardirik gabeko mendia’, ‘gailur biluzia’ adiera duena. Orobat, Barétous ibarrean, *Rouy* izeneko mendia dugu, adiera berberarekin, inongo erregerekin zerikusirik ez duen toponimo gorria. *Hiru Erregeen Mahaia* akats baten gainean eraikitako itzulpena dugu. Erronkarin eta Biarnon *tabla* hitzak ez du ‘mahaia’ esan nahi. Urzainkiko *Goientableta* leku izenak ez du, ez, ‘goien mahaieta’ esan nahi: “en la parte llamada Goyentableta” (1571). Borceko *Table de Souperret* aurkintzan ez dago inongo mahairik. Eta Laskungo “Col de Lhurs ou de la Table” aurkintzan ere ez. Gure arbasoek zertarako mahaiez bete nahiko zuketena mendia?

Anson bada aurkintza bat *Barranco de las Tablas* (1664) deitzen dena. Egutera bat zen eta bertan harrobi bat omen zegoen: *Cantera del Solano de las Tablas* (1668). Garden badago borda bat izen hau duena: *Borda de Tablajero* (kartografian). Ezkarozen bada leku bat *El Tablado* deitzen dena. Uztarrozeko Abolengo Liburuan *tabla* batzuk aipatzen dira “tablas de media juada” (ik. 265. or.; *juada*, alegia, *jugada*, *yugada*; uztarturiko bi idik egun batean egin dezaketen lana). Urzainkiko agiri batean hauxe irakur daiteke: “una junta de tierra en Unas *tablas*” (1641, Nafarroako Protokoloen Artxiboan; hemen ere *junta*, *yunta* hitzarekin lotu beharra dago). *La Tabla dets Trois Rois* ez da *Hiru Erregeen Mahaia*, *La Tabla de los Trozos Pelados* baizik, non *tabla* lur sail bat den ‘Aduana’ adiera ere izan ohi du, *tros* zati bat (cf. Burgin, *Zatiberri* ‘el trozo nuevo’) eta *rouys*, *roayes*, *rois* euskal gorria hitzaren sinonimoa, zeinak belarririk gabeko harri edo haitz biluzia adiera duen. Gure arbasoek *El Pueyo de Nay* izena eman zioten aurkintza honi:

Proceso aprendido y confrontado ante el Justicia de Aragón, sobre la posesión y disfrute del Puerto de Linça.

24 de julio 1623 (Paper sorta 223/18, Ansoko Udal Artxiboa)

“Que en y por todo el dicho tiempo j tiempos arriba recitados el dicho termino y puerto de Linça en el presente y processo Apprehendido j las partidas en el Comprehendidas arriua nombradas por la parte que confrentan con los terminos de la propia valle de Anso, de la villa daspa del Principado de Biarne j de la valle de Roncal del Reyno de Nauarra le mojonan y diuiden començando en el Pueyo de Maç, y Baxando de dicho Pueyo viene al estre-

cho de Hezprodi termino y puerto de la dicha valle de Anso j de dicho estrecho sube al mojon por la peña de La Carreguia arriua al mojon j sierra que diuide los terminos de la dicha valle de Anso con los terminos de la dicha valle de Aspa j de alli van los mojones al achar de Pietrachema j de alli arriua sierra a sierra por el mojon de Biarne arriua al *Pueyo de Nay* por la parte que confrentan con la dicha valle de Roncal viene dicha amojonacion vaxando del dicho Pueyo al vertiente de los dichos terminos de la dicha valle de Roncal vaxa al estrecho j cabo de la dicha partida del apaluraa de la dicha valle de Anso j de alli viene al mallo de sancta engracia j de alli vienen dos mojones de dicho puerto a la parte vaxa de dicha partida de Linzola de la dicha valle de Anso”.

Euskarararen egoera diakronikoa erakusten duten mapa guztietan euskararen galeraren mugak Nafarroako muga adiministratiboei egokitu ohi dira, VII. edo VIII. mendetik honat, Nafarroatik ekialdera dauden Aragoiko lurreetan euskararik egon izan ez baitzen bezala. Menendez Pidalek (1950) marraztu zuen mapan erromantzea noiz ailegatu zen gurera azaltzen da, baina ez du inolaz ere aditzera ematen erromantzearen sorrerarekin batera euskara desagertu zenik, hala ez baitzen gertatu. Erromantzea eta euskara batera bizi izan ziren hainbat eta hainbat herritan. Etxarri-Aranatz herria bera, oraindik guztiz euskalduna den herria, herri erromatztatuen artean aipatzen da 1778ko epaian (“Proceso entre los Receptores eclesiásticos romanizados”, cf. Irigaray, 1974: 58, Apat Etxebarne). Caro Barojak berak (1945) marrazturiko mapan, XVI. mendearen egoera irudikatzen zuen isoglosa Nafarroako mugan hiltzen da. Ez ote zegoen mundurik marratik haratago? Toponimiaren ikerketaren argitan, garai haietan Anso ibarra euskalduna zela esateko arrazoi nahikoa dago eta hipotesi modura proposa daiteke, Valdonsellako herrietan ere, Iruñeko eliz barrutiko lurak baitziren, euskara oraindik bizkor zegokeela. Bonaparte Printzeak berak galdetu zuen, mende batzuk beranduago, ea ez ote zen oraindik euskaldunik geldituko Erronkari inguruko Aragoiko haranetan, Irigarayk sumatu zuen bezala, Axularrek “eta bertze anitz lekhituan” esan zuelarik, agian Aragoi izan baitzezakeen gogoan.



BIBLIOGRAFIA

- ALLI ARANGUREN, Juan Cruz, *La mancomunidad del Valle de Roncal*, Nafarroako Gobernua, Lehendakaritza saila, Iruñea, 1989.
- ALVAR LÓPEZ, Manuel, “Notas lingüísticas sobre Salvatierra y Sigüés”, *AFA*, 8-9, Zaragoza, 1957.
- ARCO, Ricardo del, “Ordenanzas inéditas dictadas por el Concejo de Huesca. (1284 a 1456)”, *Revista de Archivos, Biblioteca y Museos (RABM)*, 29. znbk, 1913: 432.
- ARTOLA, Koldo, “Erronkariko ‘uskararen azken hatsak... oraino’re!”, *FLV*, XII, 1980, 49-85.
- , “Erronkariko uskararen azken hatsak... einore!””, *FLV*, IX, 1977, 75-107.
- , “Ezkabarteko euskara”, *Aingeru Iriagayri omenaldia*, Zarautz, 1985, 97-112.
- AZKUE, R. M., *Diccionario Vasco-Español-Francés*, 1905-1906 (facsimile, Euskaltzaindia, 1984 [3]).
- , “Particularidades del dialecto roncalés”, *Euskera*, XII, 1931, 207-407.
- , *Morfología vasca*, Bilbo, 1925 [3 liburuki, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969].
- BELASKO, Mikel, “Una visión de la Ribera de Navarra a través de su toponimia”, *Vascuence y Romance: Ebro-Garona un espacio de comunicación*, R. Jimeno eta J. K. Lopez-Mugartza arg. koord., Nafarroako Gobernua, 2004, 55 eta ond.
- BONAPARTE, L. L. (zuz.), *Algunas oraciones en el dialecto de [Garde]*, Nafarroako Artxibategi Orokorra B-116.
- , *Catálogo de palabras del dialecto de Garde*, Nafarroako Artxibo Orokorra, m/s B-115.
- , *Catecismo Español de la Doctrina Cristiana por el P. Gaspar de Astete, Añadido Por el lic.do D. Gabriel Menendez de Luarda. Y traducido al bascuence de Vidangoz por su Cura párroco D. Prudencio Hualde, anotando al pie de cada plana algunas palabras segun se pronuncian en alguno de los otros pueblos de este Valle de Roncal*, Nafarroako Artxibo Orokorra B-117. «Eskuizkribu hau Bonapartek bere edizioarako (EDot) erabili zuena da; baina, printzeak bertan ohartu bezala, benetan (eta sarritan) “verifié eta modifié” dago» GOMEZ (1991: 424).
- , *Cuestionarios y notas lingüísticas sobre los dialectos de Aríbe, Jaurrieta, Roncal, Roncesvalles y Bidangoz*, Bizkaiko Aldundiaren Biblioteka Bv-67, «Urzainkiko eta Uztarrozeko datuak ere» GOMEZ (1991: 424).
- , *Doctrina Cristiana, dialecto de Roncal*, Nafarroako Artxibategi Orokorra, B-112, «DU-ren bigarren zatia kopia da, Bonaparte printzeak egina» GOMEZ (1991: 423).
- , *Doctrina Christiaia*, Nafarroako Artxibo Orokorra B-110, «Erronkari herriko hizkeraz idatzia. Doctrina Uscaz-en jatorizko eskuizkribua, Nafarroako Artxibo Orokorra B-118» GOMEZ (1991: 424).
- , *El Sagrado Evangelio de San Mateo, traducido de la versión castellana por [Torres] Amat al bascuence de Vidangoz*, Nafarroako Artxibategi Orokorra B-76.
- , *Le petit cathécisme espagnol du P. Astete, traduit en trois dialectes basques: 1. Aezcoan, par Don Pedro José Miondo, instituteur à Garralda, avec la coopération de Don Martin Elizondo d'Aríbe; 2. Salazarais, par Don Pedro José Samper, curé de Jaurrieta; 3. Roncalais, par Don Prudencio Hualde, curé de Vidangoz. Verifié et modifié sur les lieux mêmes par le prince Louis-Lucien Bonaparte, avec le concours des gens de la campagne, et après avoir rendu les trois versions aussi comparatives que possible*, Londres, 1869.
- , *Recopilación de diversas oraciones en vascuence*, Nafarroako Artxibategi Orokorra B-109, «Gardeko hizkeraz idatzia» GOMEZ (1991: 424).
- CAMINO LERTXUNDI, Iñaki, arg. *Nafarroako Hizkerak*. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak, Udako Euskal Unibertsitatea UEU, Bilbo, 1998.
- CARO BAROJA, Julio, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Acta Salmanticensia, 1, Salamanca, 1945 (1946) [Txertoa, 1990; 1, arg. *La lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca 1945].
- , *Sobre la toponimia del Pirineo aragonés*, CSIC, Institución Fernando el Católico, Zaragoza, 1981.
- CIERBIDE MARTINENA, Ricardo (zuz.), *Lengua y Literatura románica en torno al Pirineo*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1986.
- COROMINES, Joan, “De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos”, *FLV*, 12, 1972, 299-319.
- , *Estudis de toponímia catalana*, 2 liburuki, Barcino, Bartzelona, 1965-1970.

- , *Tópica Hespérica*, 2 liburuki, Gredos, Madril, 1972.
- EEAT, LOPEZ-MUGARTZA, Juan Karlos, *Erronkari eta Ansoko Toponimiaz*, Doktorego Tesia. Gasteiz, 2006. Argitaratugabea.
- ESTORNÉS LASA, Bernardo, “De toponimia roncalesa”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 379-388.
- , “El dialecto roncalés en la muga de Aragón y Bearn”, *IKER* 2, Bilbo, 1983, 215-218.
- , *Diccionario español – uskara roncalés / Erronkariko uskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Saila, 1997.
- ESTORNÉS LASA, José, “Zoiloren Uzta. La cosecha de Zoilo”, *FLV*, xvii, 45, 1985, 31-93.
- , *Erronkari'ko uskara*, Auñamendi-Itxaropena, Zarauz, 1968.
- , “Erronkari'ko uskaraz elestak. Fraseologia roncalesa”, *FLV*, xiv, 40, 1982, 461-483.
- , “Jesu-Kristo gore Jainaren Ebanjelio Saintua. Pedro Prudenzi Hualde Mayo. Oraiko ortografia eta anotazione batzuk”, *FLV*, xiv, 39, 1982, 43-103.
- , “Mendigatxak Azkueri kartak, 1902-1916. Eta Erronkariko Uskaratik utzulpen ta goarpe-nak”, *FLV*, xvi, 43, 1984.
- ESTORNÉS LASA, Mariano, “Los últimos euskaldunes de Izaba (Roncal)”, *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País*, BSVAP, 1963, xix, 93-94.
- EUSKALERRI IRRATIA, *Nafarroako euskaldunen mintzoak*, Mugica, Matías (arg. koord.), Euskalerrria Irratia, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990.
- FAGOAGA, Isidoro de, “Una carta en euskera de Julián Gayarre”, *Gernika aldizkaria*, 14, 1951, urt.-martx. 12 [in APAT-ETXEBARNE, *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra*].
- GARRIZ, Javier, *La villa de Garde en el Valle de Roncal: ensayo de una monografía parroquial*, 1923.
- GOMEZ, Ricardo, “Erronkarierazko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa”, *Memo-riar L. Mitxelena. Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 1991, 376-426.
- HUALDE MAYO, Prudencio, “Evangelio de San Mateo traducido al vascuence roncalés de Vi-dángoz”, *RIEV*, xxv, 527-548; *RIEV*, xxvi, 185-195.
- IBARRA, Orreaga, “Mezkirizko Toponimiaz”, *FLV*, 58, 1991, 301-357.
- , *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1995. Doktorego Tesia.
- IDOATE, Florencio, “Agotes en los valles de Roncal y Baztán”, *Revista Príncipe de Viana*, 33, Iruñea, 1948.
- , *El Tributo de las Tres Vacas*, Temas de Cultura Popular, 81, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea, 1977b.
- , *La brujería en Navarra y sus documentos*, Institución Príncipe de Viana, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea.
- , *La Comunidad del Valle de Roncal*, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea, 1977.
- , “Un proceso de Brujería en Burgui”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra (CEEN)*, vii, Iruñea, 1975, 225-227.
- IRIBARREN, J. M., *Vocabulario navarro*, Príncipe de Viana, Iruñea, 1984.
- IRIGARAY, Angel (Apat-Etxebarne), “Etnología e Historia del Alto Aragón”, *BRSVAP*, 1949, 507-511.
- , “Gentilicios del vasco medieval”, *BRSVAP*, xviii, 1962, 423-426.
- , *Una geografía diacrónica del Euskera en Navarra*, Diario de Navarra, Iruñea, 1974.
- IRIGOIEN, Alfonso, “Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue. Es-critas en vascuence roncalés y en castellano”, *Euskera*, ii, 1957, 119-170.
- , *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1986.
- IZAGIRRE, Kandido, “Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk”, *BRSVAP*, xxv, 1959, 279- 314 eta 1960, 391-407.
- , *Euskal testu zaharrak I*, Iruñea, 1987.
- JIMENO JURIO, J. M., zuzend., *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza. Toponimia y Cartogra-fía de Navarra, Erronkari Ibarra*, xiv. Liburukia, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1994.
- KNÖRR BORRÁS, Henrike eta LÍBANO ZUMALACÁRREGUI, Ángeles (arg.), *Actas de las I Jorna-das de Onomástica. Toponimia, Vitoria-Gasteiz, Abril de 1986 = I. Onomastika Jardunal-dien Agiriak, Toponimia, Gasteiz, Onomasticon Vasconiae*, 4, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991.

- KUHN, Alwin, *Der Hocharagonische Dialekt*, Leipzig, 1936.
- , “El aragonés, idioma pirenaico”, *Actas del Primer Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos*. (Donostia, 1950), Zaragoza, 1952, 65-79.
- , *Estudios sobre el léxico del Alto Aragón*, Zaragoza, 1971.
- LACASTA ESTAUN, Gartzten, “El Euskera en el Alto Aragón”, *Eusko Ikaskuntza, Hizkuntza eta literatura*, 12, Donostia, 1994, 141-278.
- LACOMBE, Georges, “Lettres du Prince Bonaparte à Don Arturo Campión”, *RIEV*, XXIII, 1932, 195 eta ond.
- LAFON, René, “A propos des noms de lieux en -os et en -osse du département de la Dordogne”, *Actes XI. Congrès Etudes région. Fédér. histor. Sud-Ouest*, Bergerac, 1958, 9-13.
- , “La frontière linguistique du Basque et du Gascon. Au confluent d’Adour et des Gaves”, *Bulletin de la Société de Borda (BSB)*, Dax-Akize, 1962, 7-13.
- , “La lengua vasca”, *Enciclopedia Lingüística Hispánica (ELH)*, 1. liburukia, *Antecedentes y Onomástica*, Madril, 1960: 67-100.
- , “Sur la place de l’aezcoan du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes”, *Pirineos*, XI, 1955, 109-133.
- , “Contribution à l’étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)”, *Miscelánea Homenaje a André Martinet (II)*, Univ. de La Laguna, Canarias, 1958, 77-106.
- LATIEGUI ERASO, Vicente, “El euskera en la Huesca de los siglos XIV al XVI”, *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, 58-1, Donostia, 2002, 5-28.
- LE BLANT, R., “Le tribut des trois vaches”, in *Aspects de la vie pastorale dans la montagne basque et béarnaise, catalogue et recueil de textes*, Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques et leur Service éducatif, Pau, 1980 [1920, 1. arg. *Le tribut des Trois Vaches*, Pau].
- LONNÉ-PEYRET, J.-M., *Arette, un pionnier raconte*, Arette, 1989.
- MENÉNDEZ PIDAL, Ramón, *Orígenes del español*, Madril, 1950 [Espasa-Calpe, 10. arg., 1986].
- , “«Javier Chabarrí», dos dialectos ibéricos”, *Actas de la Primera Reunión de Toponimia Pirenaica*, CSIC, Zaragoza, 1949 (1-10 orr.).
- , “Sobre las vocales ibéricas e y o en los nombres toponímicos”, *Revista de Filología Española (RFE)*, v, Madril, 1919 [*RIEV*, XI, 43-44].
- , *Toponimia prerrománica Hispana*, Gredos, Madril, 1968.
- MITXELENA ELISSALT, Koldo, *Apellidos Vascos*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1953 [lan honetan erabiltako argitalpena, Txertoa, Donostia, 1973, 3. arg.].
- , *Fonética Histórica Vasca*, Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo de la Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia, 1960 [1985, 3. arg.].
- , “Notas fonológicas sobre el salacenco”, *ASJU*, 1, 1967, 163-179.
- , *Orotariko Euskal Hiztegia* (ik. OEH).
- , “La posición fonética del dialecto vasco del Roncal”, in *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 1988, 273-297. Lehen arg., *Via Domitia*, I, 1954, 130-157.
- , “Toponimia, léxico y gramática”, *FLV*, III, 9, 1971, 241-267.
- , “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU*, 1981, xv, 291-313 or.
- , “Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el príncipe Bonaparte”, *BRSVAP*, XIV, 1958, 335-364.
- , eta IRIGARAY, Angel, “Nombres vascos de persona”, *ASJU*, II, 1955, 107-127 eta *Acta Salmanticensis*, XI, 1958, 73-92 [lan honetan erabiltako argitalpena, *Sobre historia de la lengua vasca*, 581-594].
- , eta AGUD QUEROL, M., “Formas populares de topónimos del País Vasco anteriores a 1900”, *Acta Salmanticensis*, XI, 1958, 39-59.
- , et al. [BELOQUI, J.J.; ELOSEGUI, J. eta SANSINENA, P.], “Contribución al conocimiento del dialecto roncalés”, *Biblioteca de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, (*BRSVAP*), 9, 1953, 335-364.
- MUGICA, José A., *Apellidos de Iberia*, Edili, Bilbo, 1968 a.
- , *Apellidos Vascos*, Edili, Bilbo, 1968 b.
- NAGORE LAIN, Francho Chabier, *Gramática de la lengua aragonesa*, Librería General, Zaragoza, 1976.
- NPA, Nafarroako Protokoloen Artxiboa, Nafarroako Gobernua.
- NTEM, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza. Toponimia y Cartografía de Navarra*, ik. JIMENO JURÍO, J. M. (zuz.), 1991 eta ond.

- OEH, MITXELENA, Koldo, *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 15 liburuki, Euskaltzaindia, Desclée de Brouwer, Bilbo, 1987 eta ond. [lan honetan OEH laburtzapenaz aipatua].
- PALAY, Simin, *Dictionnaire du bearnais et du gascon modernes*, Paue, 1932 [Eds. du Centre Nat. de Recherche Scientifique, Paris, 1991].
- PEILLEN, Txomin, "Andoze ibarreko leku izen nagusiak eta xeheak", *FLV*, 57, 1991, 89-105.
- , "Toponymie gasconne en Pays Basque et basque en Béarn limitrophe", *Langues en Béarn, Cahiers de l'Université*, Presses Universitaires du Mirail, Université de Toulouse-Le Mirail, 1989, 107-128.
- ROHLFS, Gerhard, "Aspectos de toponimia española", *Boletín de Filología (BF)*, XII, 1951, 263 [Studien zur romanischen Namenkunde, Munich, 1956].
- , *Diccionario dialectal del Pirineo aragonés*, Temas aragoneses, 57, CSIC, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, 1985.
- , "Fabla chesa del Alto Aragon", in FERNÁNDEZ-SEVILLA, Julio (arg.); LÓPEZ MORALES, Humberto (arg.); MOLINA, José Andrés de (arg.); QUILIS, Antonio (arg. eta biog.); SALVADOR, Gregorio (arg. eta introd.); ALVAR, Elena (bibliog.), *Philologica Hispaniensa in Honorem Manuel Alvar, I, Dialectologia*, Gredos, Madril, 1983.
- , *Le gascon*, Niemeyer, Tübingen, 1977.
- , "Le Patois de Lescun (Basses-Pyrénées)", Palma de Mallorca, 1931.
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi, "Toponimia dialektologiaren ikerbide", *Nazioarteko dialektologia biltzarra, Agiriak, Iker* 7, 1992, 619-647.
- , *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Onomasticon Vasconiae, 11, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.
- , "Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)", *FLV*, 74, 1997, 7-39.
- SASIA, Jesus Maria, "Más sobre toponimiauskérica...", *Euskera*, 44, 1999-2.
- TOVAR LLORENTE, Antonio, "Los Pirineos y las lenguas prelatinas de España", *Primer Congreso Internacional del Pirineo*, Filología 16, (93), CSIC, Zaragoza, 1952.
- , "Orígenes del euskera: parentescos, teorías diversas", *Euskal Linguistika eta Litgeratura: Bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1981.
- TXILLARDEGI, "Sarralzune", *Euskal Herritik erdal herrietara*, Graf. Bilbao, Amorebieta, 1978.
- , "Jean Pierre Seilliez-ekin hitzegiten", id.
- , *Euskal Fonologiak*, Ediciones vascas, Donostia, 1980.
- , *Euskal Azentuaz*, Elkar, Donostia, 1984.
- et al., *Euskal dialektologiaren hastapenak*, UEU, Bilbo-Iruñea, 1983.
- UBIETO ARTETA, Agustín, *Toponimia Aragonesa Medieval*, Institución Fernando el Católico, Anubar, Valentzia, 1972.
- VICÉN PÉREZ, Ana Cristina eta MONCAYOLA SUELVEZ, Santiago, *Bocabulario de l'ansotano*, Publicazións d'o Consello d'a Fabla Aragonesa, Huesca, 1991.
- YRIZAR, Pedro de, *Morfología del verbo auxiliar roncalés (estudio dialectológico)*, Euskaltzaindia, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1992.
- ZUAZO, Koldo, "Zubereraren sailkapenerako", *ASJU*, XXIII-2, 1989, 609-650.

Uskarari kantua
 Goazen, goazen kébentik
 íriaren érditik
 Gore uskara moitéa
 guk nai dugu elerran
Jose Estornes Lasa
 Ezta, ezta ilen
 Erronkarin uskara!

Juankar Lopez-Mugartza, Iruñean, 2007ko ekainaren 7an.

LABURPENEA

Erronkaribarko eta Anso Ibarreko toponimiaren azterketak erakusten duenez Nafarroako ekialdeko muga herri eta kultura anitzen bilgunea izan dela. Herri hauen behar komunikatiboak antzekoak ziren, baina hainbat hizkuntza diferente erabili behar zituzten haiek asetzeko; alde batetik, latinetiko bi hizkuntza (gaskoiera eta nafar-aragoiera) eta beste alde batetik erromatarren aurreko hizkuntza zahar baten bi euskalki (erronkaria eta zuberera).

Euskara oraindik bizirik dago Ansoko toponimian (aztertu diren leku izenen %23 euskaratikoak edo euskarak eragindakoak dira), eta, ordainez, nafar-aragoiera bizirik dago Erronkaribarko toponimian. Lur hauetako toponimiaren azterketatik ondorioztatzen denez, Anso ibarrean Behe Erdi Aroan erabiltzen zen euskarak inguruko euskaren ezaugarri semantiko eta morfologiko berberak ez, baina oso antzekoak izanen zituela. Orobat, erronkarierarekin antzekotasun fonetikoak izanen zituen azentuari eta tinbreari zegokienez.

Hala eta guztiz ere, ikusteke dago ea erronkaria horren urrunkor egin duten ezaugarri bereizleak Anson bertan ere gertatzen ote ziren. Ez dirudi hala denik, ordea. Alde batetik, agiriren bidez erlazio hori baieztatzeko modurik ez dago eta, bestetik, erronkarieraren garapen bokalikoak, sabaikaritze bereziak, asimilazioak, oso bizkortasun handikoak dira. Asimilazioa, zubererarengan baitan ere, ez da ezta heltzen ere erronkarierarengan heltzen den lekuetara, bizitasun handikoa baita. Nekez onar daiteke, garapen horiek guztiak gertatzen zirela, hiltzeaz zegoen XVI. mendeko Ansoko euskaraz. Dena den, toponimoek ematen diguten informazioa kontuan harturik, argi eta garbi nabaritzen da Erronkariko eta Ansoko toponimoak, hango euskarak, itur bakar batetik, enbor beretik atera zirela. Izan ere, morfologiak eta atzizkien eta oinarri lexikoen azterketak erakusten digunez, batzuen eta besteen jokatibideak oso antzekoak ziren. Honek esan nahi dezake frankoen menperakuntzaren eta Nafarroako eta Aragoiko erreinuan sorreraren eta indartzearen urteak gertatu arte, bi ibar hauen erlazio oso estua izan zela eta, orduan bai, antzeko euskara erabiltzen zutela.

RESUMEN

El estudio de la toponimia del Valle de Roncal en Navarra y del Valle de Anso en Aragón demuestra que el límite oriental de Navarra ha sido secularmente punto de encuentro de culturas con idénticas necesidades comunicativas pero expresadas en diferentes lenguas, unas de origen romance (el navarro-aragonés y el gascón) y otras de origen prerromano (los dialectos roncalés y suletino del euskera).

El romance navarro-aragonés pervive en la toponimia de Roncal y, de igual manera, el euskera está aún vivo en la toponimia de Anso (alcanza a un 23% de los topónimos estudiados). Del estudio comparado de la toponimia de la zona se infiere que el euskera de Anso hablado en la Baja Edad Media participaría de características semánticas y morfológicas comunes a los dialectos vascos vecinos y guardaría similitud fonética en timbre y acento con el euskera roncalés de la época.

Sin embargo, no acaba de quedar claro, ni ha quedado demostrado mediante la documentación, que los rasgos más relevantes que han caracterizado históricamente al roncalés (y lo han hecho tan divergente con respecto a los demás) hubieran sido también propios del euskera ansotano. En efecto, muchas de esas características son producto de la evolución interna del propio dialecto roncalés y, así parece, alimentado por su propia endogamia. Este proceso se fue afianzando y extendiendo cada vez con más fuerza desde la época del euskera común que postulara Mitxelena para los siglos posteriores a la dominación romana, hasta nuestros días. La pérdida del euskera en Anso, relativamente tardía (el euskera todavía podría haber seguido vivo en este valle hasta el siglo XVI), no lo fue tanto si lo miramos desde la óptica de la evolución de

la lengua. No todos los cambios vocálicos y consonánticos que afectaron al euskera roncalés pudieron afectar al euskera de Ansó, porque quizás para entonces ese euskera ansotano ya había desaparecido.

El desarrollo casi desenfrenado de la asimilación en Roncal no tiene parangón ni siquiera en Zuberoa. Parece difícil admitir que esta misma tendencia arrolladora y vitalidad lingüística que demuestra el roncalés ya en el siglo XVI se pudiera haber dado también en el euskera vecino, que para esa época, aun aceptando que existía, debía de estar ya muy debilitado ante el vigor del romance navarro-aragonés y ante una realidad político-administrativa que enfrentaba a los hablantes de ambos valles como súbditos de reinos diferentes. En todo caso, el estudio de la sufijación y de las bases léxicas empleadas en este confín de Euskal Herria demuestra que el tronco de ambos fue común y que si bien el roncalés tuvo una evolución propia y muy particular, hasta los siglos de la dominación franca en el ducado de Vasconia y el nacimiento y posterior desarrollo de los reinos de Navarra y Aragón, ambos dialectos debieron tener rasgos bastante parecidos.

RÉSUMÉ

L'étude de la toponymie de la Vallée du Roncal en Navarre et de la Vallée d'Ansó en Aragon, montre que la limite orientale en Navarre a été, depuis des siècles, point de rencontre de cultures avec des besoins communicatifs identiques mais exprimés dans des langues différentes, les unes d'origine romane (le navarrais-aragonais et le gascon), les autres d'origine pré-romaine (les dialectes roncalais et souletain de la langue basque).

Le roman navarrais-aragonais subsiste dans la toponymie du Roncal et, de la même façon, la langue basque est encore vivante dans la toponymie d'Ansó (23% des toponymes étudiés). De l'étude comparée de la toponymie de la zone, on déduit que la langue basque d'Ansó, parlée au Bas Moyen-Âge, aurait eu des caractéristiques sémantiques et morphologiques communes aux dialectes basques voisins et ressemblerait du point de vue phonétique, quant au timbre et à l'accent, au basque roncalais de l'époque.

Cependant, on n'est pas sûr, et cela n'a pas été démontré avec la documentation, que les traits les plus importants qui ont toujours caractérisé le roncalais (et qui l'ont différencié des autres) auraient aussi appartenu au basque d'Ansó. En effet, beaucoup de ces caractéristiques, sont le résultat de l'évolution interne du propre dialecte roncalais, et semble-t-il, alimenté par sa propre endogamie. Ce processus s'est renforcé et généralisé de plus en plus depuis l'époque du basque commun préconisé par Mitxelena pour les siècles ultérieurs à la domination romaine, jusqu'à nos jours. La perte de la langue basque à Ansó, relativement tard (le basque aurait encore pu survivre dans cette vallée jusqu'au XVI^e siècle) ne l'a pas été autant si nous le voyons du point de vue de l'évolution de la langue. Tous les changements vocaliques et consonantiques subis par le basque roncalais, n'ont pas forcément touché le basque d'Ansó, car il est probable, qu'à l'époque, ce basque d'Ansó ait déjà disparu. Le développement, presque effréné de l'assimilation au Roncal, n'a pas de parangon, même pas à Zuberoa. Il est difficile d'admettre que cette forte tendance et vitalité linguistique que montre le roncalais, déjà au XVI^e siècle, se soit aussi produite dans le cas de la langue basque voisine, qui à l'époque, même si elle existait, devait être très affaiblie face à la force du roman navarrais-aragonais et face à une réalité politique et administrative qui confrontait les parlants des deux vallées comme des sujets de royaumes différents. En tout cas, l'étude de la suffixation des bases lexiques employées dans ces limites du Pays Basque, prouve que le tronc des deux a été commun, et que bien que le roncalais ait eu une évolution propre et très particulière jusqu'aux siècles de la domination franque dans le duché de Vasconia et la naissance et le développement des royaumes de Navarre et d'Aragon, les deux dialectes sont dû avoir des traits assez ressemblants.

ABSTRACT

The study of place names in the Navarrese Valley of Roncal and the Aragonese Valley of Ansó reveals that the eastern boundary of Navarre was traditionally a meeting-point for cultures with communication needs which were identical, but expressed in different languages, some of Romanic origin (Navarrese-Aragonese and Gascon) and other of pre-Roman origin (the Roncal and Souletine dialects of Basque).

The Navarrese-Aragonese Romance language survives in the place names in Roncal and Basque is still alive in the toponymy of Ansó (it reaches 23% of the place names studied). The comparative study of place names in the area suggests that the Basque spoken in Ansó in the Lower Middle Ages shared semantic and morphological characteristics with the neighbouring Basque dialects and phonetically resembled the Roncal Basque of the day in terms of timbre and accent.

However, whether the more relevant features which have historically characterised Roncal Basque (and have set it so apart from the rest) were also shared by the Basque from Ansó has never been clarified or demonstrated through documentation. Indeed, many of these characteristics are the product of the internal evolution of the Roncal dialect itself and, so it would seem, fed on its own endogamy. This process has gained strength and spread since the epoch of common Basque postulated by Mitxelena for the centuries following Roman rule through to the present day. The loss of the Basque spoken in Ansó, which occurred at a relatively late stage (Basque may have survived in this valley up until the XVI century), was not such a loss when considered from the perspective of the evolution of the language. Not all of the vocalic and consonantic changes which affected Roncal Basque could have affected the Basque in Ansó because the latter had possibly already disappeared by the time.

The almost-relentless development of assimilation in Roncal has no equal, not even in Soule. It is difficult to accept that the same overwhelming tendency and linguistic vitality demonstrated by Roncal Basque in the XVI century could have occurred in the Basque spoken in the neighbouring area, which by this time, should we accept it even existed, must have been severely weakened in the face of the vigour of Navarrese-Aragonese Romance and the political-administrative reality which brought speakers from the two valleys into confrontation as subjects of different kingdoms. No matter what the case, the study of the suffixation and lexical bases employed in this corner of Euskal Herria demonstrates that the core of the two versions was the same and, although Roncal experienced its own, extremely particular evolution, they must have shared fairly similar features until the centuries of Frank rule in the Duchy of Vasconia and the birth and later development of the Kingdoms of Navarre and Aragon.